



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko irailaren 17a

100. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2004-2013), Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2004-2013), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 30ean eginitako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2004-2013), ERA-BAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2004-2013), Kontuen Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |   |  |
|---|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Helburua, norainokoa eta mugak (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Helburua eta norainokoa (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Mugak (8. or.).</p> <p><b>III.</b> Eguesibarko Udalaren sozietate publikoak (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. Andacelay, S.L. sozietate publikoa (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2. "Gestión y Promoción Egüés 21, S.A." sozietate publiko mistoa (13. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">III.3. "Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L." sozietate publiko mistoa (16. or.).</p> <p><b>IV.</b> Ondorioak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Eguesibarko Udala (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Andacelay, S.L. (23. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. "Gestión y Promoción Egüés 21, S.A." sozietate publiko mistoa (29. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. "Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L." sozietate publiko mistoa (40. or.).</p> <p><b>V.</b> Laburpena edo amaierako laburbiltzea (49. or.).</p> <p>1. eranskina. Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen balantzearen eta emaitzen kontuen bilakaera (54. or.).</p> <p>2. eranskina. Sozietate mistoekin lotutako jarduketan nagusien laburpen kronologikoa (59. or.).</p> <p>Andacelay sozietate publikoko lehendakari José Alfonso Etxeberría Goñi jaunak aurkeztutako alegazioak (61. or.).</p> <p>Andacelay sozietate publikoko lehendakari ohi José Anastasio Andía García de Olalla jaunak aurkeztutako alegazioak (70. or.).</p> <p>NASIPA, S.L.ren administratzaile bakar Saturnino Luis Ezquerria jaunak aurkeztutako alegazioak (73. or.).</p> <p>Carolina Potau Menéndez andreak aurkeztutako alegazioak (103. or.).</p> <p>Kontuen Ganbararen erantzuna, Eguesibarko Udalaren sozietate publikoei buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei dagokiena. (105. or.).</p> |
|---|--|

## I. SARRERA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen ekimenez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak, 2012ko abenduaren 10ean, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea txosten bat egin dezala *“kontratazio publikoaren eta hirigintzaren arloko legeriaren betetze-maila Andacelay sozietate publikoaren eta bi sozietate mistoetan”*. Eskari hori Kontuen Ganberaren 2013ko jarduketa programan sartu zen.

Andacelay, S.L. tokiko sozietate publikoa Eguesibarko Udalak 2004ko urrian eraturako sozietate bat da, 4.000 euroko kapital sozialarekin. Sozietatearen ehuneko 100 udal horrena da. Haren jarduera nagusiak honakoak izan ditu ardatz:


- Udalerrian etxebizitza babestuak sustatu eta eraikitzeko sozietate mistoak eratzea; horretarako, Andacelayk dohainik jaso ditu Udalarengandik, zenbait ekitalditan, lur-zati batzuk, zeinak gero sozietate mistoei besterendu zaizkion. Bazkide pribatu berarekin honako bi sozietate mistoak eratu ziren:

a) Sociedad Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. 2005eko uztailan eratu zen, 300.000 euroko kapital sozialarekin. Kapital horren ehuneko 51 Andacelayk jarri zuen eta ehuneko 49, berriz, bazkide pribatu batek –NASIPA, S.L.–. Sozietate misto horrek guztira 228 etxebizitza babestu eraiki ditu, eta 2013ko irailean deuseztatu da.

b) Sociedad Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. 2010eko martxoan eratu zen, 3.100 euroko kapital sozialarekin. Kapital horren ehuneko 51 Andacelayk jarria da, ehuneko 48,97 bazkide probatu batek –NASIPA, S.L.– eta ehuneko 0,03 Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietate mistoak. Sozietate misto horrek 138 etxebizitza babestu eraiki ditu.

- Udal ekipamendu berriak eraikitzea; funtsean udaletxe berria eta kirol hiriko igerilekuak.

Laburbilduz, hurrengo tauletan erakusten dugu sozietate horien egituraketa:



K.s.: kapital soziala

(1) 2013ko apirilean, Egüés 21-II-n zeukan partaidetza saldu zion Andacelay sozietate publikoari

(2) 2013ko irailean deuseztatu zen.

(3) 2013ko ekainetik, hartzekodunen borondatezko konkurtsoan dago.

Sozietate horiek ez zuten ez giza baliabiderik, ez baliabide materialik hartu, eta haien kudeaketa- eta eraikuntza-jarduera guztia kanpoan kontratatu zen. Hala eta guztiz ere, 2012ko amaieran, kudeatzaile bat kontratu zen Andacelay sozietaterako.

Sozietate publiko horien jarduera, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz.

Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago 2012an Udalean ikerketa batzorde bat eratu zela, besteak beste, sozietate publikoen jarduketak eta haiek formalizatutako kontratazio-espeditenteak aztertze aldera. Batzorde horren amaierako ondorioak Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zituen 2012ko maiatzean, eta ondorio horiek Epaitegiari, fiskaltzari eta Foru Ogasunari helarazi zitzaizkien, jarduketa horietatik erator litezkeen erantzukizunak, kasua bada, erabaki zitzaten. Gaur egun, gaia erabaki judizialaren zain eta zerga-ikuskaritzaren jarduketaren emaitzen zain dago.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoa eta mugak aurkezten dira; hirugarrenean, sozietate publiko horien egitura eta garatutako jarduera nagusiak erakusten ditugu. Laugarrenean, gure lanetik lortu ditugun ondorioak aurkezten ditugu. Azkenik, bosgarrenak laburpen edo amaierako laburbiltze bat ageri da.

Bi eranskin badaude: batean, sozietate horien balantzearen eta emaitzen kontuaren bilakaera erakusten da, urteko kontuen arabera; besteak sozietate mistoekin lotutako jarduketa nagusien laburpen kronologikoa dakar.

Azterketa-lana 2013ko azarotik 2014ko martxora egin zuen auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta Andacelay S.L. sozietate publikoko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

### II.1. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Kontuen Ganberak Eguesibarko Udalaren sozietate publikoek garatutako jardueren gaineko fiskalizazioa egin du.

Txosten honen xedea da ondorio batzuk adieraztea honakoari buruz: *“Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen jarduerak legezketasun, gardentasun eta kudeaketa zuzenaren printzipioak bete dituen (2004tik 2013ra bitarteko ekitaldiak)”*.

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Hartara, lana, funtsean, honakoen azterketa izan du ardatz:

- Udal organoek jarduketa dela-eta egiten duten kontrolaren azterketa.
- Sozietate horiek egin dituzten jarduketa nagusiak.
- Egindako kontratazio espediente garrantzitsuenak.
- Kontabilitate-erregistroak eta haien ziurtatze-euskarria.
- Udalaren, sozietateen eta bazkide pribatuaren artean egon diren finantza-fluxuak.
- Etxebizitza babestuetako sustapenen emaitzak.

Gure lanaren denbora-esparrua 2004ko urrian hasi zen, Andacelay, S.L. sozietate publikoa eratzearekin eta, 2013ko abenduaren 31ra arte hartzen du.

Gure jarduketa soilik fiskalizazio ekonomiko eta finantzarioaren ikuspuntutik burutu dugu, ekipamenduak eta etxebizitzak eraikitzearen alderdi teknikoak baloratzen sartu gabe; esate baterako, proiektuen eta kalitatearen egokitasuna, neurketa eta materialen prezioa.

Denbora-esparru horren barrenean, gure lanean eragin duten honako alderdi eta gertaerak aipatu nahi ditugu:

- Kontuen Ganberak Udalaren 2006ko eta 2009tik 2012ra bitarteko ekitaldietako Udalaren kontu orokorraren erregularitasunari buruzko fiskalizazio txostenak egin ditu. Txosten horietan, sozietate publikoen atalaren barruan, erregularitasunaren eta kontu orokorren gainerako finantza-alderdien fiskalizazioaren ikuspuntutik, sozietate horiek eginiko kontratazio-espediente nagusiak aztertu ziren.

Halaber, 2013an, txosten bat egin zen Andacelay sozietateak lehentasunezko partaidetzak erosteari buruz.

Azterketa horien ondorioen laburpen bat gehitu dugu txosten honetan.

- Aintzat hartu da 2009ko abenduan Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak egindako txostena. Udalak berak eskatuta egindako txosten horretan, Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren eraketaren legezketasuna aztertu zen, bai eta jarduketa horrek bete beharreko kontratazio administratiboaren arloko arauak ere.

- Halaber, Ikerketa Batzordearen ondorioak, 2012ko maiatzean Osoko Bilkurak onetsitakoak, aztertu dira, txosten honen helburuetan eragina duten alderdiei dagokienez.

- Sozietate mistoen kontabilitate- eta administrazio-kudeaketa, eraketa akordioen arabera, bazkide pribatuak egin du. Andacelay, S.L.ri dagokionak honako mugarrak dauzka:

- a) 2005eko azarotik 2011ko maiatzera zuzenean eraman zuen administrazio kontseiluko ahaldun eta kideak.

- b) 2011ko uztailetik 2012ko abendura bitarte, kanpoko aholkularitza-enpresa batek eraman zuen.

- c) 2013ko urtarriletik gaur arte, beste aholkularitza-enpresa baten eraman zuen.

- Sozietate horien kontuen auditoria enpresa pribatuek egin dute. Kasuko auditoria-txostenetatik ondorio nagusiak atera ditugu: Andacelayren auditoriak enpresak berak egin zituen, salbu eta 2012koa, urte horretan enpresa aldatu baitzen; sozietate mistoen auditoriak, berriz, ekitaldi guztietakoak, auditoriako beste enpresa batek egin zituen.

Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoaren 2012ko urteko kontuak direla-eta zirriborro bat badagoen arren, sozietateko zuzendaritza-organoek oraindik egin gabe daude, eta, logikoa denez, auditatu gabe daude. Hala eta guztiz ere, sozietate beraren bazkide pribatuaren hartzekodunen konkurtsoan, 2013ko uztailaren 31ko balantzea eta emaitzen kontua aurkeztu zen.

Andacelayren 2013ko kontabilitate-informazioa, txostenean jasotakoa, aurrerapen bat da, zeren eta txosten hori idazteko egunean, ekitaldia formalki itxi gabe baitzegoen.

- Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren 2012ko urteko kontuak 2013ko irailean formulatu zituen haren likidatzaileak, likidazioan dagoen enpresa baten printzipioari jarraituz; kontu horiek 2013ko urrian auditatu ziren. Eratu zen garaian zeukan helburu soziala amaituta zegoenez, 2013ko apirilaren 24an likidatu zen, eta legez 2013ko irailaren 24an azkendu zen. Likidazioaren amaierako prozesuko eskriturak, sozietatearen hartzekoa eta ondasunen banaketa aztertu ditugu.

- 2013ko ekainean, sozietate mistoen bazkide pribatuak, NASIPA S.L.k, hartzekodunen borondatezko konkurtsoan zegoela deklaratu zuen. 2013ko abenduan, EAOn argitaratu zen sozietate horren ondasunen eta eskubideen inbentarioa eta hartzekodunen behin-behineko zerrenda argitaratu ziren. Deklarazio horretan, aipatutako bazkide pribatuak Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoarekin zeukan zor garrantzitsu bat agertu zen. 1,26 milioi euroan baloratuta dago.

Txosten hau idazteko garaian, sozietate mistoek egindako etxebizitza babestuen sustapenetako eraikuntza-fasea amaitu da, eta guztira 29 etxebizitza saltzeko geratu dira.

Halaber, aipatu behar dugu Kontuen Ganbera honen eskumen-esparrua, indarreko legediaren arabera, foru sektore publikoko entitateen fiskalizazio ekonomiko eta finantzariora mugatzen dela, eta ez daukala eskumenik esparru horretatik kanpo pertsona fisikoek eta/edo juridikoek eginiko jarduketak ikertu edo berrikusteko.

## II.2. MUGAK

Gure lanean eragin duten mugak ondokoetatik heldu dira, batez ere:

- Zalantzak egotea kontabilitate-erregistroen eta beraien dokumentazioaren osotasunari eta fidagarritasunari buruz, bai eta honako alderdiei buruz ere: aztertutako jarduketaren justifikazio teknikoa, kontrataziorako espediente administratiboak, aktak eta sozietate-itunak, bereziki sozietate mistoenak.

- Sozietate mistoen bazkide pribatuaren hartzekodunen borondatezko konkurtsoaren deklarazioan, bazkide horrek Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoarekin daukan zor garrantzitsuen bolumen bat azaleratu da. Zor horiek ez zeuden kontabilitatean erregistratuta. Horrekin lotuta, 2012ko urteko kontuak birformulatzeko eta 2013ko kontuak egiteko daude.

- Bai Udalak eta bere sozietate publikoek, bai bazkide pribatuak ondarean izan duten hazkundearen kuantifikazioak eskura dagoen kontabilitate-informazioaren metaketan –ez bateratzean– oinarritutako kalkulu bat dira.

- Arlo juridikoan eta tributarioan egiten ari diren jarduketetatik heldu litezkeen ondorio ekonomikoei buruzko zalantzak.

Muga horiek gorabehera, arrazoizko ondorio batzuk atera ahal izan ditugu lanaren helburuetan eta parlamentu-eskaeran planteatutako gaiei buruz.



### III. EGUESIBARKO UDALAREN SOZINETATE PUBLIKOAK

Atal honetan, deskribapen bat egiten dugu Udalaren hiru sozietate publikoen ezaugarriei eta egindako jarduketa nagusiei buruz.

#### III.1. ANDACELAY, S.L. SOZINETATE PUBLIKOA

Eguesibarko Udalak 2004ko urrian eratu zuen Andacelay, S.L. pertsona bakarreko sozietate publikoa, Udalak osorik harpidetu eta ordaindutako 4.000 euroko kapital sozialarekin. Sozietate horren eratze-estatutuak 2004ko urrian onetsi ziren. 2012ko abuztuan, berriz, aldatu egin ziren.

Helburu sozialak erreferentzia egiten dio, funtsean, lurzoruaren, etxebizitzaren eta ekipamenduen sustapenari.

Aurreko jarduketa horiek sozietateak zeharka egin ahalko ditu, edozein motatako elkartetan parte hartuz, nortasun juridikoa dutenekin nahiz halakorik ez dutenekin; antzeko xedea dutenekin nahiz xede berbera dutenekin.

Sozietateak udaletxean bertan du helbidea. 2012ko amaierara arte ez du ez pertsona-baliabiderik, ez baliabide materialik izan bere eginkizunetan jarduteko. Aipatutako urteko abenduan, Administrazio Kontseiluaren osaketan gertatutako aldaketaren ondorioz, kudeatzaile bat izendatu zen, eta hark sozietatearen ahaldu-eginkizunak hartu zituen.

Honakoak dira haren organo sozialak: Batzar Nagusia (Udalaren Osoko Bilkurak eratzen duena) eta Administrazio Kontseilua (Osoko Bilkurak izendatua).

2012ko abuztuan estatutuak aldatu ziren arte, Administrazio Kontseiluak –bost kidek osatutakoak– eskuordetzeko moduko lege- eta estatutu-ahalmen guztiak lehendakariarengan eta sozietateko kontseilu delegatuarengan (garai horretan, Udaleko alkatea) eskuordetuta dauzka. Azken horrek, bere aldetik, behar adinako botereak eta botere zabalak ematen dizkio sozietatearen kudeaketarako zinegotzi kontseilukide bati –“ahalduna”–, zeinak bere gain hartzen baitu, halaber, Administrazio Kontseiluko idazkaritza. Zehazki, honakoetarako ahalmena ematen zaio: kontratuak egin, izaera guztietako kobrantzak eta ordainketak egin eta jarduketa administratibo eta prozesalak gauzatu.

Halaber, aipatutako ahaldu-eginkizunaren kontabilitateaz arduratzen zen 2011ko maiatzera arte. Lan horrengatik, lansari bat jasotzen zuen. 2011ko uztailetik 2012ko abendura arte, lan horiek kanpoko enpresa batek egin zituen, eta 2013ko urtariletik, berriz, beste aholkularitza-enpresa batek.

Kontseilu horren hasierako osaera honakoa zen –2004ko ekainaren bateko Osoko Bilkurak hautatu zituen bost kideak–: alkatea, buru gisa; zinegotzi bat, idazkari gisa; udalbatzako aholkulari juridikoa –izendapen askeko kargua<sup>1</sup>– eta udalbatzaz kanpoko bi kide. Aipatutako bai kontseiluko buruak, bai idazkariak lanpostu horiek bete zituzten 2012ko maiatzera arte.

Geroztik, kontseiluko kideen berritze eta kargu-uzte batzuen ondoren, kide guztiak Udaleko zinegotziak dira, Udalaren aholkulari juridikoaz gainera,<sup>2</sup> zeina 2006ko ekainetik<sup>3</sup> 2012ko maiatzera kidea izan baita.

---

<sup>1</sup> Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialaren arabera, kontseiluko kidearen postua bete zuen 2006ko ekainera arte.

<sup>2</sup> Udalarekin lotuta dago kontratu administratibo baten bidez.

<sup>3</sup> Horixe da Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako data. Alabaina, kontseiluaren 2005eko uztailaren 1eko aktan ageri da egun hartan hartu zuela kontseilukide kargua.

Estatutuak 2012an berritu ondoren, Kontseiluko kideen kopurua bederatzira arte igo zen, horren barne direla burua eta idazkaria, guztiak ere udalbatzako kideak.

2012ko maiatzean, Batzar Nagusiak Administrazio Kontseiluko burua kargutik kendu zuen – kontseilari delegatu eta kontseilari karguetatik ere kendu zuen– eta gauza bera egin zuen idazkariarekin, eta Administrazio Kontseilu berria izendatu zen, zeinean oposizioko zinegotzi bat buru izanen baitzen. 2013ko martxoan, Andacelayko buru berriak Udaleko alkate postua hartu zuen, aurrekoak dimisioa eman ondoren.

Bestalde, estatutuetako 27. artikulua araber, Udaleko kontu-hartzaitzari dagozkio *"barne kontroleko eginkizunak, sozietatearen kudeaketa ekonomikoari dagozkionak, hiru ikuspuntutatik: kontu-hartzaitzako kontrola, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren gaineko kontrola"*.

Bere xede sozialak betetze aldera, Andacelay S.L.k Eguesibarko Udalak doan lagatako lur-zati batzuk jaso zituen, etxebizitza babestuek eraiki eta sustatzeko. Zehazki, honakoak dira jasotako lur-zatiak:

- 2005ean, Sarrigurengo 3B-4 lur-zatia.
- 2006an, Sarrigurengo 3A-9 (a, b eta c) lur-zatia.
- 2008an, Erripagañako udalez gairidiko plan sektorialeko berrantolatze-proiektutik heldu diren A-1.1, A-1.2 lur-zatiak eta A-1.3 lur-zatiaren jabekidetasunaren ehuneko 55,72<sup>4</sup>.

Lur-zati horiek, zeinak heldu baitira Udalak Sarrigurengo eta Erripagañako udalez gairidiko plan sektorialak exekutatzearen ondoriozko hirigintza-aprobetxamenduetatik, hasieran 9,49 milioi euroan baloratu ziren. Aurrerago, bi sozietate mistoei besterendu zitzaizkien 12,09 milioi euroko prezioan.

Etxebizitzak sustatzeko jarduera horretaz gainera, Andacelay, S.L. sozietatearen Administrazio Kontseiluak –ez dauka baliabide berekirik– ondoko obrak esleitzeko prozedura onetsi zuen: "Sarrigurengo udal bulegoen eraikina" (2008ko urriaren 29an), "Sarrigurengo kirol hirian jolas- eta olgeta-igerilekuak eraikitzea" (2009ko azaroaren 26an); halaber, 2010eko azaroaren 23an onetsi zuen Sarrigurengo udal bulegoen eraikinerako ekipamenduaren hornidura kontratatze prozedura irekitzea. Prozedura horiek, laburbilduz, honako ezaugarriak dauzkate (BEZik gabe):

Espedienteak	Mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Zenbatekoa zenbatekoa
Sarrigurengo udal bulegoen eraikina egiteko kontratazioa (2008)	Obrak	Irekia	5.272.000	5.141.886
Sarrigurengo kirol-hirian jolaserako eta olgetarako igerilekuak eraikitze proiektoa idaztea, obraren zuzendaritza eta obra egitea (2009)	Laguntza eta obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1.500.000	1.395.000
Sarrigurengo udal bulegoen eraikinerako ekipamendua hornitzeko kontratazioa (2010)	Hornidura	Irekia	383.176	327.043

Inbertsio horiek Andacelayk finantzatu zituen, eta hautapen prozesu horien ondotik, ez dago jasota sozietateak obrak edo hornidurak lizitatzeko jarduketa gehiago egin zuenik.

Andacelay sozietatearen Administrazio Kontseiluaren 2011ko apirilaren 18ko aktan ordura arteko instalazioak (udal bulegoen eraikina eta Sarrigurengo jolaserako eta aisiarako igerilekuak) Udalar

<sup>4</sup> Hala eta guztiz ere, Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoa eratze orrietan beraietan, aipatzen da Andacelayk VINSa sozietate publikoari erosiko diola jabekidetasunaren gainerakoa, ehuneko 44,28a, lur-zatiaren jabe bakarra izate aldera. Erosketa hori 2010eko uztailan egin zen, eta 599.564 euroko kostua izan zuen (BEZa barne)

doan uztea erabaki zen, 6,5 eta 1,4 milioi euroko balioarekin, hurrenez hurren. Emakida hori 2011ko maiatzean egin zen bileran onartu zen.

Lagapen hori, zeina kostu-prezioan erregistratu baitzen Andacelay S.L.ren kontabilitatean, beste balio batekin kontabilizatu da Udalaren ibilgetuan. Hartara, honakoak dira lagatako elementuak eta balorazioetan ageri diren aldeak, BEZik gabe:

Kontzeptua	Honakoari lagatzearen balioa: Andacelay, S.L.	Udalan alta ematerakoan emandako balioa	Aldea
Udal eraikina	6.196.861	5.974.588	222.273
Udal eraikinerako altzariak	328.042	385.852	(57.810)
Jostetarako eta aisiarako igerilekuak	1.465.449	1.402.109	63.340
<b>Guztira</b>	<b>7.990.352</b>	<b>7.762.549</b>	<b>227.803</b>

Udal eraikinaren kasuan, Udalak inbentarioan alta eman die obraren esleipen-balioaren arabera, haien egiazko kostuaren balioaren arabera jaso beharrean. Igerilekuetan, lagapenaren balioak, obra egitearen kostuaz gainera, EIOZa eta irekitzeko lizentziak jasotzen zituen. Sozietate publikoak ordaindu zituen horiek; Udalak elementu horri alta eman dio soilik obraren exekuzioaren kostuari dagokion lagapen-balioan finkatuta.

Andacelay, S.L.ren urteko kontuak 2005etik 2011ra arte auditoria-enpresa batek auditatu ditu. Enpresa hori aldatu zen 2012ko urteko kontuen auditoria egiteko. Txosten horiek aldeko iritzia dute, salbu eta 2010eko eta 2012ko ekitaldietan, zeinetan honako salbuespenak jaso baitira:

- 2010eko urteko kontuak. Salbuespena heldu da administrazio kontseiluko kideek taldeaz kanpokoak izan baina antzeko xede soziala nahiz xede sozial berdina duten beste sozietate batzuetan bete ditzaketen karguei buruz memorian informaziorik ez izatetik.

- 2012ko urteko kontuak. Salbuespena heldu da 2010. eta 2011. ekitaldietan lokal baten errentamenduari dagokion 120.000 euroko kopurua gastuetan sartzetik; izan ere gastu hori Udalarri dagokio, ez sozietateari.

2013ko abenduaren 31n<sup>5</sup>, sozietatearen ondare garbia 3,93 milioi eurokoa da; 2013ko ekitaldiko emaitza 0,59 milioi eurokoa da –positiboa, beraz–; 2,74 milioiko eskudirua dauka eta 0,47 milioi egiten duten aldi baterako finantza-inbertsioak dauzka. Ez du epe luzeko zorrik, eta epe laburrekoak 7.901 eurokoak dira.

<sup>5</sup> Adierazi den bezala, 2013ko kontabilitate-informazioa aurrerapen bat da, sozietateen gaineko zerga dela-eta kalkulu bat eginda

Finantza-egoeren bilakaeratik (2005etik 2013ra), honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Likidezia-bolumen handia, zeina bai epe laburreko finantza-inbertsioetan<sup>6</sup>, bai eskudiruetan islatzen baita, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013ko aurrerapena
Inb. Epe laburreko finantza-inbertsioak			2.516.000	9.032.391		3.858.000	1.111.150	1.033.983	474.000
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.099.900	2.107.392	5.757.543 <sup>7</sup>	283.141	8.586.853	2.405.657	2.307.116	2.356.659	2.737.612
<b>Guztira</b>	<b>2.099.900</b>	<b>2.107.392</b>	<b>8.273.543</b>	<b>9.315.532</b>	<b>8.586.853</b>	<b>6.263.657</b>	<b>3.418.266</b>	<b>3.390.642</b>	<b>3.211.612</b>

- Sortu zenetik lortu diren kontabilitate-emaizak –ia 13,4 milioi egiten dute– honakoak izan dira:

Emaizak	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013ko aurrerapena
Emaizak	2.241.781	37.329	6.284.730	1.071.578	337.575	3.438.517	-5.350	-20.034	590.239

Emaizta positiboen amaierako erabilera, 2012ra arte, honakoa izan da, funtsean:

- Udalari dibidenduak banatu zaizkio, 2009an –0,26 milioi– eta 2010ean –0,12 milioi–.
- Udalari obrak eta altzariak lagatzea, erreserben kargura: 9,23 milioi (BEZa barne).
- Erreserbak, zeinak 3,37 milioikoak baitira 2013ko abenduaren 31n.

2013ko uztailean, Akziodunen Batzar Nagusiak erabaki zuen dibidenduak –226.000 euro– banatzea borondatezko erreserben kargura.

<sup>6</sup> 2011ko eta 2012ko ekitaldietan ondare-masa horretan erregistratuta daude lehentasunezko partaidetzetan egindako inbertsioa.

<sup>7</sup> Horren barnean dago, oker sailkaturik, epe luzeko gordailuen multzo bat, 2.016.000 euro egiten duena.

### III.2. "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, S.A." SOZIEKATE PUBLIKO MISTOA

Udalak, 2015eko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Andacelay, S.L.ren eta hautapen prozesuaren ondoriozko esleipen-hartzailearen arteko sozietate anonimo misto bat eratzeke baldintza administratiboen orriak onetsi zituen. Prozesu hori aipatutako sozietate publiko horretatik kudeatu zen, eta egunkari batean argitaratu zen.

Orri horietan esaten da deialdiaren xedea dela Sarrigurengo 3B-4 lur-zatian aurreikusitako 48 PTEren hirigintza-jarduketan eta higiezin-sustapenaren kudeaketa osoa egiteke sozietate mistoko partaidea izanen den bazkide bat hautatzea;<sup>8</sup> hau da, aipatutako sustapenaren fase guztiak sartzen dira, lurzoruaeren kostutik hasi eta proiektua idatzi eta etxebizitza horiek eraiki, sustatu eta saldu bitarte.

Gainera, ezartzen da etorkizunean beste hirigintza-eremu batzuetara ere zabaldu ahalko direla jarduketak. Horri dagokionez, Kontratazio Batzarrak, 2009ko abenduko txostenean, ondorioztatzen du enpresa misto hori eratzeke lizitazioan "egiazki adierazi beharra zegoela hartzen zen zerbitzu publikoaren espazioa eta eginkizunak", eta aipatzen du lege-eragozpenik ez dagoela zabalpen horietarako, orriek haien oinarritako baldintzak arautzen dituzten bitartean.

Honako kontzeptuak baloratuko dira lehiaketan:

a) Higiezinaren arloko negozioaren proposamena edo jarduketa-planteamendu orokorra epeei, koherentziari, bideragarritasun ekonomikoari eta sustapenaren azterlan ekonomiko-finantzarioari eta merkataritzarako prozedurari dagokienez, 40 puntu bitarte.

b) Arkitektura-proposamena, 40 puntu arte.

c) Artekaritzari edo kudeaketari buruzko eskaintza (salmenta-prezioaren ehuneko 4tik 7ra), 10 puntu bitarte.

d) Alderdi estrategikoak eta hobekuntzak, 10 puntu bitarte.

Eskaintzetan, lizitatuzaileek beren gain hartu beharko dute Andacelayri aipatutako lur-zatia dela-eta ordaindu beharreko kostua, eta sustapenetik espero daitezkeen etekinen kalkulu bat aurkeztu beharko dute; kontzeptu horiek aipatutako azterlan ekonomiko-finantzarioaren barruan sartzen dira.

Aipatutako orrietan, ez da aipatzen aurkeztutako eskaintzak baloratu behar dituen organoaren osaera; honakoa aipatzen da soilik: "Deialdia egin duen sozietateak izendatutako langile kualifikatuak osatutako mahai batek irekiko ditu eskaintzak. Egintza horren emaitzari buruzko akta eginen da". Aztertutako informazioaren arabera, organo hori Andacelayren Administrazio Kontseilua izan zen, Udaleko hirigintza-teknikarien aholkuarekin –arkitektura-proposamenari dagokionez–.

Lehiaketara hiru eraikuntza-enpresa aurkeztu ziren, baina horietako batek bi aukera aurkeztu zituen.

Andacelay S.L. sozietatearen administrazio kontseiluak, 2005eko uztailaren 1ean eginiko bileran, erabaki zuen "sozietate anonimo misto bat eratzea, horretarako eginiko lehiaketan esleipen-hartzaile suertatu zen eraikuntza-enpresarekin –NASIPA, S.L.–". 2005eko uztailaren 5ean eratu zen Gestión y Promoción Egüés 21, S.A., 300.000 euroko kapital sozialarekin; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, S.L.k harpidetu zuen eta ehuneko 49 NASIPA, S.L.k.

Sozietatearen helburuak higiezin mota oro erosi eta eraikitzea, higiezinaren sustapena, urbanizazioa, kudeaketa eta merkaturatzea dira, eta orobat horiekin lotutako eta horien osagarri den beste edozein jarduera ere.

---

<sup>8</sup> Hasiera batean kalkulaturako etxebizitza kopurua.

Helbide soziala udaletxean bertan du; ez du langilerik, ez eta kudeaketarako baliabide berekirik ere; hori dela eta, kudeaketa integrala, eraketa-prozesuaren arabera, bazkide pribatu bati enkargatzen dio, higiezin salmenta-prezioaren gaineko ehuneko lauko komisio baten truke.

Haren organo sozialak Batzar Nagusia (bi bazkideen ordezkariak eratua) eta Administrazio Kontseilua dira.

Administrazio Kontseilua bost kontseilarik osatzen dute, lehendakari eta idazkari karguak barne. Kontseilari horietatik, hiru Andacelayk izendatzen ditu –alkatea, Andacelay, S.L.rako zinegotzi ahalduna eta zinegotzi bat– eta bi NASIPAK izendatzen ditu. Halaber, NASIPAK ahalduna ez den kontseilari bat izendatzen du.

2012ra arte, enpresa misto horrek bi zinegotzi delegatu dauzka izendatuak, bat bazkide bakoitzeko.

Hasierako udal ordezkari horiek karguan gelditzen dira ia 2012ko irailean beste hiru zinegotzik ordeztzen dituzten arte, Akziodunen Batzar Nagusiak onetsitako akordioaren arabera. Garai horretan, aurreko ahaldunak bazkide pribatuak izendatutako kontseilarietako bat ordeztzen du, eta 2013ko apiriletik sozietatearen likidatzaile bakar gisa ageri da.

Estatutuetan ez da ageri inongo aipamenik udal kontu-hartzaitzak jarduera dela-eta daukan eginkizunari buruz.

Sozietate honek, bere xedea betetzeko, Andacelay, S.L.ri honako lur-zatiak erosi zizkion:

- 2005ean, arestian aipatutako Sarrigurengo 3B-4 lur-zatia, 2,25 milioi euroren truke. Lur-zati hori sozietate mistoa bera eratzeko deialdiaren barruan zegoen.
- 2007an, Sarrigurengo 3A-9 (a, b eta c) lur-zatia erosi zuen, 5,79 milioi euroko prezioan. Lur-zati hori Andacelayk zuzenean besterendu zion sozietate misto horri, urte berean.

Proiektuen erredakzioari eta obra-zuzendaritzari buruz, eta aipatutako etxebizitzien exekuzioari buruz, honakoak aipatu behar ditugu:

- Lehenengo lur-zatian (3B-4):

Bai proiektua, bai eraikuntza lanak bazkide pribatuak sozietate mistoaren eraketa-prozesurako aurkeztutako negozioko planteamendu orokorraren barruan sartuta zeuden, eta 0,36 eta 6,63 milioi euro egiten zuten, hurrenez hurren.

1. sustapen horrek 66 PTE zeuzkan, eta haiekin lotutako 112 garaje-plaza eta 66 trasteleku, gehi lotu gabeko beste 10 trasteleku.

- Bigarren lur-zatian (3A-9):

a) Proiektua, hiru eskaintza aurkeztu ondoren, 0,89 milioi euroan esleitu zen.

b) Etxebizitzak eraikitze obretarako, gonbita egin zitzairen hiru eraikuntza-enpresari; horien artean zegoen azkenean obren esleipen-hartzaile suertatu zen bazkide pribatua: obrak 17,54 milioi euroan hartu zituen, lizitazio-kopuruaren gaineko ehuneko 4,5eko bajarekin.

2. sustapen horrek 48 BOE zeuzkan, eta haiekin lotuta 48 garaje-plaza eta 48 trasteleku eta lotu gabeko beste 48 garaje-plaza eta 10 etxabe; bai eta 114 PTE, eta haiekin lotutako 196 garaje-plaza eta 114 trasteleku, gehi lotu gabeko beste 3 trasteleku.

Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietatearen urteko kontuak, 2005etik 2012ra bitarteko ekitaldiei dagokienez, enpresa eta bazkide berak auditatu dituzte. Aldeko iritzia ematen dute, salbu eta 2008tik 2011ra bitarteko ekitaldiei dagokienez, non salbuespen bat ageri baita, administrazio kontseiluko kideek taldeaz kanpokoak izan baina antzeko xede soziala nahiz xede sozial berdina duten beste sozietate batzuetan bete ditzaketen karguei buruz memorian informaziorik ez izatetik heldu dena. Halaber, nabarmendu behar dugu 2012ko urteko kontuak likidazioan dagoen enpresaren printzipioaren arabera formulatu direla.

Finantza-egoeren 2005etik 2012ra bitarteko bilakaerari buruzko azterketatik honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- 2012ko abenduaren 31n, 1,07 milioi euroko ondare garbia dauka, epe laburreko 0,11 milioiko zorpetzea, salmentarako mantendutako 0,97 milioiko aktibo ez-korronteak eta 0,21 milioiko zenbateko bat, eskudirutan.

- Sortu zenetik lortu diren kontabilitate-emaitzak -1,13 milioi euro, guztira- honakoak izan dira:

<b>Emaitzak</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b> <b>(likidatzen ari da)</b>
Emaitzak	0	0	407.505	35.588	590.476	73.492	-36.379	63.445

Soilik jasota dago 2007ko dibidendu-banaketa: 187.045 euro Andacelayri eta 179.710 euro NASIPari.

2013ko apirilaren 24an, sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiak erabaki zuen hasiera ematea sozietatea desegiteko eta likidatzeko prozedurari, sozietate-hartzekoaren kuantifikazioari eta ondasunen banaketarako proposamenari. Desegiteari buruzko eskrituraren arabera, enpresaren sozietate-hartzekoa 1.045.986 eurokoa zen data horretan.

Likidazioaren datan, honako elementuak gelditzen ziren saltzeko, likidazio printzipioaren arabera baloratuta:

sustapena: guztira, zazpi trasteleku, bakoitza 6.000 euroan baloratua; hau da, guztira 42.000 euroko likidazio-zenbatekoa.

2. sustapena: etxebizitza bat (harekin lotutako garajearekin eta trastelekuarekin), 42 garaje-plaza, trasteleku bat eta 10 etxabe, guztira 895.915 euroko likidazio-balioa dutenak.

Desegite hori baino lehen, sozietateak Andacelayri saldu zion beste enpresa mistoan daukan akzioa, 510 euroko prezioan.

2013ko irailaren 24an, sozietatea ofizialki azkendu zen.

### III.3. "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II, S.L." SOZIETATE PUBLIKO MISTOA

Aztertutako informazioaren arabera, Udalaren asmoa zen bere udal barrutan etorkizunean eginen ziren hirigintza-garapenak Egüés 21, S.A. sozietate mistoak egitea –horrelaxe jasota zegoen berariaz haren estatutuetan–, Andacelayk hari lur-zatiak zuzenean esleituta. Alabaina, 2009ko otsailean Kontuen Ganbera honek txosten bat egin zuen Udalaren 2006ko kontuei buruz. Txosten horretako geroko egitateen atalean aipatzen zen, besteak beste, Andacelayren lur-zatien besterentzea eta eraikuntza-obren esleipena lizitazio publiko bidez egin behar zirela. Horren ondorioz, Udalak, garapen berriei begira, erabaki zuen beste sozietate misto bat sortzea.

Hartara, 2009ko azaroan, Andacelayren Administrazio Kontseiluak erabaki zuen lehiaketa publiko baterako deia egitea, Erripagañako A.1.1., A.1.2. eta A.1.3. lur-zatien<sup>9</sup>. sustapenerako eta garapenerako beste sozietate misto bat eratzeko, eta kontratazio mahaiaren osaketarako behar ziren baldintza-orriak onetsi zituen.

Baldintza-orri horiek 2009ko abenduan argitaratu ziren Kontratazio Atarian. Bertan aipatzen zen prozedura irekia erabiliko zela, European publizitatea eginda. Deialdiaren xedea hirukoitza da:

Lehena. Aipatutako lur-zatietan eraiki beharrek etxebizitzaren garapena eta sustapena.

Bigarrena Sustatu beharreko eraikuntza-obra-erako proiektuaren erredakzioa eta obra-zuzendaritza.

Hirugarrena. Andacelay, S.L.k sozietate berriari Erripagañako aipatutako lur-zatiak besterentzea.

Aurreko enpresa mistoaren eraketan ez bezala, hautapen-prozedura honetan berariaz kanpo uzten da etxebizitzak eraikitzeke obren exekuzioa; izan ere, etxebizitza horiek "eginen dira aurrez kontrataziorako legezko prozeduraren araberrako hautapenaren bitartez".

Aplikaturako balorazio-irizpideek honakoak aipatzen dituzte:

- Eraikuntzaren planteamendu orokorra (etxebizitza kopurua, garaje kopurua, etxebizitzaren m<sup>2</sup>, arkitektura-kalitatea...), 35 puntu bitarte.
- Kudeaketa-plangintzaren programazioa, eginkizunak barne direla, 30 puntu bitarte.
- Proposamen ekonomikoa, 35 puntu bitarte. Honela xehakatzen da:
  - a) Proiektuen erredakzioaren eta obra-zuzendaritzaren kostuak, 2,5 puntu bitarte. 507.000 euroko gutxienerako bat ezartzen da
  - b) Kudeaketarengatiko ehunekoak, 12,5 puntu bitarte. Ehuneko 6ko gehieneko bat eta ehuneko 2ko gutxienerako bat ezartzen dira.
  - c) Lur-zatien prezioa, 10 puntu bitarte. 3.116.000 euroko gutxienerako prezioa ezartzen da
  - d) Sozietate mistoa finantzatzeko proposamena, 10 puntu bitarte.

Kontratazio-mahaia Andacelayko Administrazio Kontseiluaren lehendakariak eta hiru kidek osatu zuten, bi udal arkitektoen aholkua zutela, eraikuntzaren planteamendu orokorra baloratzeko, eta Andacelayren auditoria-enpresaren laguntza zutela, finantzaketa-proposamenaren irizpidea baloratzeko.

Hautapen prozesu horren dataren egokitasunari dagokionez, zehaztu beharra dago 2009ko ekainean Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak hartzeko 6/2009 Foru Legea argitaratu zela, non, besteak beste, hirigintza-garapenen eraikigarritasuna handitzea aurreikusten baita. Foru lege horren babesean, 2009ko irailaren lauan, Erripagañako udalez gairdiko plan sektorialeko I. Banaketa Arloko Konpentsazio Batzarrak –arlo horretan daude A.1 lur-zatiak –

<sup>9</sup> 2010erako lur-zati hori jada ehuneko ehun Andacelayren jabetzakoa da (ikus 4. oharra).



onetsi zuen Nafarroako Gobernuari aurkeztea aipatutako udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketa. Nafarroako Gobernuaren 2009ko azaroaren 9ko erabakiaz, aipatutako aldaketa-espeditente horren izapidetzea hasi zen. 2010eko maiatzaren 17an eman zitzaion behin betiko onespena (2010eko ekainaren 4ko NAO).

Azken batean, hautapen-prozesua hasi zenean –2009ko azaroaren 26a– jada ezagutzen zen Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialeko eraikigarritasuna aldatu behar zela, bai eta hark A.1 lur-zatietan izanen zuen eraginaren aurreikuspena ere. Hori dela eta, zail gertatzen da ulertzea aipatutako orrietan ez jasotzea edo ez aipatzea inguruabar hori.

Hautapen-prozesura, sei eskaintza aurkeztu ziren, eta puntuazio handiena lortu baitzuen, NASIPA sozietateari esleitu zitzaion, Administrazio Kontseiluaren 2010eko martxoko aktaren arabera.

Halaber, aipatu behar dugu enpresa horrek, bere eskaintzaren arabera, bere gain hartzen duela bai lurzorua erosteko (eragiketaren BEZa barne dela), bai etxebizitzaren eraikuntza-obretarako kanpoko finantzaketaren kostua.

2010eko martxoaren 29an, Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietatea eratu zen. 3.100 euroko kapital soziala ezarri zen; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, S.L.k harpidetu zuen, ehuneko 48,97 bazkide pribatuak (NASIPA, S.L.) eta ehuneko 0,03 Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietateak.

Sozietatearen helburu soziala edozein eratako higiezinaren sustapena egitea eta eraikitzea da, baina Eguesibarko udalerrian, Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren esparruan (A.1.1, A.1.2 eta A.1.3 lur-zatietan) etxebizitzak bultzatzea, sustatzea eta eraikitzea batez ere.

Helbide soziala udaletxean bertan du; ez du langilerik, ez eta kudeaketarako baliabide berekirik ere; hori dela eta, kudeaketa integrala, eraketa-prozesuaren arabera, bazkide pribatu bati enkargatzen dio, higiezinaren salmenta-prezioaren gaineko ehuneko biko aipatutako komisioaren truke.

Haren organo sozialak Batzar Nagusia (bi bazkideen ordezkariak eratua) eta Administrazio Kontseilua dira.

Administrazio Kontseilua bost kontseilarik osatzen dute, lehendakari eta idazkari karguak barne. Kontseilari horietatik, hiru Andacelayk izendatzen ditu –alkatea<sup>10</sup>, Andacelay, S.L.rako zinegotzi ahalduna eta zinegotzi bat– eta bi NASIPAK<sup>11</sup> izendatzen ditu. Halaber, bi kontseilari delegatu izendatzen dira, bazkide bakoitza ordezteko bana.

Hasierako udal ordezkari horiek kargu horietan gelditzen dira ia 2012ko irailean beste hiru zinegotzik ordezten dituzten arte, Akziodunen Batzar Nagusiak onetsitako akordioaren arabera.

Estatutuetan ez da ageri inongo aipamenik udal kontu-hartzaitzak jarduera dela-eta bete beharreko eginkizunari buruz.

Etxebizitzaren eraikuntza-obren kontratazioari dagokionez, aipatu behar dugu horiek Andacelay sozietateak egindako orrietan arautzen direla. Prozedura irekia erabiltzen da, European publikitatearen eginda, eta lizitazioaren zenbatekoa 13,98 milioikoa da (BEZik gabe).

Prozedura horretarako hiru eskaintza agertu ziren –bazkide pribatuarena, besteren artean–; horietatik bat, ordea, baztertuta geratu zen baldintza-orrian eskatzen zen kaudimen ekonomikoaren ratioa betetzen ez zuelako.

Erabaki zen NASIPARI esleitzea 138 BOE-en eraikuntza, 11,88 milioiko zenbatekoan, BEZik gabe, ehuneko 15eko bajarekin. Obra horiek 2012ko uztailean amaitu ziren.

---

<sup>10</sup> Bai alkatea, bai Andacelayko zinegotzi ahalduna Egüés 21, S.A. sozietate mistoko Administrazio Kontseiluko kideak dira.

<sup>11</sup> Horien artean, NASIPAK Egüés 21, S.A. sozietate mistorako izendatutako ahalduna dago.

Sustapenak 138 PTE dauzka, eta haiekin lotutako 138 garaje-plaza eta 138 trasteleku, gehi lotu gabeko beste 22 garaje-plaza eta hiru etxabe.

Txosten hau idazteko garaian, oraindik ere saltzeko daude 28 etxebizitza (garajea eta lotutako trastelekua barne), 16 garaje-plaza eta hiru etxabe.

Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietatearen 2010eko eta 2011ko ekitaldietako urteko kontuak beste sozietate mistoaren auditoria egiten duen enpresa berak auditatu ditu.

2012ko urteko kontuei dagokienez, txosten hau idazteko garaian, haien zirriborro bat badagoen arren, oraindik ere sozietate-organoek onetsi gabe daude eta, logikoa denez, auditatu gabe daude; egoera horren arrazoa da sozietatearen egungo arduradunak aztertzen ari direla haiek birformulatzea, NASIPAK sortuak dituen zorrak, hartzekodunen konkurtsoa deklaraterakoan agerian jarri direnak, sartze aldera; aurreko inguruabar horiek eragina dute, halaber, 2013ko urteko kontuen taxueran.

Hala eta guztiz ere, 2013ko uztailaren 31ko balantze bat eta emaitzen kontu bat badauzkagu, NASIPAREN konkurtsoaren administratzailearen txostenaren arabera, aurrez eta berariaz konkurtso-prozesu horretarako taxutuak. Finantza-egoeren bilakaeratik honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- 2013ko uztailaren 31n, 1,29 milioi euroko ondare garbia dauka, epe luzeko 5,51 milioiko zorpetzea eta 0,58 milioiko zenbateko bat eskudirutan.

- Izakinen bilakaera ondoko taulan ageri da:

Izakinak	2010	2011	2012ko zirriborroa	2013ko uztailaren 31
Izakinak	5.712.196	11.669.261	6.052.671	6.037.028

- Sortu zenetik lortu diren kontabilitate-emaitzak honakoak izan dira:

Emaitzak	2010	2011	2012ko zirriborroa	2013ko uztailaren 31
Zergak ordaindu aurreko emaitzak	0	-410.404	2.235.679	276.552
Emaitzak	0	-410.404	1.688.697	276.552

2012ko emaitzari dagokionez, hura banatzeko proposamen bat badago, Administrazio Kontseiluak 2013ko apirilean honako terminoetan onetsia: aurreko urteetako emaitza negatiboak kitatu, 1,02 milioiko erreserbak hornitu eta 0,27 milioiko dibidenduak banatu -138.262 euro Andacelayri eta 132.840 euro NASIPARI<sup>12</sup>–.

- Uztailaren 31ko finantzen egoera-orrien aurrerapen horrek ez du biltzen sozietate mistoaren aldeko zorra, NASIPAREN hartzekodunen konkurtsoaren ondorioz azaleratu dena. Ondoren aztertuko da hori.

<sup>12</sup> Kopuru horrekin NASIPA enpresak sozietate mistoarekin dauzkan zorrak berdintzen dira.

### **NASIParen hartzekodunen konkurtsoa**

2013ko ekainean, Iruñeko Merkataritza-arloko 2. Epaitegiak NASIParen borondatezko konkurtso arrunta deklaratu zuen, konkurtso-administrazioa izendatu zen eta deialdi bat egin zitzaien entitateko hartzekodun guztiei deklarazio hori EAOn argitara eman (2013ko uztailaren 22an argitaratu zen EAOn) eta hilabeteko epean konkurtso-administrazio horri jakinaraz diezaioten entitatearen aurkako krediturik badagoen eta zenbatekoak diren.

2013ko azaroaren 26an, konkurtso-administrazioak Merkataritza-arloko Epaitegi horretan Konkurtso Legeko 75. artikuluan aurreikusitako txostena aurkeztu zuen, ondasun eta eskubideen inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda barne. 2013ko abenduaren 26an, EAOn behar zen iragarkia argitaratu zen, eta 10 eguneko epea eman zen agiri horien kontrako aurkapekak aurkezteko.

Agiri horien arabera, zorrak ordaintzeko aukera inbentarioan jasotako ondasun eta eskubideak gauzatzetik lortzen den balioaren arabera izanen da, zeren eta ez baita aurreikusten ondarea itzulketa-akzioen bidez edo hirugarrenen erantzukizunaren bidez handi dezaketen akzioak existitzea.

NASIParen ondasunen eta eskubideen inbentarioaren balioa, merkatuko prezioen arabera baloratutakoa, 53,93 milioikoa da; konkurtso-kredituak, berriz, 83,44 milioikoa dira. Soilik pribilegio berezi gisa kalifikatutako kredituak hartuta<sup>13</sup>, 60,97 milioi egiten dute, eta jada ondasun eta eskubideen balioa gainditzen dute. Gainerako kredituak honela kalifikatuta daude: pribilegio orokorrekoak<sup>14</sup> -2,06 milioi-, arruntak -16,91 milioi- eta menpekoak<sup>15</sup> -3,62 milioi-. NASIParekin lotutako sozietateen kredituak menpekotzat kalifikatzen dira; horrenbestez, kobratzen azkenak izanen lirateke. Saikape horren barruan sartzen dira Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.k erreklamaturako zorrak<sup>16</sup>; hain zuzen ere, NASIPak haietan parte hartzen du, ehuneko 49an.

Hartzekodunen zerrendaren arabera, Egüés 21-II sozietate mistoak<sup>17</sup> konkurtso-administrazioari jakinarazi zizkion 2,26 milioi euro egiten duten zorrak; kopuru horretatik, aipaturako administrazioak guztira 1,26 milioi aitortu zituen -funtsean, NASIPAK, egin zuen eskaintzaren arabera, bere gain hartu beharko zituen maileguen finantza-gastuei dagokie-, eta menpeko zortzat kalifikatu ziren. Erreklamaturako zor ia guztia ez zen une haietan kontabilitatean ageri.

Bere aldetik, Eguesibarko Udalak konkurtso-administrazioari NASIParen zor bat komunikatu zion, 275 eurokoa. Haren jatorria 2013ko kontribuzioa zen -82 euro- eta urte bereko JEZa -193 euro-. Aipaturako administrazioak asmo hori onartu eta kreditua pribilegio orokorrekotzat kalifikatu zuen.

---

<sup>13</sup> Ondasun edo eskubide jakin batzuetan eragiten duten -esate baterako, hipoteka bidez, balioekin edo bahiekin bermatutakoak-.

<sup>14</sup> Zordunaren ondare guztian eragiten dute; esate baterako, lansariak -pribilegio bereziaren aitortpena ez dutenak-, tributu-atxikipenak eta Gizarte Segurantzakoak eta abar.

<sup>15</sup> Berandu komunikaturako kredituak, interesenak, zordunarekin lotutako titularrenak eta abar.

<sup>16</sup> Ez dago jasota ez Andacelayk, ez beste sozietate mistoak zorrik erreklamatu izana.

<sup>17</sup> Horretarako erabakigarriak izan dira Ikerketa Batzordearen ondorioak eta dokumentazioa.

#### IV. ONDORIOAK

Parlamentu-eskariarekin bat, ondoren erakusten ditugu egindako lanaren ondorioak<sup>18</sup>. Aurrez azaldu den bezala, atal honetan lantzen diren kontu batzuk erabaki judizialaren zain daude.

##### IV.1. EGUESIBARKO UDALA

###### **Lehena. Udalak tokiko sozietate publikoak sortzea**

Eguesibarko Udalak tokiko sozietate publikoaren figuraz baliatu da honako esparru hauetan bere eskumenak betetzeko:

- Andacelay, S.L. sozietate publikoa, zeina Udalarena baita guztiz. Sozietate horrek lurzoruaren udal ondarearen lur-zati batzuk jaso zituen dohainik, Udalak lagata, eta haren jarduera zentratu da etxebizitza babestuak eraiki eta sustatzean, sozietate mistoak eratzearen bitartez, eta udal ekipamenduak eraiki, finantzatu eta gero Udalari lagatzean –zehazki udaletxe berria eta kirol hiriko igerilekuak–.

- Bi sozietate publiko misto, aurrekoaren gehieneko partaidetzarekin eta bazkide pribatu berarekin, Udalak Andacelayri dohainik lagatako lur-zatietan etxebizitza babestuak sustatu era eraikitzeko; gero Andacelayk lur-zati horiek arestian aipatutako sozietate mistoei besterendu zizkien.

Sozietate horiek kudeaketa zuzenaren formularen barruan egituratzen dira –Andacelay– eta zeharkako kudeaketaren formularen barruan –sozietate mistoak–. Izan ere, formula horiek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legean aurreikusita daude tokiko zerbitzu publikoak emateko.

Lehenengoari dagokionez, Kontuen Ganberaren aurreko txosten batzuetan jada ondorioztatzen zen 4.000 euroko kapitala duen eta langilerik eta kudeaketarako bere baliabide berezirik ez duen sozietate publiko batek, kanpoko kontratazioaren bitartez, munta handiko inbertsioak egin dituela Udalarentzat, zortzi milioi euro inguruak hain zuzen ere.

Bestalde, sozietate mistoetan duen partaidetza nagusiaren bidez (berezko langilerik gabe eta, eratze-prozesuaren arabera, bazkide pribatuak berak kudeaturik), guztira babestutako 366 etxebizitza eraiki ditu, 62 milioi euro inguru egiten duen gastu batekin.

###### **Bigarrena. Etxebizitza babestuak eraikitzea eta sozietate mistoak**

Eguesibarko Udalak, Nafarroako gainerako toki entitateek bezala, honako aukerak zeuzkan, eskema moduan adierazita, lurzoruaren udal ondareko lur-zatietan etxebizitza babestuak eraiki eta sustatzeko:

- Baliabide berekiekin egitea, neurri batean edo bestean kanpoko kontratazioak erabiliz. Kasu horretan, jarduketak sortutako plusbalioak irauin egingen luke, ia guztiz, Udalaren beraren barruan. Formula horrek, ordea, arazo bat badauka: langileen eta Udalaren gainerako baliabideen egokitasun teknikoa jarduera berezi horretarako, zeina administrazio-jarduketaz guztiz bestekoa baita.

- Lurzoruaren salmena publikora jotzea, lege ezarritako prozeduren bitartez, eta erosleak etxebizitza babestuak eraiki eta sustatzeko lanak garatzea. Formula horren bidez, Udalak ez du eginkizun horietan esku hartzen, eta sortzen den plusbalioa eraikitzailearen eta sustatzailearen eskura aldatzen da.

---

<sup>18</sup> Ondorio horiek biltzen dituzten diru-zenbatekoak dagokien BEZaren eragina kontuan hartu gabe ageri dira, kontrakoa berariaz adierazten ez denean.

- Sozietate mistoak eratzea, eta haietan bazkide pribatuak egotea; horrekin, alde batetik, bazkide pribatu horren kudeaketarako gaitasunaz eta ezagutzaz baliatzen da eta, bestetik, kapital sozialaren eta lortutako emaitzen arabera, sortzen diren plusbalioak partekatzen dira.

Udalak formula bat edo bestea hautatzea –guztiak ere legezkoak eta legitimoak baitira– heldu da Udalak bere burua antolatzeko daukan gaitasunetik eta bere autonomiatik beretik; hautaketa egiterakoan, lehentasuna eman behar zaie beti interes publikoaren, legezketasunaren, kontrolaren eta gardentasunaren printzipioei, kudeaketa publikoaren buruan egon behar baitute .

Udalaren instantziek egin behar duten kontrola hautatutako formularen arabera egokitu eta doitu behar dira; hartara, lehenengo aukeraren barruan, kontrola edozein tokiko zerbitzu publikok berezko duena da; bigarrenaren kasuan, berriz, kontrola mugatuko da jarduketa bakoitzean aplikatzekoa den hirigintza-legezketasunaren betetzea egiaztatzerako; azkenik, sozietate mistoen kasuan, eta eraikuntzaren esparruan espezializatuta agoen bazkide pribatu bat badagoenez, haren jardueraren gaineko kontrol-tresnak areagotu beharko dira, eta kudeaketa publikoan exijitzekoak diren oinarriko printzipioak betetzen direla bermatu beharko da.

Horri buruz, Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak, 2009ko txostenean, ondorioztatzen zuen etxebizitzaren sustapenerako sozietate mistoa “**entitate esleipen-egilea** dela, Nafarroako Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 2. artikuluan aipatzen direnetakoa, eta, horrenbestez, bere obra-, hornidura eta laguntza-kontratuak foru lege horretako II. liburuan adierazitakoaren arabera esleitu behar dituela”.

Azkenik, egoera bere testuinguruan egoki jartze aldera, ez da ahaztu behar 2006an eta hurrengo urteetan higiezinaren merkatuan egon den egoera, zeinak ezaugarri baitzuen, besteak beste, etxebizitza babestuen eskaria asea ez egotea. Hala eta guztiz ere, gaur egun, krisi ekonomiko orokorra eragin nabarmena izaten ari da eskari horretan.

### **Hirugarrena. Udalak sozietate publikoen jardueren gainean egiten duen kontrola.**

Abiapuntutzat hartzen badugu administrazio publikoen jarduketa guztiek objektiboki interes orokorrak zerbitzatu behar dituztela eta administrazioak sozietate publiko batek ordezkatzeko duen antolamendu-era pribatua hartzeak ez duela indargabetzen betebeharrak edo xede hori, honakoa adierazi behar dugu:

- Udalaren beraren organoek egindako kontrola.

Beren estatutuen eta Nafarroako toki araubideari buruzko araudi orokorraren arabera, sozietatetan ordezkaritza zuten Udaleko organo eta kideek legezko babesa eta eskumen zehatzak zituzten beren tresna izaerako enteen gaineko kontrola egiteko.

Hiru tokiko sozietate publikoetan, sozietate-organoen kide gehienak –zuzenean nahiz zeharka– Udalak berak hautatuak ziren, eta haren kideak ziren; Andacelayren kasuan, kide guztiak ziren halakoak.

Bestalde, aurreko sozietateek ez dute langile berekirik izan –administraziorako nahiz zuzendaritzarako–, eta, horrenbestez, kudeaketari eta exekuzioari buruzko erabakiak organo sozialek hartu dituzte guztiz, bereziki pertsona bakarreko organoek eta administrazio-kontseiluek.

Kontuen Ganbera honek aztertutako dokumentaziotik eta ondoren aipatzen diren lanaren ondorioetatik, eratorritzen da eskumen horiek ez direla egoki bete, ez Andacelayren eragiketa jakin batzuen kasuan, ez, bereziki, sozietate mistoen kasuan. Egoera horrek berarekin ekarri du legezketasunaren printzipioaren ez-betetze garrantzitsuak egotea, zeinetatik erantzukizun juridikoko aztarnak ondoriozta baitaitezke zenbait esparrutan.

- Udalaren barne kontroleko organoek egindako kontrola.

Nafarroako toki entitateei buruzko araudiaren arabera, sozietate publikoek garatutako jarduerak Udalaren barne kontroleko organoei lotuta daude, hiru ikuspuntutatik: legezketasuna, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren gaineko kontrola.

Andacelay sozietatearen kasuan, bere estatutueta berariaz aipatzen da Udalaren kontu-hartzaileari dagozkiola "barne kontroleko eginkizunak, sozietatearen kudeaketa ekonomikoari dagozkionak, hiru ikuspuntutatik: kontu-hartzailetzako kontrola, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren gaineko kontrola"; beste bi sozietateen kasuan ez da halako eginkizunik aipatzen.

Gainera, estatutueta bakarrean ere ez da berariaz aipatzen udal idazkaritzak egin zezakeen legezatasunaren gaineko kontrola; alabaina, Andacelayren kasuan, Administrazio Kontseiluko kide bat Udalaren aholkulari juridikoa zen.

Egindako lanetik ondorioztatzen da sozietateen jarduketak ez zitzaizkiela helarazi barne kontroleko organo horiei, fiskaliza zitzaten eta haiei buruzko aholkua eman zezaten; horrenbestez, organo horiek ez zuten aukerarik izan arlo horietan zeuzkaten eskumenak betetzeko.

- Udalaren hirigintza-arloak egindako kontrol teknikoak.

Jasota dago arloko langileek txosten teknikoak egin zituztela lagatako lur-zatiak baloratzeko, eta aholku-txosten batzuk ere egin zituztela kontratazio-mahaietarako eta Andacelay sozietatean egindako arkitektura-proposamenak baloratzeko. Presentzia hori, ordea, ez da sistematikoa; normalean, sozietate publikoak berak eskatutakoa da.

Laburbilduz, Kontuen Ganberak bere aurreko txostenetan jada adierazten zuen bezala, ez zen zalantzan jartzen sozietate mistoen figura bera, baizik eta Udalak haietan garatutako jarduera zela-eta ezarritako kontrola. Hartara, Udalak ez zuen ez diseinatu, ez aplikatu legezko kudeaketa, kudeaketa gardena eta sozietateek bilatu behar zuten interes publikoaren xedearen arabera kudeaketa bermatzeko kontrol-sistematik.

2012ko maiatzetik aurrera, Andacelayren administrazio kontseilu berriekin, eta urte bereko irailetik, sozietate mistoen administrazio kontseilu berriekin, bai eta Andacelayn kudeatzaile bat izendatzearekin, ikusten da egindako jardueren gaineko kontrol-mekanismoak indartu direla, bereziki sozietate mistoari dagokionez, oraindik ere lanean jarraitzen baitu.

## IV.2. ANDACELAY, S.L.

**Laugarrena. Lur-zatien balorazioa eta sozietate mistoei besterentzea.**

Bere xedeak betetzeko, Udalak lurzoruaren udal ondareko lur-zati batzuk dohainik laga zizkion Andacelay sozietateari. 9,49 milioitan baloratu ziren. Hartara, honakoak jaso ziren:

- 2005ean, Sarrigurengo 3B-4 lur-zatia, 2.252.810 euroko balorazioa zuena.
- 2006an, Sarrigurengo 3A-9 (a, b eta c) lur-zatia, 4.752.742 euroko balioarekin.
- 2008an, Erripagañako udalez gaindiko eragina duen plan sektorialeko berrantolatze-proiektutik heldu diren A-1.1, A-1.2 lur-zatiak eta A-1.3 lur-zatiaren jabekidetasunaren ehuneko 55,72. Haien balorazioak 2.484.612 euro egiten du.

Balorazio horiek egiten dira lurzoruaren prezioak etxebizitzaren salmenta-prezioan duen eragin handienaren irizpidearen arabera; haiek zenbat m<sup>2</sup> dituzten zehaztu beharko da, gero, proiektuetan. Halaber, balorazio horiek egin ziren kasuko tributu-likidazioak betetze aldera.

2010ean, Andacelay sozietateak VINSari A-1.3 lur-zatiaren jabekidetasunaren gainerako ehuneko 44,8a erosi zion, 599.564 euroan.

Gero, lur-zati horiek besterendu zizkien bi sozietate mistoei, eta honako diru-sarrerak lortu zituen, kontabilitate-erregistroen arabera:

Lur-zatiak	Ekitaldia	Enpresa mistoa	Salmentaren zenbatekoa
3B-4 lur-zatia	2005	Egüés 21, S.A.	2.246.260
3A-9 lur-zatia	2007	Egüés 21, S.A.	5.792.243
A-1 lur-zatiak	2010	Egüés 21-II, S.L.	4.055.350
<b>Guztira</b>			<b>12.093.853</b>

Eragiketa horiei buruz, honakoa adierazi behar dugu:

- 3B-4 lur-zatia Hasiera batean, Udaleko zerbitzu teknikoek 2.252.810 euroan baloratu zuten. Zenbateko horrekin, Udalak hura Andacelayri dohainik lagatzeko faktura egin zuen; horixe bera jasota dago azken horren kontabilitatean.

Andacelayren 2005eko maiatzeko administrazio kontseiluak erabaki zuen esleipen-prozesua abian jartzea Egüés 21, S.A. sozietate mistoa eratzeko; hura arautzen duten orrien barruan, ez da berariaz aipatzen lur-zati horren prezioa, zeren eta jotzen baita alderdi hori azterlan ekonomiko-finantzarioaren barruan sartuta dagoela. NASIPak bere proposamenean, 2.252.810 euroko zenbatekoa eskaini zuen, hain zuzen.

Hala eta guztiz ere, Andacelayren 2005eko urriko administrazio kontseiluak erabaki zuen lur-zati hori saldu eta jada eratuta zegoen sozietate mistoari saltzea 2.246.260 euroko prezioan, hau da, 6.550 euro gutxiago; alde hori heldu da, funtsean, zenbat m<sup>2</sup> eraiki behar ziren zehaztetik.

- 3A-9 lur-zatia Udalak 2006ko uztailaren 18an egindako Osoko Bilkurak erabaki zuen lur-zati hori dohainik lagatzeko Andacelayri; halere, dagokion aktan ez da haren zenbatekoa aipatzen. Hala eta guztiz ere, udal arkitektoaren txosten bat badago, uztailaren 5ekoa, non behin-behinekoz jotzen baitu 3A-9 lur-zatiak 4.752.741 euroko balioa duela.

Lagapen hori agiri publiko batean, eskritura bidez, jaso zen, nahiz eta hura 4.725.741 euroan baloratu. Udalak zenbateko horri dagokion faktura egin zuen. Horrenbestez, ikusten da 27.000 euroko balio-gutxipena izan zela, zeina justifika baliteke kopuruak transkribatzerakoan izandako akatsa batengatik.

Andacelayk 2006ko irailean onartu zuen lagapen hori, eta Kontseiluko aktan udal arkitektoaren txostena aipatzen den arren, azken zenbateko horren arabera erregistratzen da kontabilitatean.

2007ko apirilean, Andacelayk lur-zatia Egüés 21, S.A. sozietate mistoari saldu zion, 5.792.243 euroko prezioan. Lagapenaren zenbatekoaren aldean dagoen gehikuntza hori –ia milioi batekoa– justifikatuta dago, udal arkitektoaren txostenaren arabera, eraiki beharreko m2 kopurua zehaztu delako eta moduluen prezioa 2007ko kopuruari egokitu zaiolako. Sozietate mistoan ez dago jasota organo sozialek erosteta onetsi dutenik.

Azken batean, Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren eraketa arautzeko orriek kontratua beste jarduketa-esparru batzuetara zabaltzea aurreikusten bazuten ere, Kontratazio Batzarrak 2009ko txostenean esan zuen orri horiek "oinarrizko baldintza juridiko, ekonomiko eta teknikoak" jaso behar zituztela, gehikuntza horiek arautzekoak. Halako baldintzarik ez da jaso aztertutako orrietan. Kontuen Ganberaren iritziz, horrenbestez, lur-zati horren salmenta eta Andacelayk etxebizitzaren sustapena zuzenean kudeatzearen negozioa ez ziren izan publikitate eta lehia printzipioen arabekoak, zeinak exijitzekoak baitira kontratazio publikoen araudiaren arabera.

- A-1 lur-zatiak. Udalaren 2008ko azaroaren bosteko Osoko Bilkurak erabaki zuen hiru lur-zati horiek Andacelay sozietateari dohainik lagatzea; 2.484.612 euroan baloratuta daude<sup>19</sup>. Sozietate horrek lagapena onartu zuen, bere kontseiluaren urte bereko azaroaren 21eko bilkuraren arabera. Nabarmendu behar dugu ezen, Udalaren aipatutako Osoko Bilkuraren aktaren arabera, zenbateko hori sortu zela "lur-zati horien balorazioa egitearen" ondorio gisa; halere, horri buruzko txosten teknikorik ez da jaso.

2010eko uztailan, Andacelayk VINSARI A.1.3 lur-zatiaren jabekidetasunaren gainerakoa erosi zion, 599.564 euro ordainduta.

Horrenbestez, hiru lur-zati horien amaierako balorazioa, Andacelayren kontabilitatean, 3.084.176 eurokoa da.

2010eko martxoan, Andacelayk erabaki zuen sozietate misto berri bat eratzeko lehiaketa hastea (etorkizuneko Egüés 21-II, S.L. da). Lehiaketaren orrietan sartzen da A.1-eko hiru lur-zatien besterentzea, 3.116.000 euroko gutxieneko balorazioarekin. Lehiaketan, NASIPAK lursail horiek eskaini zituen 3.262.961 euroko prezioan.

2010eko uztailan, Andacelayk Egüés 21-II, S.L.ri lur-zati horien salmenta fakturatu zion, 4.055.350 euroan; hau da, ehuneko 24,28 gehiago. Sozietatearen aktetan ez dago jasota prezio-aldaketa horri buruzko berariazko aipamenik; hala eta guztiz ere, aipatutako sozietate mistoaren aktetan bai ageri da horri buruzko informazioa, zeren eta jada 2010eko apirilaren 19ko bilkuran aipatu baitzen eraikigarritasuna ehuneko 19,6 handitu dela. Hala eta guztiz ere, ez dago dokumentaziorik prezio-igoera hori kuantifikatzen duenik eta eraikigarritasun handiagoarekin lotzen duenik.

Azken batean, aurreko eragiketei dagokienez, Ganbera honek jada bere txostenetan adierazi zuen Andacelayk bigarren lur-zatia zuzenean Egüés 21, S.A.ri esleitzea ez zela izan kontratazio publikoari buruzko araudian aipatzen diren publikitate eta lehia printzipioen araberakoa. Halaber, ikusten dugu lur-zatien balorazioa ez dagoela dokumentuetan eta teknikoki bermatua.

### **Bosgarrena. Andacelayk A.1 lur-zatien finantzaketa aurreratzea**

Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago ezen NASIPAK Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoa eratzeko lehiaketara aurkeztutako eskaintzan, enpresa horrek zuzenean hartzen zituela bere gain lur-zatiak ordaintzeko eta eraikuntza-obra egiteko behar ziren maileguak ituntzetik heldutako finantza-gastuak.

---

<sup>19</sup> Zenbateko horretan sartzen da soilik A.1.3 lur-zatiaren jabekidetasunaren ehuneko 55,72.



Hasiera batean, aurreikusita zegoen Andacelay sozietate mistoak lur-zati horiek ordaintzeko gastua –4,05 milioi euro– osorik egitea aurrezki kutxa batekin banku-mailegu bat itunduz<sup>20</sup>. Alabaina, uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorioz eta Espainiako Bankuak ezarritako kreditu-murrizketak direla-eta, aurrezki kutxek soilik eragiketaren ehuneko 80a ordaintzeko adinako mailegua eman zezaketen.

Gai hori ebazteko, NASIPAREN ekimenez, sozietate mistoaren hiru bazkideei –Andacelay, NASIPA eta Egüés 21, S.A.– proposatu zitzaizen kapitalean zeukaten partaidetzaren arabera, maileguarekin estali gabeko ehuneko 20a –811.070 euro– emateko.

Formula hori Andacelayko kontseiluak onetsi zuen 2010eko uztailaren 21ean egindako bilkuran; bilkura horren aktan, gainera, berariaz honakoa aipatzen da: "NASIPAK egindako proposamenarekin, Andacelayk ez du ezer ere galduko, ez finantza-kostuan, ez eta lor genezakeen etekin handiagoa jasotzean, zeren eta NASIPAK konpromisoa hartu baitu zenbateko hori itzultzeko lur-zatien salerosketan lortutako likideziarekin".

Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoaren egun bereko, 2010eko uztailaren 21eko, Administrazio Kontseiluan, erabaki zen aurreko finantzaketa-proposamena onestea eta 2010eko abenduaren 31n bazkide horiek aurreratutako kopuruak itzultzea, betiere lehentasuna emanez Andacelayri itzultzeari. Halaber, gehitzen da ezen "soilik Andacelayk jarritako kopuruari dagokionez, NASIPAK finantza-kostua hartuko duela bere gain, maileguak irauten duen denboran, Andacelayk, lur-zatien salerosketatik lortutako likideziarekin gehi ehuneko 0,25arekin, kontratatutako funtsaren etekin handiagoaren berdina den kapital-kostuaren arabera.

Honakoak izan ziren bazkideek aurreratutako zenbatekoak:

Bazkideak	Zenbatekoa
Andacelay	413.646
NASIPA	397.181
Egüés 21, S.A.	243
<b>Guztira</b>	<b>811.070</b>

2010eko abenduaren amaieran, Andacelayk aurreratutako kopurua itzuli zen; NASIPARENTZAKO itzulketa, berriz, 2011ko apirilean egin zen.

Erabaki zenaz bestera, ez dago jasota NASIPAK inongo zenbatekorik ordaindu zuenik eragiketa horretatik heldutako finantza-kostuarengatik; eta ez dago jasota, ezta ere, Andacelayko kudeatzaileek zor hori erreklamatu zutenik. Gure kalkuluen arabera, baldin eta Andacelayren finantzaketa-aurrerakinari aplikatzen badiogu sozietate horrek data horretan zeuzkan finantza-gaindikinengatik lortzen zuen tasa handiagoa, azken horrek 4.266 euroko diru-sarrera finantzarioak lortuko zukeen.

Azken batean, uste dugu jarduketa horrek ez duela urratu sozietate mistoa eratzeko hautapen-prozesua, zeren eta lur-zatiak erosteko finantzaketarako eskaintako formularen aldaketa prozesu horretan zehar gertatutako arrazoiei zor baitzaie. Hala eta guztiz ere, uste dugu NASIPAK Andacelayri aurrerapen horrengatik jaso ez zuen finantza-etekina ordaindu behar ziola.

Andacelayk etekin hori ez erreklamatzeari, gure iritziz, baliabide publikoak kaltetzearen ondoriozko kontabilitate-erantzukizuneko balizko kasu bat da.

<sup>20</sup> Horretarako, NASIPAK, sozietate mistoa eratzeko lehiaketara, Nafarroako Aurrezki Kutxaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen; haren arabera, entitate horrek bere gain hartzen zuen mailegu bat emanez lur-zati horien guztizko zenbatekoa finantzatzeko konpromisoa.

### **Seigarrena. Obrak eta hornidurak kontratatzeko espedienteak**

Sozietateak egindako kontratazio-espedienteak, 2008tik 2010era izapidetutakoak, Udalaren eraikin berriaren obrei eta ekipamenduari dagozkio, bai eta kirol hiriko igerilekuak eraikitzeari ere.

Oro har, ondorioztatzen da aipatutako espedienteak araudi indardunaren arabera izapidetu zirela. Hala eta guztiz ere, honakoa adierazi behar dugu:

- Udal berriaren obrak. Kontratuaren aldaketa, haren betetzeak ehuneko 10ean baino gehiago gainditzeagatik –zehazki, ehuneko 10,8– , geroztik izapidetu zen, behin obra amaituta.
- Ez da beti jasota gelditzen espedienteetan araudi indardunak eskatzen duen dokumentazio osoa.

Udaletxe berria eraikitzeari dagokionez, nabarmendu behar dugu, halaber, Nafarroako Gobernuak, 2009tik 2012rako Tokiko Inbertsio Planaren barruan, Udalari 1,22 milioi euroko diru-laguntza bat eman ziola inbertsio hori finantzatzeko. Obra horiek Nafarroako Gobernuak diru-laguntza hori emateko erabakiaren aurretik hasi zirenez eta aurrez hari aginduzkoa den baimena eskatu ez zitzaionez haiek hasteko, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak, behar zen ebazpenaren bitartez, deklaratu zuen Udalaren aldeko eskubide ekonomiko hori deuseztatuta zegoela.

### **Zazpigarrena. Sozietatearen kontabilitate-kudeaketa**

Sozietatearen kontabilitate-kudeaketari dagokionez, honakoa nabarmendu behar dugu:

- 2005eko azarotik 2011ko maiatzera Administrazio Kontseiluko ahaldun eta kideak egin zuen. Pertsona hori, aldi berean, Udalean arduraldi eskusiboa duen zinegotzia da. Enkargu hori Andacelayren Administrazio Kontseiluak onetsi zuen 2005eko azaroaren 22an. Kudeaketa horrengatik, aldi horretan, 20.100 euro (300 euro gordin hilabeteko) jaso ditu; gastu horren euskarri diren fakturek ez dute dagokion BEZik , baina bai aplikatzen zaie PFEZaren kasuko atxikipena.

2013ko abenduan, udal idazkariak, sozietateko lehendakariak eskatuta, txosten bat eman zuen, non ondorioztatzen baitu ordainsari horiek bateraezinak ziren zinegotzia izatearekin eta udalbatzako kidea izatearekin, kargua arduraldi eskusiboko araubidean emanez gero.

Ahaldunaren jarduketa hori, gure iritziz, baliabide publikoak kaltetzearen ondoriozko kontabilitate-erantzukizuneko balizko kasu bat da.

- 2011ko uztailetik 2012ko abendura, kudeaketa hori aholkularitza-enpresa batek egin zuen. Ez dago jasota behar zen kontratua egin izana. Kontabilitate-jarduera horrengatik, guztira 5.494 euro jaso ditu –sei hilabete bider 300 euro eta 12 hilabete bider 307,8 euro–; halaber, zergen eta merkataritzaren arloetan eginiko beste kudeaketa-lan batzuegatik 3.150 euro jaso zituen.
- 2013ko urtarriletik beste aholkularitza-enpresa baten egin zituen lan horiek; enpresa horrek, bere eskaintzaren arabera, hilero 113 euroko ordainsari gordinak jasotzen ditu; kopuru horretan, kontabilitate-kudeaketaz gainera, lan arloko aholkularitza ere sartzen da.

**Zortzigarrena. Andacelayren bestelako gastuak**

Aztertutako bestelako gastuen multzoari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

- Antzeman da zenbait gasturen erregistroari aplikatzekoak zaizkion kontabilitate-irizpideak ez direla homogenezatu. Hartara, gastu mota bera hainbat kontabilitate-konturi egozten zaie, eta, batzuetan, kontuaren izendapenak ez du loturarik erregistratutako gastuaren izaerarekin.

- Errentamenduak eta kanonak. Azpi-multzo honen barruan, 2010eko abuztutik 2011ko ekainera, guztira, 119.999 euro egotzi dira, zeinak Udalaren hartzaindegirako espazioak eta egoitzak errentan hartzeari baitagozkio; horrenbestez, ez da sozietate publikoaren gastu bat. 2012ko urteko kontuen berrikuspenean, inguruabar hori agerian jarri zen emandako iritziaren salbuespen gisa, orduko auditoria txostenaren barruan; 2013an, ordea, egoera hori zuzendu zen.

- Auditoria-gastua. Kontabilitate-erregistroetan ez daude jasota 2006ko auditoriaren ez faktura, ez ordainketa. Faktura 2010eko auditoriari dagokio, eta ordainketa, berriz, 2011ko auditoriari. Lan horiek guztiak egiazki egin dira, eta auditoriaren kasuko txostena jasota dago.

Geroztik, Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoaren 2013ko artxiboetan, 2010eko auditoriaren faktura eta Andacelayk hura ordaindu izatearen ziurtagiria aurkitu dira.

- Kontabilitate-kudeaketaren gastuen barruan, nabarmendu behar dugu 2008ko eta 2009ko ekitaldietako "Nóminaplus" aplikaziotik heldutakoa, zeinak 1.046 euro egiten baitu; deigarri gertatzen da, zeren eta Andacelayk ez baitu langilerik izan 2012ko abendura arte.

- Kirol babesaren eta aparteko gastuen eta gastu berezien kontzeptuetan, gastuen egozpenean irizpide zorrotzik ez egoteaz gainera, nabarmendu behar dugu zenbait gastu badaudela kirol babesari –15.890 euro–, dohaintzei –12.000 euro– eta diru-laguntzei –127.000– dagozkienak.

- Sozietateen gaineko zerga. Andacelay sozietateak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 58. artikulua aplikatu du; izan ere, artikulua horrek udal eskumeneko edozein zerbitzu publikoren prestaziotik heldu diren errentei dagokien kuota osoaren ehuneko 99ko hoberia jasotzen du, zerbitzu horiek kapital guztiz publikoa duen tokiko sozietate publiko batek ematen baditu.

**Bederatzigarrena. Egüés 21, S.A. sozietate mistoari zerbitzuak emateagatik Andacelayk eginiko fakturak**

Andacelayren diru-sarrerak aztertuta, honako informazioa lortu dugu:

Ekitaldia	Kontzeptua	Zenbatekoa
2007	Zerbitzuak ematea Egués, 21, S.A.ri (3 faktura)	301.000
2008	Zerbitzuak ematea Egués, 21, S.A.ri (12 faktura)	600.000
Guztira		901.000

Aurreko kopuruei BEZari dagokion ehuneko 16a gehitu behar zaie; guztizko kopurua 1.045.160 eurokoa da. Faktura horiek kobratutakoan artean ageri dira Andacelayren kontabilitatean.

Haiek aztertuta, nabarmendu behar dugu Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren aurka eginiko hamabost fakturek kontzeptu bera dutela: "kudeaketa tekniko eta administratiboak edo beste gisa batekoak, hiru lurzorua sustatzera edo salmentara bideratutakoak, Eguesibarren etxebizitza babestuen sustatzeko proiektua dela-eta". Faktura horiekin batera ez dago dokumentaziorik, emandako zerbitzuen izaera justifikatzen duenik; eta, gainera, kontuan hartu beharra dago aipatutako Andacelay sozietateak ez duela langilerik 2012ko abendura arte. Andacelayren kontabilitateari buruz egindako azterketatik ez da ondorioztatzen, ezta ere, zerbitzu horiek enpresa horrek kontratatutako hirugarrenen eman dituztenik.

Txosten hau eztabaidatzeko fasean, Andacelayren lehendakari ohiak baieztatu zuen faktura horiek NASIPAK exekututako obren kontrol zerbitzuei eta kudeaketa administratiboko zerbitzuei dagozkiela, eta lan horiek Udaleko langileek egin arren Andacelayren bitartez fakturatu zirela. Ez Udalean, ez Andacelay sozietatean ez dago jasota inongo informaziorik lan horien izaerari eta kuantifikazioari buruz.

Sozietate mistoaren gastu guztiak aztertuta, aipatutako fakturak erregistraturik, ordaindurik eta artxibaturik ageri dira, baina ez da informazio gehiagorik ematen; "enpresa-aholkularitza" gastuen kontuaren barruan kontabilizatzen dira.

Gai hori dela eta, txosten honetako hamaseigarren ondorioa jo beharra dago. Soilik aurreratu nahi dugu uste izatekoa dela Egüés 21, S.A. enpresa mistoko bazkideen arteko fakturen bitartezko dibidendu-banaketa bati dagozkiola, eta horretara jo zela "sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera" sozietate horrek egindako bi etxebizitza-sustapenetatik lortutako etekinengatik. Eragiketa horren izaera konfirmatuz gero, hainbat esparrutako erantzukizun juridikoak erator litezke.

### Hamargarrena. Andacelayk lortutako diru-sarrera finantzarioak

Andacelay sozietateak urte hauetan likidezia handia izan du, zeinak aipatzeko moduko finantza-etekinak eman baitizkio; hartara, 2004tik 2013ra, 1,38 milioi euroko diru-sarrerak jaso zituen kontu korronteen eta epe luzeko ezarpenen interesengatik. Hona xehetasunak:

Diru-sarrera finantzarioak	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013ko aurrerapena
Zenbatekoa	7.109	62.629	239.264	350.938	417.994	74.503	101.768	63.886	61.176

Diru-sarrera horien ehuneko 65 inguru Caixa Catalunyarekin egindako eragiketetatik heldu dira; ehuneko 28, berriz, Caixa-CANekin egindakoetatik.

Abiapuntutzat hartzen badugu eragiketa horien euskarriko informazioa ez dugula beti eskura izan (kontuen eta gordailuen kontratuak, interesen likidazioak, kutxako kontaketak, banku-berdinkatzeak eta abar), ikusten dugu, oro har, ekitaldi bakoitzean lortutako errentagarritasunak finantza-merkatuan arazoizkoak diren tarteen barruan daudela.

Ez dago dokumentaziorik inbertsio horiek finantza-entitateetan kolokatzeko jarraitutako prozedurari buruz.

### Hamaikagarrena. Andacelayk lehentasunezko partaidetzak erostea

Eragiketa horri buruz, Kontuen Ganberak berriazko txosten bat egin zuen<sup>21</sup> 2013ko abenduan. Hartara jo behar da.

Soilik gogorarazi nahi dugu eragiketa horrek Andacelay sozietateari kalte ekonomikoa eragin ziola, 65.521 eurokoa, hau da, egindako inbertsioaren –100.241 euro– ehuneko 65,36koa.

Laburbilduz, eragiketaren guttizkoari dagokionez, ondoriozta dezakegu ez zirela errespetatu baliabide publikoen erabileran exijitzekoak diren legezotasunaren, gardentasunaren eta kudeaketa zuzenaren irizpideak. Araudi indardunaren arabera, administratzaileen jokaera hori kontabilitate-erantzukizuna eskatzeko kasu bat izan daiteke, arlo judizialean egon daitezkeen gainerako erantzukizunak ezertan kendu gabe.

Ondorio horiek Kontuen Epaitegiari helarazita, azken horrek, 2014ko maiatzean, instrukzio-egile delegatu bat izendatu duela erosteta hori dela eta.

<sup>21</sup> Ondorio hau Kontuen Ganberak erosteta horri buruz egin zuen txostenaren laburpen bat da. 2013ko abenduaren 20an eman zen txosten hori.

## IV.3. "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, S.A." SOZIETATE PUBLIKO MISTOA

**Hamabigarrena. Sozietatearen eraketa**

Sozietate misto hori formalki 2005eko uztailaren 5ean eratu zen, eta haren prozesua Andacelay enpresak kudeatu zuen. Horri buruz, honakoa aipatu behar dugu:

- Udalak, 2015eko otsailaren 15ean, Andacelay, S.L.ren eta bazkide pribatu baten arteko sozietate misto bat eratzeko baldintza administratiboen orriak onetsi zituen.

- Kontratuaren xedeak, etxebizitzaren sustapenerako aipatutako sozietatea sortzeaz gainera, hirigintza-jarduketan kudeaketa integrala eta 3B-4 lur-zatia etxebizitzak egitea hartzen du.

- Kontratazio horri buruzko iragarkia soilik tokiko egunkari batean argitaratu zen, 2005eko otsailaren 24an; araudi indardunak, ordea, dio Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere argitaratu beharra dagoela.

- Iragarkiak aipatzen du eskaintzak aurkezteko epea 20 egunekoa dela; orrietan, berriz, hilabeteko epea ematen zen.

- Orriek jasotzen zituzten balorazio irizpideak orokorrak ziren; aurrerago, zabaldu eta zehaztu ziren ez sinadurarik, ez datarik ez duen agiri batean. Ez dakigu, ezta ere, agiri hori nola zabaldu zen.

- Ez dago agiri bidez jaso eskaintzen irekitze publikoa, orrietan besterik aipatzen den arren.

- Balorazio irizpideei dagokienez, Udaleko zerbitzu teknikoek arkitektura-proposamena kuantifikatu zuten -100 puntutatik 40-, zeina azkenean irizpide erabakigarria izan baitzen; gainerako irizpideak -negozio-proposamena, kudeaketaren ehunekoa eta hobekuntzak- Andacelayko Administrazio Kontseiluko kideek baloratu zituzten, 2005eko maiatzaren 18an izandako bileran.

- Lehiaketa NASIPA enpresari esleitu zitzaion. Enpresa horren eskaintza, alderdi nagusietan, honako taulan ageri dena da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Lurzoruaren prezioa (3B-4 lur-zatia)	2.252.810
Etxebizitzak eraikitzearen eta urbanizazioaren kostua	6.629.472
Etxebizitza kopurua <sup>22</sup>	66
Proiektuaren eta obra zuzendaritzaren kostua	361.198
Sustapenetik espero zen etekina	1.059.326
Gastuen gaineko etekinen ehunekoa	10,09%
Artekaritzaren edo salmenten kudeaketaren ehunekoa <sup>23</sup>	%4

- Sozietate hori eratzeko eskriturretan -2005eko uztaila-, ez da aipatzen aipatutako 3B-4 lur-zatiaren salerosketa. Aztertutako informazioaren arabera, Andacelayri lurzoru horrengatik egiazki ordaindutako kopurua 2.246.260 eurokoa izan zen; hau da, NASIPAk eskainitakoa baino 6.550 euro gutxiago. Gure kalkuluen arabera, lurzoruaren kostuaren ehuneko 20ak PTE-en salmenta-prezioan duten eraginak egiten dut lur-zatiaren guztizko kostua 2.263.752 eurokoa dela; hau da, NASIPAk egiazki ordaindutakoa baino 17.492 euro gehiago.

- NASIPAREN eskaintzan, aurreikusita zegoen lurzoruaren ordainketa sozietate mistoa eratu eta lehenengo hilabeteetan gauzatuko zela, eta hipoteka-mailegu bat egin arteko zubi-mailegu baten finantza-kostuak hartzen zuen bere gain. Hipoteka-mailegu hori eratu eta bosgarren

<sup>22</sup> Halere, hasieran guztira 48 etxebizitza aurreikusten ziren.

<sup>23</sup> Orrietan kontzeptu horretarako gutxieneko balio gisa ehuneko laua ezarri zen, eta gehieneko balio gisa, berriz, ehuneko zazpi.

hilabeterako aurreikusita zegoen. Hala eta guztiz ere, ordainketa efektiboa ez zen 2005eko urrira arte egin, eta data hori bat dator hipoteka-mailegu hori eman zen datarekin. Horrenbestez, bazkide pribatuak ez zuen lursailaren finantzaketaren inongo kosturik hartu bere gain.

- Orrietan ezartzen da ezen, 3B-4 lur-zatiaren hirigintza jarduketaz gainera, etorkizunean jarduketak beste esparru batzuetara zabal daitezkeela; aurreikuspen horien emaitza da Andacelay sozietateak zuzenean esleitu ziola 3A-9 lur-zatia, aurrerago gara zezan. Aipatutako orrietan zabalkuntza horiek arautu behar zituzten oinarrizko baldintzak ageri ez zirenez, zuzeneko esleipen hori ez zen izan publizitate eta lehia printzipioen araberakoa.

### **Hamahirugarrena. 1. sustapeneko kontratazioak (3B-4 lur-zatia, 66 PTErekin).**

Kontratazio horiek sozietate mistoa bera eratzeko orrietatik heldu dira; honako alderdiak aipatzen dira NASIPAK aurkeztutako eskaintzari buruz:

- Obren exekuziorako ez bezala, ez zen kontraturik egin proiektua erredaktatu zuen eta obra zuzendaritzaz arduratu zen taldearekin. Kostua 0,34 milioi pezetakoa izan zen; hau da, eskaintako zenbatekoa baino ehuneko 21.484 handiagoa.

- Obren exekuzio materialerako aurrekontuari dagokionez, askotariko zenbatekoak aurkitu ditugu; hartara:

a) NASIPAK obren kostua dela-eta egiten duen eskaintza, 6,63 milioi egiten duena. Zenbateko horretatik gastu orokorren eta industria-etekinaren ehuneko 12a kenduta, exekuzio materialerako aurrekontua 5,92 milioikoa da.

b) Udalari EIOZa obrarako lizentzia finkatzeko aurkeztutako proiektuak –2005eko uztailean bisatu zen– 3,85 milioiko aurrekontua dauka obren exekuzio materialerako.

c) Nafarroako Gobernuari, behin-behineko kalifikazioa lortzeko, 3,85 milioiko proiektua aurkeztu zitzaion obren exekuzio materialerako; hau da, Udalari aurkeztutako bera. Horri dagokionez, aipatu behar dugu Nafarroako Gobernuak, 2005eko abuztuan, eskatu zuela exekuzio materialerako aurrekontua, araudian ezarritakoari jarraituz, ez zedila izan etxebizitzaren gehieneko prezioaren ehuneko 50 baino txikiagoa. Urte bereko irailean, berriz ere aurkeztu zen Gobernuan behin-behineko kalifikazioa lortzeko eskabidea, NASIPAK eskaintako aurrekontuarekin.

Ezin izan dira berdinkatu edo/eta alderatu NASIPAK obraren exekuzio materialerako aurkeztutako aurrekontua eta erredakzio-taldeak egindako proiektu bisatuan jasotakoa.

- 2005eko azaroan, obrak exekutatzeko kontratu bat sinatu zen bazkide pribatuarekin, 6,63 milioi euroko kopuru batekin. Kontratu horri buruz, hauxe esan behar dugu:

a) Kopuru finko bat duen kontratua da, prezio bakar, zehatz eta itxia duena.

b) Obra-unitateen arabera aurrekontu xehakaturik gehitzen da, eta honela banakutzen da: exekuzio materialerako 5,92 milioi, industria-etekinerako ehuneko bost –0,30 milioi– eta gastu orokorretarako ehuneko zazpi –0,41 milioi–.

c) Hitzartutako prezioa ezin izanen da inolaz ere aldatu, exekutatutako obra-unitateen kopurua eta haien neurketa zein diren ere. Hartan aldaketa batzuk egin ahal izatea jasotzen da soilik proiektu teknikoan ezusteko aldaketak egiten badira.

d) Ez orriek, ez kontratuak ez dute ziurtagiriei dagokien kopuruaren atxikipenik ezartzen, ez eta beste formularik ere, egindako obraren gaineko berme gisa. Soilik bermearen epea aipatzen da, obrak jaso eta 12 hilabetekoa.

e) Egindako obra-ziurtagiriek kontratazioaren zenbateko berbera dute; hau da, 6,63 milioi euro. Obra unitateak eta haien neurketa bat datoz eskaintzak biltzen duen aurrekontu xehakaturarekin.

Horrenbestez, ezin dugu egiaztatu egiazki egindako obren kostua benetakoa den, zeren eta ez baitago exekuzio materialaren aurrekontu bakar bat eta ziurtagiriak esleipenaren prezioa bera jasotzen baitu.

Halaber, nabarmendu behar dugu bermerik ez dagoela, balizko eraikuntza-akatsak finantzatzeko, halakorik badago.

## **Hamalugarrena. 2. sustapeneko kontratazioak (3A-9 lur-zatia, 114 PTErekin eta 48 BOErekin).**

Kontratazio horiek sozietatea bera eratzeko prozesutik independentea den prozesu baten gisara egiten dira. Horiei buruz, honakoa aipatu behar dugu:

### **Proiektua eta obra-zuzendaritza**

- Sozietate mistoak eskaintzak eskatzen dizkie hiru arkitektura-bulegori, 3A-9 lur-zatietan egin beharreko etxebizitzaren eraikuntzarako proiektu teknikoa egin dezaten.

- 2006ko ekainaren 9an, sozietate mistoaren batzar nagusiak kontratazio-organoko edo mahaiko kideak izendatu zituen: hiru Andacelayk izendatuak eta bi NASIPAK izendatuak. Lehendakari gisa enpresa horrek berak izendatutako arkitekto batek dihardu. Arkitekto hori, aldi berean, enpresaren ahduna da.

- 2006ko uztailaren 17an, kontratazio-mahai horren aktaren arabera, aurkeztutako hiru eskaintzak ireki eta baloratu ziren; honakoak aplikatu ziren balorazio-irizpide gisa: ingurunera egokitzea (10 puntu bitarte), hirigintza-alderdiak (10 puntu bitarte), proposamenaren kalitatea (30 puntu bitarte) eta eskaintza ekonomikoa (30 puntu bitarte).

Akta horretan ez dira aipatzen ez eskaintza-egileen izenak, ez esleipen-hartzailearen izena – 3. eskaintza–; ez dira aipatzen, ezta ere, haien balorazioari buruzko txosten teknikoa edo esleipenaren zenbatekoa.

Hala eta guztiz ere, balorazio-txosten bat badago artxibatuta, NASIPAK izendatutako arkitektoak sinatua, non ez den aipatzen lizitatzailak zein diren eta 3. eskaintzari puntuaziorik handiena ematen zaien. Txosten horretan puntuazioa ematen da, labur, dauden irizpideen arabera, eta laburpen-taula bat ere ageri da, hiru lizitatzailen informazioarekin; bertan, lurzoruarengatik egiten duten eskaintza eta sustapenetik espero den etekina aipatzen dira.

- Andacelayren Administrazio Kontseiluak, 2006ko irailaren 20an egindako bilkuraren aktaren arabera, jarraitutako prozesuari buruzko laburpen bat egin ondoren, hiru eskaintzak identifikatu eta aztertzen ditu, eta horietako bati –aipatu den 3. eskaintzari– esleitzen dio kontratua, esanez udal arkitektoek arkitektura-irizpideen arabera hobekien baloratutakoa dela – halere, ez da haien txostenik ageri–; halaber, esleipena eskaintza horri egiten zaio baldintza batekin: espero den etekina eskaintzako handienetik hurbil egotea. Akta horretan ez da aipatzen ez proiektuaren ez obra zuzendaritzaren kostua, eta ez dira aipatzen sozietate mistoaren kontratazio-organoaren jarduketak edo NASIPAKo arkitektoaren txostena.

- 2007ko maiatzean –esleipena egin eta zazpi hilabeteren ondoren–, sozietate mistoaren eta esleipen-hartzailearen arteko kontratua izenpetu zen, guztira 0,89 milioi egiten duen kopuruarekin. Kontratu horretan, ez da sartzen ez obra-zuzendaritza, ez eta segurtasunaren arloko koordinazioa, aparejadoreek egin beharrekoa; enkargu hori gero zuzenean egiten da 0,19 milioiren truke.

- Egiazko gastua bat dator esleitutako zenbatekoarekin; proiektua emateari dagokion ordainketa –612.500 euro– 2007ko maiatzaren 29an egin zen; hau da, kontratua sinatu eta hilabete baino gutxiago iragan denean.

- Obren exekuzio materialaren aurrekontua 16,18 milioikoa da<sup>24</sup>. Kontrataren exekuzioaren aurrekontua kalkulatzeko, honakoak gehitu behar dira: gastu orokorren ehuneko zazpia eta industria-etekinaren ehuneko bosta. Horrekin, guztizko kopuruak 18,13 milioi egiten du.

Azken batean, hautapen prozesua eta esleipen proposamena sozietate mistoak abiatu zituen arren, egiazki Andacelay sozietatea da formalki esleipen-hartzailea hautatzen duena.

#### **Etxebizitzak eraikitze obrak**

- Obren esleipena sozietate mistoak egin zuen, prozedura negoziatua erabiliz eta hiru enpresari gonbita eginez. Kontuen Ganberaren iritziz, esleipen hori, daukan zenbatekoa dela eta, lizitazio irekiaren prozedura erabiliz edo publizitate eta lehia printzipioen arabera prozedura murriztuaren bidez egin beharko zen.

- Honako obrak kontratatzeari ekin zitzaion:

- a) 48 BOE eraikitze lanak, 5,42 milioiko aurrekontuarekin.

- b) 114 PTE eraikitze lanak, 12,95 milioiko aurrekontuarekin.

Horrenbestez, biek batera 18,37 milioiko aurrekontua egiten dute, eta eraikin mota baterako nahiz bietarako eskaintzak aurkez daitezke. Lizitazio zenbateko horiek aurrez aipatutako proiektuaren aurrekontuan jasotakoa baino handiagoak dira.

- Orrietan ez da ziurtagiriei dagokien kopuruaren atxikipenik ezartzen, ez eta beste formularik ere, egindako obraren gaineko berme gisa. Soilik bermearen epea aipatzen da, obrak jaso eta 12 hilabetekoa.

- 2006ko irailaren 10ean, sozietate mistoko akziodunen Batzar Nagusiak kontratazio-mahaiko hiru kideak izendatu zituen: bat Andacelayren izenean, beste bat NASIPAREN izenean eta beste bat proiektua erredaktatutako taldeak izendatua; lehendakari gisa, NASIPAK izendatutakoa jardun zuen, zeina, aldi berean, enpresa horretako kudeatzailea baita. Kontua da data horretan proiektua oraindik ere Andacelayri formalki esleitu gabe zegoela –irailaren 20an egin zen–, nahiz eta sozietate mistoaren kontratazio organoaren proposamena eginik zegoen.

- Prozesurako hiru eskaintza aurkeztu ziren, eta 2006ko azaroaren 15ean, kontratazio mahaia bildu zen haiek ireki eta baloratzeko eta esleipena egiteko. Kontratua sozietate mistoko bazkide pribatuari esleitu zitzaion, NASIPARI, 17,54 milioiko prezioan; hau da, ehuneko 4,52ko bajarekin. Honela banakatzen da zenbateko hori: 15,66 milioi obraren exekuzio materialerako eta 1,88 milioi gastu orokorretarako –ehuneko zazpi– eta industria-etekinerako –ehuneko bost–; eskaintza ekonomiko hori aurkeztutakoetan diru-kopuru txikiena jasotzen zuena zen. Ez dago jasota NASIPAK kontratazio-organon zuen ordezkaria –alegia, lehendakaria– abstentzioa eman izana eskaintzen balorazioan eta hartutako erabakian.

- Merkataritza Erregistroko datuen arabera, NASIPAK merkataritza-harremanak dauzka esleipenera aurkezten diren bi enpresekin; horietako batekin, bi enpresen aldi baterako batasun osatu ditu etxebizitzak egiteko; bestearekin, berriz, sozietate batean hartzen du parte, akziodun gisa.

- Bi kontratuak –eraikin bakoitzeko bat– 2007ko maiatzean sinatu zituzten sozietate mistoko bi ordezkariak –lehendakariak eta NASIPAKO kontseilari batek– eta NASIPAREN ordezkari batek. Kontratu hori gehitu dugu, eranskinen artean. Obra-unitateen arabera aurrekontu ekonomiko zehatza dauka.

- Itundutako prezioa ezin izanen da aldatu, unitateen kopurua edo haien neurketa zein diren ere. NASIPAK konpromisoa hartzen du bere eskaintzako neurketen egoera proiektuko

---

<sup>24</sup> Zenbateko horren arabera finkatu zituen Udalak EIOZa eta obra lizentzia.



neurketen arabera izan dadin; horrenbestez, neurketetan gertatzen diren aldeek, goranzkoek zein beheranzkoek, ez dute inolako eraginik izanen itundutako prezioan.

- Egindako obra-ziurtagiriek esleipenaren zenbateko berbera dute; hau da, 17,54 milioi euro.

Laburbilduz, eraikuntza-obra horien esleipena gauzatu zen aginduzkoa zen lehia publikoa egin gabe; halaber, hiru enpresei gonbita eginez gauzatutako esleipen prozeduraren objektibotasunean eragina izan dute honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Kontratazio mahaiko lehendakaritzarako NASIPako ordezkaria izendatu zen, zeina, aldi berean, haren kudeatzailea baitzen. Ez dirudi arrazoizkoa denik halakorik onartzea, ez eta eztabaidetan, puntuazioetan eta organo horrek erabakiak hartzerakoan ez abstenitzea ere, kontuan izanda enpresak eskaintza bat aurkezten zuela.

- Kontratazio organoan proiektua erredaktatu duen taldeko kide bat sartzea, proiektu horren hautapen prozesuan NASIPako ordezkariaren jarduketa erabakigarria izan baitzen.

- Bestalde, kontratua prezio itxiaren formularen bidez egin zenez eta hain zuzen ere prezio horren arabera ziurtatu zenez, ezin dugu ondoriorik atera egiazki exekututako obren kostua benetakoa izateari buruz. Halaber, nabarmendu behar dugu bermerik ez dagoela, aipatutako eraikinean akatsik antzeman ez gero haiek finantzatu ahal izateko.

#### **Hamabosgarrena. Udalari bi sustapenengatik ordaindutako EIOZa eta obra lizentziak**

Udalak emandako informazioaren arabera, hasiera batean bi sustapenengatik ordaindutako EIOZak –aurrekontuaren gainean aplikatzekoa den ehuneko 4,5eko tasa– eta obra lizentziak –ehuneko 0,2ko tasa– 0,94 milioi egin zuten. Kuantifikazio hori Udalak egin zuen sozietate mistoak aurkeztutako exekuzio materialeko aurrekontuen arabera.

Hurrengo taulan alderatu ditugu, batetik, aurreko datuak eta, bestetik, sozietate mistoan bi sustapenentarako aurreikusitako exekuzio materialeko aurrekontuei buruz sozietate mistoaren artxiboetan lortutako informazioa:

<b>Promociones de Egüés 21, S.A.</b>	<b>Obrak egitearen aurrekontua, Udalari aurkeztutakoa (a)</b>	<b>Obraren exekuzio materialerako aurreikusi den aurrekontua (b)</b>	<b>Aldea (a-b)</b>
<b>1. sustapena</b>			
Zerga-oinarria	3.850.004	5.919.172	-2.069.168
EIOZaren eta obra lizentziaren zenbatekoa	180.950	278.201	-97.251
<b>2. sustapena</b>			
Zerga-oinarria	16.183.795	15.663.464	520.331
EIOZaren eta obra lizentziaren zenbatekoa	760.638	736.183	24.455

Horrenbestez, lehen sustapenari dagokionez, Udalari tributu horien likidaziorako aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa bi milioitan txikiagoa zen exekuzio materialekoa baino; horren emaitza da kontzeptu horiengatik tributazioa 97.251 eurokoa dela.

Hala eta guztiz ere, bigarren sustapenean, aurkeztutako aurrekontua obrakoa baino 0,5 milioi handiagoa da; horrenbestez, sozietateak kontzeptu horiengatik 24.455 euro gehiago ordaindu ditu.

Aurreko taulan bildutako exekuzio materialaren zenbatekoak –(b) zutabea– bat datoz, halaber, exekututako obren amaierako zenbatekoarekin, kasuko ziurtagirien arabera. Horrenbestez, tributu horien hasierako likidazioa, Ganbera honek egindako kalkuluen arabera, bat dator amaierakoarekin.

2012ko maiatzean, sozietate mistoak eskatuta, Udalak EIOZaren likidazioei buruzko azterketa bat egin zuen, obrako amaierako ziurtagirien arabera. Honakoak izan ziren azterketa horren emaitzak:

1. sustapena: sozietate mistoari zerga horrengatik kopuru osagarri bat eskatzen zaio, 93.133 eurokoa, eta sozietateak ordaindu egiten du. Zenbateko horren aldea, gure kalkuluen arabera, zera da: osagarri hori EIOZari dagokio soilik, eta ez du obra lizentziaren tasa hartzen.

2. sustapena: sozietate mistoari 23.416 euroko zenbatekoa itzultzen zaio. Gure kalkuluen arabera, aldea obra lizentziari buruz aipatutako bera da.

#### **Hamaseigarrena. Andacelayk eta NASIPAK Egüés 21, S.A. sozietate mistoari egindako fakturak**

Sozietate mistoaren kontabilitatea aztertuta, honako gastuei buruzko informazioa lortu dugu:

<b>Ekitaldia</b>	<b>Kontzeptua</b>	<b>Kontabilitate-kontua</b>	<b>Zenbateko a</b>
<b>ANDACELAY</b>			
2007	Zerbitzuak ematea Egués, 21, S.A.ri (hiru faktura)	Enpresen aholkularitza	301.000
2008	Zerbitzuak ematea Egués, 21, S.A.ri (12 faktura)	Enpresen aholkularitza	600.000
<b>Andacelay, guztira</b>			<b>901.000</b>
<b>NASIPA</b>			
2007	Jasotzeko dauden ziurtagiriak (faktura bat)	Jasotzeko dauden fakturak	289.196
2009	Prezio kontrajarriak (faktura bat)	Eraikuntza-gastuak	576.471
<b>NASIPA, guztira</b>			<b>865.667</b>

Aurreko kopuruei –1.77 milioi– BEZari dagokion ehuneko 16a gehitu behar zaio; guztira, beraz, 2,05 milioi dira. Faktura horiek ordaindutakoen artean ageri dira sozietate mistoaren kontabilitatean.

Andacelayren alde egindako fakturei dagokionez, bederatzigarren ondoriora jo beharra dago. Hartan esaten da ez dagoela jasota haiek zerbitzuren bat eman izateari dagozkionik.

NASIPAREN alde egindako fakturak eraikuntza-gastuei egozten zaizkio, eta honela identifikatzen dira:

- 2007an, jasotzeko dauden ziurtagiri gisa. Jasotzeko dauden fakturen kontuan kontabilizatzen dira. 2008an, faktura jaso eta ordaintzen da, euskarri-ziurtagiririk gabe, eta eraikuntzaren gastuen kontuan kargatzen da.

- 2009an, zuzendaritza fakultatiboak onetsitako prezio kontrajarrien likidazioaren kontzeptuarekin kontabilizatzen dira, "erantsitako zerrendaren arabera". Ez dago jasota halako zerrendarik.

Txosten hau eztabaidatzeko fasean, NASIPA enpresak baieztatu du aurreko fakturak bi sustapenetan egindako lanei dagozkiela, eta haiei buruzko euskarri-dokumentazioa eranstu du; halaber, adierazten du obra horiek ezustekoetan eta etxebizitzan sartu beharreko hobekuntzetan justifikatuta daudela, eta ikusta aurrekontua prezio itxiarekin kontrastatu zela, Andacelayrekin adostu zen ordainketa-formula hori erabiltzea. Aurkeztutako ziurtagiriei dagokienez, honakoa esan behar dugu:

- Lan horien izaera, xehetasunak eta zenbatekoa ez daude jasota ez Andacelayren artxiboetan, ez Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren artxiboetan ere.

- Ez dakigu nork edo zein organok baimendu zituen proiektuaren aldaketa eta obrak berak.

- Aurkeztutako datuak eraikuntza enpresak baizik ez ditu sinatzen; ez dago jasota jabeak eta obra zuzendaritzak sinatu izana.

- Aurreko gastuak fakturatu ziren datak 2008ko iraila -1. sustapena- eta 2009ko otsaila -2. sustapena- izan ziren. Aipatu behar dugu 1. sustapeneko obren amaierako ziurtagiria 2007ko otsailekoa dela; hau da, aurkeztutako fakturaren data baino 18 hilabete lehenagokoa.

Gure lana egiten ari ginen bitartean, Udalak Egüés 21, S.A. sozietatearen logotipoa duen agiri bat aurkeztu zigun, ez datarik, ez sinadurarik ez duena. Testua honela hasten da: "Honen bitartez, fakturen bidezko dibidendu-banaketa idatziz jaso behar dugu, sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera", Agiri horren datari dagokionez, hartatik ondoriozta daitekeen informazioren arabera, badirudi emaitza kalkulatzeko garaian taxutu zela, 2007ko ekitaldiari dagozkion zergak baino lehen.

Lerrokada horren ondoren, sozietate mistoak exekutututako bi sustapenetako bakoitzarentzat, agiri horretan aztertzen dira 1. sustapenaren benetako etekin itxia eta 2. sustapenerako kalkulatu den etekina. Hartara,

1. sustapena: 66 PTE. Etekin itxia 1,17 milioikoa da, "zeinetatik 590.196 euro fakturen bidez banatu behar baititugu; horrekin, Andacelayk zenbateko horren ehuneko 51 fakturatu behar digu, hau da, 301.000 euro, eta NASIPak, berriz, 289.196 euro".

2. sustapena: 48 BOEren lur-zatia. Lur-zati horretan espero den etekina 1,71 milioikoa da, baina oraindik ere etxabeak eta garaje-plazak saltzeko daudenez, etekin hori deuseza da orain. "Saltzen diren heinean, dibidenduak banatuko ditugu, fakturen bidez, espero zen etekinaren % 50era iritsi arte, hau da, 857.627 eurora arte; hortik, % 51 Andacelayri dagokio eta % 49, berriz, NASIPari".

2. sustapena: 114 PTEren lur-zatia. Espero zen etekina 2.54 milioikoa da; ez dago lotu gabeko elementurik eta "horrenbestez, etekina % 53,63an utziko dugu, eta gainerako % 46,37a fakturen bidez banatuko dugu. Hori dela eta, Andacelayk 600.000 euro fakturatu behar dizkigu hileroko fakturen bidez, 50.000 euroko fakturak eginez urtebetez, eta NASIPak 576.471 euro fakturatuko dizkigu. Horrenbestez, etekina 1.360.376 eurokoa izanen da, eta emaitza horren arabera ordainduko da sozietateen gaineko zerga".

Eragiketa horien emaitza gisa, agiri horretan zergen aurretiko honako etekinen taula erantsi zen:

Lur-zatia	Etekin, espero zena	Etekin, Andacelay	Etekin, NASIPA	Fakturak		Etekin: amaierarako kalkulatu dena
				Andacelay	NASIPA	
66 prezio tasatuko etxebizitza	1.168.929	596.154	572.775	301.000	289.196	578.733
48 babes ofizialeko etxebizitza	1.715.254	874.780	840.474	0	0	1.715.254
114 prezio tasatuko etxebizitza	2.536.846	1.293.791	1.243.055	600.000	576.471	1.360.376
<b>Guztira</b>	<b>5.421.029</b>	<b>2.764.725</b>	<b>2.656.304</b>	<b>901.000</b>	<b>865.667</b>	<b>3.654.363</b>

Gero, 2007ko kontabilitate-emaitzaren doikuntza batzuk xehakatzen dira. Honakoak azpimarratuko ditugu haien artetik:

- 2007ko ekitaldiko fakturen bidezko etekin-banaketa, 590.196 eurokoa -301.000 euro Andacelayri eta 289.196 euro NASIPari-.

• Sustapenak berezko dituen gastuez gainera, sozietatearen gastu batzuk badaude, "lehen aktibatuta zeudenak zero emaitza emateko<sup>25</sup> eta une horretan pasatzen dira gastu-kontutik; guztira, 27.392 euro egiten dute". Gastu horien artean, nabarmentzekoak dira 2005eko eta 2006ko auditoriarengatikko lansariak -11.000 euro- eta golferako eta errugbi txapelketarako babesak -6.000 euro-.

Agiria amaitzen da sozietate mistoaren 2007ko emaitzan egindako doikuntzak biltzen dituen honako taularekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
2007ko apirilko emaitza	1.179.001
NASIPA-Andacelayren fakturak	-590.196
Sozietatearen bestelako gastuak	-28.759
Izakinak, garajea	45.000
Izakinen minorazioa, uko egiteagatik	-3.113
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaitza, 2007-12-31n</b>	<b>601.933</b>

Kontabilitate-emaitza hori bat dator zehazki ekitaldi horretako urteko kontuetan islatutakoarekin. Honela banatzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Banatzeko
Zerga aurreko kontabilitate-emaitza, 2007-12-31n	601.933	
Sozietateen gaineko zerga		194.428
Legezko erreserba		40.750
Andacelayren dibidenduak		187.045
NASIPAre dibidenduak		179.710

2007ko ekitaldia da bazkideen arteko dibidendu-banaketa erabakitzen den bakarra.

Sozietate mistoaren 2007ko ekitaldiaren ondoko urteetako kontabilitatea aztertuta, aipatutako fakturak aurkitu dira soilik, 2008ko eta 2009ko ekitaldiei dagozkienak.

Laburbilduz, urte horietako zergen aurretiko kontabilitate-emaitzak hurrengo zenbatekoen arabera doitu behar dira:

Kontzeptua	Urteko kontuak
Zerga aurreko kontabilitate-emaitza, 2007-12-31n	601.933
+ Andacelayk eta NASIPAK 2007an egindako fakturak	590.196
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaitza doituak, 2007-12-31n</b>	<b>1.192.129</b>
Zerga aurreko kontabilitate-emaitza, 2008-12-31n	49.983
+ Andacelayk 2008an egindako fakturak	600.000
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaitza doituak, 2008-12-31n</b>	<b>649.983</b>
Zerga aurreko kontabilitate-emaitza, 2009-12-31n	842.679
+ Andacelayk 2009an egindako fakturak	576.471
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaitza doituak, 2009-12-31n</b>	<b>1.419.150</b>

<sup>25</sup> Gogorazi nahi dugu sozietatearen 2005eko eta 2006ko kontabilitate-emaitza zero izan zela, haren urteko kontuen arabera.

Doikuntza horiek eragina izanen lukete, horrenbestez, bai sozietate mistoaren kontabilitate-emaiza zehazterakoan, bai sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioetan ere.

Horrenbestez, bazkideek sozietate mistoaren kargurako faktura batzuk egitearekin –zein zerbitzu edo lan egin zen ez dago objektiboki jasota–, ustezko dibidendu-banaketa bat gauzatu da, "sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera". Formula horren arabera, bazkideetako bakoitzak honako zenbatekoak hartu zituen:

Bazkideak	Banaturako zenbatekoa, guztira	1. sustapena	2. sustapena
Andacelay	901.000	301.000	600.000
NASIPA	865.667	289.196	576.471
<b>Guztira</b>	<b>1.766.667</b>	<b>590.196</b>	<b>1.176.471</b>

Eragiketa horren izaera konfirmatuz gero, hainbat esparrutako erantzukizun juridikoak erator litezke.

#### **Hamazazpigarrena. NASIPARI ordaindutako kudeaketa gastuak**

Eraketa-kontratuaren arabera, bazkide pribatuak, NASIPAK, sozietatearen kudeaketa integralaren eta merkataritza-jarduketan truke portzentaje bat jasoko du, hain zuzen etxebizitzan salmenta-prezioaren ehuneko lau.

Sozietate mistoaren kontabilitatean, kontzeptu hori dela-eta honako fakturen oharrak ageri dira:

Ekitaldia	Kontzeptua	Kontabilitate-kontua	Zenbatekoa
2007	NASIPA, 1. sustapeneko salmenten kudeaketa	Salmenten kudeaketaren gastuak	444.504
2008	NASIPA, 2. sustapeneko salmenten kudeaketa (ehuneko 50)	Salmenten kudeaketaren gastuak	545.359
2009	NASIPA, 2. sustapeneko salmenten kudeaketa	Enpresen aholkularitza	517.241
2009	NASIPA, 2. sustapeneko salmenten kudeaketa	Enpresen aholkularitza	191.938
<b>Guztira</b>			<b>1.699.042</b>

Aurreko zenbateko hori kontabilitatearen araberako salmenten zenbatekoari ehuneko laua aplikatuz heldu denarekin –40,33 milioi–alderatu dugu, eta ateratzen da, gure kalkuluen arabera NASIPAK komisio horrengatik behar baino 85.765 euro gehiago jaso dituela guztira.

NASIPAK jasotako gehiegizko lansari horretan, gure ustez, sozietateko administratzaileen sozietate-erantzukizuneko eta banakako erantzukizuneko eusteko kasuak daude, kontabilitate-erantzukizuna dela eta, hain zuzen ere baliabide publikoak kaltetzeagatik.

#### **Hemezortzigarrena. Sustapenen eta sozietatearen gastuak eta diru-sarrerak**

Aztertutako informazioaren arabera, 2012ko urriaren 20an sozietateak egin zituen etxebizitza-sustapenen gastuak eta diru-sarrerak hurrengo taulan ageri direnak dira:

<b>Egüés 21, S.A. ren sustapenak</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Diru-sarrerak	41.472.411
Gastuak	38.794.433
Sustapenen etekin gordina, 2012-10-20an	2.677.978

Diru-sarrerak etxebizitzaren salmentetatik eta bioklimatizaziorako bi diru-laguntzetatik heldu dira –batera, 1,03 milioi egiten dute–; exekutatuako gastuei dagokienez, hurrengo taulan xehakaturik ematen ditugu bi sustapenetako bakoitzari dagozkionak:

<b>Gastuak</b>	<b>1. sustapena</b>	<b>2. sustapena</b>
Lursailak	2.246.260	5.792.243
Eraikuntza	6.629.472	17.543.046
Lanbide-ordainsariak	341.686	1.094.735
Gastu orokorrak	444.504	1.254.538
Lizentziak	283.765	766.999
Finantza-gastuak	240.294	1.214.720
Beste gastu batzuk	268.097	674.074
<b>Guztira</b>	<b>10.454.078</b>	<b>28.340.355</b>

Aurreko informazioa NASIPAK sozietate mistoaren Administrazio Kontseiluari aurkeztu zion 2012ko urriaren 26an. Data horretan, saltzeko gelditzen ziren etxebizitza bat (harekin lotutako garajearekin eta trastelekuarekin), 42 garaje-plaza, zortzi trasteleku eta 10 etxabe; jotzen zen zergen ondotiko etekinak, elementu horien salmentarekin lor litezkeenak, 0,6 milioioak izanzen zirela.

Aurreko gastuak sozietatearen kontabilitatean jasotakoarekin alderatu dira, eta ikusi da azken horrek, horietaz gainera, hurrengo eragiketa garrantzitsuetatik heldu direnak jasotzen dituela:

- Sozietateen gaineko zergaren ordainketa, zeinak, guztira, 492.523 euro egin baitu. Sozietateak ehuneko 30eko tasa orokorra ordaintzen du.
- Andacelayk eta NASIPAK egindako fakturen zenbatekoa: haietan ez dago objetiboki jasota zein zerbitzu edo lan egin den. 1.766.667 euro egiten dute guztira (ikus hamaseigarren ondorioa).
- NASIPAK kudeaketa-komisioaren kontzeptu gisa gaineratik jaso duen kopurua, 85.765 eurokoa.

#### **Hemeretzigarrena. Egüés, 21 S.A. sozietatearen likidazioa eta azkentzea**

2013ko apirilaren 24an, sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiak erabaki zuen hasiera ematea sozietatea desegiteko eta likidatzeko prozedurari, sozietate-hartzekoaren kuantifikazioari eta ondasunen banaketarako proposamenari.

Desegiteari buruzko eskrituraren arabera, enpresaren sozietate-hartzekoa, data horretan, 1.045.986 eurokoa da. Honakoa da zenbateko horren xehapena eta bi akziodunen arteko banaketa (Andacelay –kapitalaren ehuneko 51– eta NASIPA –ehuneko 49–):

<b>Sozietate-hartzekoa</b>	<b>Zenbatekoa, guztira</b>	<b>Andacelay</b>	<b>NASIPA</b>
Saltzeko dauden ondasun higiezinak	937.915	479.255	458.660
Diruzaintza	83.583	54.200	29.383
Zordunak	24.488		24.488
<b>Guztira</b>	<b>1.045.986</b>	<b>533.455</b>	<b>512.531</b>

Honakoak dira ondasun higiezinaren banaketaren xehetasunak:

<b>Salmenta-banaketa egiteko dauden ondasun higiezinak</b>	<b>Andacelay</b>	<b>NASIPA</b>
Etxebizitza bat, garaje eta trastelekuarekin	125.654	
7 etxabe	353.601	
42 garaje plaza		252.000
8 trasteleku		48.000
3 etxabe		158.660
<b>Saltzeko dauden higiezinak, guztira</b>	<b>479.255</b>	<b>458.660</b>

Oharra: Zazpi trasteleku kenduta, gainerako guztia bigarren sustapeneko da.

Higiezin horietatik, etxebizitza alde batera utzita, gainerakoak ez daude lotuta etxebizitza babestuen salmentarekin.

NASIPAK aurkeztutako hasierako aurreikuspenetan, kalkulatu zen aurreko higiezinaren salmentaren balioa 2,46 milioikoa izanen zela, eta zergen ondorengo etekina, berriz, 1,17 milioikoa; aurrerago, 2012ko urrian, salmentari dagokion zenbatekoa 1,64 milioira jaitsi zen, eta etekina 0,6 milioitan kalkulatu zen. Azkenik, sozietatearen likidazioan –2013ko apirila–, arrazoizko prezio batean baloratu ziren, 0,94 milioitan; espero zen etekina ez da 0,10era iristen. Balioaren gutxitze hori lotuta dago higiezinaren merkatuan izan den beheranzko bilakaerarekin berarekin.

2013ko irailaren 24an, sozietatea ofizialki azkendu zen.

Txosten hau idazteko garaian, Andacelay sozietateak informatu digu sozietate mistoa desegin ondoren hari esleitutako higiezinetatik bakarra ere ez dela saldu.

Orain, soilik sustapenen emaitzei erreparatuko diegu<sup>26</sup>; horiek aintzat hartuta, hurrengo taulan alderatu ditugu zergen ondorengo espero ziren etekinak, NASIPAREN kalkuluen araberrakoak, ganbera honek bazkide bakoitzerako kalkulatu dituenekin (sozietate-hartzekoa, dibidenduak eta fakturen bidez banatutako etekinak kontuan hartuta). Hona ikusten dena:

<b>Sustapenetako etekinak</b>	<b>Espero zirenak</b>	<b>Kalkulatutakoak, Kontuen Ganbera</b>	<b>Aldea</b>
Andacelay	1.935.307	1.621.500	313.807
NASIPA	1.859.413	1.557.907	301.506
<b>Guztira</b>	<b>3.794.720</b>	<b>3.179.407</b>	<b>615.313</b>

Azken batean, hasierako aurreikuspenak ez dira bete –ehuneko 16 txikiagoak izan dira–, eta horren arrazoia da, batetik, optimista samarrak zirela eta, batez ere, higiezinaren krisiak saltzeko dauden ondasunetan izan duen eragina.

<sup>26</sup> Ikus zenbatekoak hamaseigarren ondorioan Espero ziren etekin horiei sozietateen gaineko zergaren ehuneko 30a aplikatu zaie

## IV.4. "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II, S.L." SOZIETATE PUBLIKO MISTOA

**Hogeigarrena. Sozietatearen eraketa**

Sozietate hori 2010eko martxoan eratu izanari buruz –eratzte-prozesua Andacelayk kudeatu zuen–, honakoa esan behar dugu:

- Prozedura irekia erabili zen, Europan publizitatea eginda. 2009ko abenduaren 4an argitaratu zen Kontratazio Atarian. Prozedura arautzen duten baldintzak Andacelay sozietateak onetsi zituen 2009ko azaroaren 26an.

- Zail gertatzen da ulertzea orri horietan ez dela jasotzen Erripagañako udalez gairik plan sektorialaren aldaketaren aurreikuspena, Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziazko Neurriak hartzeko 6/2009 Foru Legearen ondorioz, zeren eta arloko Kontentsazio Batzarrak jada 2009ko irailean egokitze hori onetsia baitzuen –eraikigarritasuna handitzea zekarren– eta jada hasita baitzegoen haren izapidetzea Nafarroako Gobernuan –2009ko azaroaren bederatziko erabakia–.

- Kontratuaren xedeak hiru elementu dauzka: Erripagañako A.1 lur-zatietan eraiki beharreko etxebizitzaren garapena eta sustapena; sustatu beharreko eraikinen proiektua eta obra zuzendaritza; eta Andacelay S.L.k sozietate berriari aipaturako lur-zatiak besterentzea.

Aurreko sozietate mistoaren eraketan ez bezala, prozedura horretan ez dira sartzen etxebizitzak eraikitzeo obrak.

- Proiektuak idazteko, ez dira aurreikusitako jarduketak zehaztuko dituzten baldintza teknikoak aipatzen; orriek Erripagañako udalez gairik plan sektorialaren araudiaren betetzea, etxebizitza babestuen kopurua eta hirigintza-proiektuaren egokitzapena besterik ez dute baloratzen. Komeni da gogoraraztea proiektuaren definizioa dela balorazio handiena duen irizpidea –eraikuntzaren planteamendu orokorra, 100 puntutatik 35 dituen–, bazkide pribatuaren hautapenaren barruan.

- Hautapen prozesura sei eskaintza aurkeztu ziren; ez dago dokumentaziorik 2. eta 3. gutun-azalak ekitaldi publikoan irekitzeari buruz –orrietan aipatzen zen bezala–. Gutun-azal horiek jarduketaren planteamenduari eta eskaintza ekonomikoari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

- Aurkeztutako eskaintzak ez dira homogeenak, zeren eta enpresa batzuek 2009ko moduluaren balioaren arabera eskaintza egiten baitute, eta beste batzuek 2010ekoaren arabera –azken hori txikiagoa da–.

- Kontratua NASIPAK aurkeztutako eskaintzari esleitzen zaio, zeren eta puntuazio altuena lortzen baitu. Sozietate horrek eskaintako datu nagusien artean, honakoan nabarmendu nahi ditugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
A.1.eko lur-zatietako lurzorua	3.262.961
Kalkulatutako etxebizitza kopurua	126
Proiektua idaztearen eta obra zuzendaritzaren kostua	507.000
Artekaritzaren edo salmenten kudeaketaren ehunekoa	%2

Lizitazio-balioekin duen lotura dela eta, lurzorua 4,72 egin zuen gora; proiektuaren konturako eta kudeaketa-komisiorako orrietan aurreikusitako balio txikiena eskaintzen da.

Halaber, zehaztu beharra dago bere eskaintzan NASIPAK bere gain hartzen duela lurzoria erosteko behar den kanpoko finantzaketaren kostua (horren barne dela eragiketarako sortutako



BEZa ), bai etxebizitzak eraikitzeko obretarako behar denaren kostua ere. NASIPAK puntuazio handiena lortu zuen, sozietaterako egin zuen finantzaketa-proposamena zela eta.

- 2010eko martxoaren 29an, Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietatea eratu zen. 3.100 euroko kapital soziala ezarri zen; kapital horren ehuneko 51 Andacelay, S.L.k harpidetu zuen, ehuneko 48,97 bazkide pribatuak (NASIPA, S.L.) eta ehuneko 0,03 Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietateak.

- Baldintzetako 13. oinarriari jarraituz, ezartzen da esleipen-hartzaileak 400.000 euroko fidantza bat jarri behar duela kontratuaren berme gisa. Gai hori dela eta, aztertutako dokumentazioaren arabera, honakoa ikusi dugu:

a) Oinarrian ez da arautzen fidantza hori nola eratuko den.

b) NASIPAK, berak egindako idazki baten bitartez, aipatzen du kontratuaren bermerako behin betiko fidantza gisa, epe finkoko 400.000 euroko ezarpena eratu duela Rural Kutxan, eta hura lagatzen diola Andacelayri onuradun gisa. Ez dago informazio gehiagorik, ez eta, bereziki, aipatutako finantza-entitatearen ziurtagiririk ere, non berariaz adierazten den Andacelay dela ezarpen horren onuraduna.

c) NASIPAREN aipatutako agirian, ezartzen da berme horri eutsiko zaiola sozietate mistoaren eratze-kontratua sinatu arte (2010eko martxoaren 29a); lehiaketako oinarrietan, ordea, aipatzen da berme gisa mantendu beharko dela kontratua gutziz exekutatu arte.

Horrenbestez, gure iritziz, fidantza jartzeko erabili zen tresnaren izaera ez zen baliozkoa, eta, gainera, ez zen kitatu behar sozietatea eratze hutsarekin; izan ere, kontratuak indarra zuen bitartean mantendu behar zen.

Iritzi hori berresteko balio du sozietate mistoak inguruabar hori NASIPAREN konkurtso-administratzaileari jakinarazi ziola. Azken horrek zor gisa aitortzen ez duen arren, bai kalifikatzen du esanez kreditu kontingente bat dela, zenbateko berekirik ez duena eta menpekoaren kalifikazioa duela.

### **Hogeita batgarrena. Sozietate mistoaren eratzetik bertatik eratorritako kontratazioak**

#### **Kudeaketa kontratua**

2010eko ekainean, sozietate mistoaren eta NASIPA bazkide pribatuaren arteko kudeaketa kontratua sinatu zen, funtsean aurreikusitako 138 BOEak sustatu eta saltzeko eta horretarako behar diren izapide administratiboak egiteko. Kontratu horren prezioa salmenten zenbatekoaren gaineko ehuneko biko finkatzen da, eta hartan sartzen dira bai salmenten kudeaketa bai sozietatearen beraren kudeaketa ere. Kontratu hori sozietate mistoko bi kontseilari pribatuek sinatu zuten, bata sozietate horren izenean eta bestea esleipen-hartzailearen izenean.

#### **Proiektua eta obra-zuzendaritza**

Gai horretan, jotzen dugu etapa egon direla. Lehenengoa Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoa eratze prozedura hasi aurrekoa; bigarrena, berriz, prozesu horretan zehar. Gogorarazi behar dugu prozesua 2009ko azaroan hasi zela.

A) Eratze-prozesua hasi baino lehen.

Aztertutako informaziotik ondorioztatzen da ezen, sozietatea eratze prozesua baino lehen, proiektua jada beste sozietate mistoak, Egüés 21, S.A.k, enkargatuta zegoela, eta bazkide pribatuak 206.250 euroko prezioan ordaindu zuela. Ez dago agiri bidez jasota inongo prozedurarik jarraitu izana publizitate eta lehia printzipioen betetzea bermatzeko.

Gainera, jada taxututa zegoen proiektu bat egoteak justifika lezake sozietate misto berria eratzeke prozesuan ez jasotzea Erripagañako udalez gairako plan sektorialaren aldaketari buruzko aurreikuspenik –jada hasita zegoen aldaketa hori–; halaber, NASIPARI lehiarako abantaila handia eman zion prozesu horretan.

B) Egüés 21-II sozietate mistoa bera eratu zenetik.

Eratzerako lehiaketa NASIPARI esleitu bazitzaion ere etxebizitzak egiteko proiektuaren erredakzioa eta obra zuzendaritza<sup>27</sup> 507.000 euroko prezioan, praktikan –eta hala jasota dago enpresa horrek aurkeztutako eskaintzan– kontratazio hori sozietate mistoaren eta arkitektoen taldearen artekoa da.

Halaber, haren zenbatekoa gorantz aldatu zen, lehen aipatutako lur-zatien eraikigarritasun-handitzearen ondorioz. Guztira, 606.372 euro egiten du. Kontratua formalizatu zen, aldaketa hori egin ondoren, 2010eko maiatzean. Proiektua erredaktatu zuen taldeak eta, sozietate mistoa ordeztuz, NASIPAK izendatutako kontseilarietako batek sinatu zuten.

Arkitektoen taldea Egüés 21, S.A. sozietate mistoak A atalean aipatutako kontratua enkargatu zion talde bera da, eta bera da, NASIPAREkin batera, Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoarekin batera eratze prozesura aurkeztu zena.

Aztertutako dokumentazioaren arabera, lehen esleipenean etxebizitzak eraikitzeke obren exekuzio materialerako aipatzen den aurrekontua 10,76 milioikoa da; sartutako aldaketarekin, exekuzioaren aurrekontu hori 12,37 milioikoa da. Zenbateko horri gehitu beharko litzaioke gastu orokorretarako eta industria-etekinerako ehuneko 13a. Horrekin, kontrataren amaierako aurrekontua 13,98 milioikoa da.

Proiektua erredaktatu zuen taldeak egindako ordainketak 643.997 eurokoak izan ziren; kopuru horretan sartzen dira segurtasunaren eta osasunaren arloko azterketaren eta koordinazioaren gastuak, 13.011 euro egiten dutenak, zeinak, gure ustez, kontratuaren prezioaren barruan baitzeuden.

Gainetik ordaindutako kopuru horrek baliabideak kaltetzen ditu, eta sozietateko administratzaileen sozietate-erantzukizuneko eta banakako erantzukizuneko ustezko kasu bat da, kontabilitate-erantzukizuna dela eta.

### **Hogeita bigarrena. Etxebizitzak eraikitzeke obren kontratazioa.**

Kontratazio prozesu horri dagokionez, gogorarazi behar dugu sozietatea eratzeke prozesutik independentea dela. Honakoa aipatuko dugu hari buruz:

- Sozietate mistoaren Kontseiluaren 2010eko uztailaren 30eko aktan aipatutako lur-zatietan onesten da babes ofizialeko 138 etxebizitza eraikitzeke lanak kontratatzeke prozedura arautuko duten baldintza-orriak Andacelay, S.L.k presta ditzala. Akordio hori onetsi zen NASIPAKo bi kideen abstentzioarekin, zeren eta *"lehiaketara aurkezteke asmoa baitute... eta ez baitute orrietan inongo eraginik eduki nahi"*. Hala eta guztiz ere nabarmendu behar dugu aurretik – 2010eko uztailaren 21ean–, Andacelayko Administrazio Kontseiluak orriak onetsi zituela, esleipen-prozedura erabaki zuela eta kontratazio-mahaiaren osaketa ezarri zuela.

- Andacelayk eskatuta, halaber, sozietate mistoaren bilkura horretan erabaki zen ezen lehiaketari buruzko *"dokumentazioaren prestaketa eta hura interesdunei ematea azkartzeke"*, proiektuak eta orriak NASIPAREN bulegoetan gordailatuko direla, haiek interesdunei emateko; halaber, ezartzen da eskaintzak bulego horietan aurkeztu beharko direla. Orrietan berariaz aipatzen da NASIPAREN posta-helbidea, nahiz eta helbide hori sozietate mistoaren helbide gisa identifikatzen den.

- Orrietan ezartzen den esleipen sistema prozedura irekiarena da, European publizitatea eginda eta esleipena eskaintzarik aldekoenaren alde eginez. Esleipenerako irizpide gisa ezartzen da

<sup>27</sup> Ez dago jasota proiektua erredaktatzeko eta obra zuzendaritzarako zenbateko horren xehakutzerik.

proposamen ekonomikoari 35 puntu bitarte emanen zaizkiola eta proposamen teknikoari, berriz, 65 puntu bitarte.

- 2010eko abuztuaren 10etik 13ra prozedura hori Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontratazio Atarian iragarri zen, 13,98 milioiko lizitazio prezioarekin<sup>28</sup>. Kontratazio mahaia lehendakari batek eta lau kidek osatzen dute: Andacelayko hiru kontseilari, proiektua erredaktatu duen arkitektoa eta udal arkitektoa.

- Prozedura horretarako hiru eskaintza agertu ziren –bazkide pribatuarena, besteren artean–; horietatik bat, ordea, baztertuta geratu zen baldintza-orrian eskatzen zen kaudimen ekonomikoaren ratioa betetzen ez zuelako. Baztertutako enpresa batek aurkeztutako erreklamazioa zela eta, mahaia txosten bat eskatu zion Udaleko aholkulari juridikoa eta kudeatzailea zenari, zeinak berretsi baitzuen enpresa ez onartzea legezkoa zela.

- Sozietate honen Kontseiluaren 2010eko urriaren 26ko aktan, lehiaketa publikoan lortutako puntuazioetan oinarrituz, babes ofizialeko 138 etxebizitza horiek eraikitze lanak NASIPA, S.L., enpresa mistoko bazkide pribatuari esleitzea erabaki zen, 11,88 milioitan (BEZik gabe), ehuneko 15 inguruko beherapen batez. NASIPAK izendatutako bi kontseilariak abstentzioa eman zuten. Nabarmendu behar dugu bi eskaintza-egileek proposamen ekonomiko berbera aurkeztu zutela, baina NASIPAK abantaila nabarmena hartu ziola besteari eskaintza teknikoan –61 puntu eta 30 puntu, hurrenez hurren–. Horri dagokionez, aipatu behar dugu balorazio teknikoaren txostenaren arabera –udal arkitektoak egina da–, NASIPAREN eskaintza askoz ere zehazkiago aztertuta dagoela obra horiek egiteko.

- Aurreko kontratua 2010eko abenduan formalizatu zen, eta bera sozietate mistoko bi kontseilari pribatuek sinatu zuten, bata sozietate horren izenean eta bestea esleipen-hartzailearen izenean.

- Kontratua "giltza eskura" prozeduraren bidez esleitu zen, eta ez zen inongo erreklamaziorik onartu eskaintako prezioak aldatzeagatik, neurketetan aldaketak izateagatik edo sozietate mistoak berariaz onetsi gabeko proiektuko akatsengatik.

- Aurreko kontratuaren data berean, eta eranskin gisa, haren aldaketa bat sinatu zuten, proiektuan aurrekusi gabeko obra-unitateengatik. 411.205 euroan zenbatetsi ziren haiek; hau da, esleipen-prezioaren gaineko ehuneko 3,46ko igoera izan zen. Horri dagokionez, NASIPA enpresak dio ezen aurreko obra-unitateak jada sartuta zeudela sozietatea eratzeko prozesuan aurkeztutako hobekuntza teknikoaren proposamenean; ez dago jasota sozietateko Administrazio Kontseiluak aldaketa hori onetsi izana. Obretarako aurreikusitako zenbatekoak –aldaketa hori barne– 12,29 milioi euro egiten du; zenbateko horretatik, guztira 10,88 milioi obraren exekuzio materialari dagozkie eta gainerakoa gastu orokorren eta industria-etekinaren ehuneko 13ari.

- Obrak 2012ko uztaietan amaitu ziren, eta ziurtatutako amaierako kostua 12,29 milioikoa izan zen; hain zuzen ere, horixe da aldaketa egin ondorengo esleipen-zenbatekoa.

- Kontratuan aurreikusitako bermeak. Orrietan bi berme mota ezartzen dira: kontratuaren esleipenari buruzko behin betikoa –esleipen-aurrekontuaren ehuneko lau, zeinari eutsi beharko baitzaio obrak behin betiko hartu arte– eta exekuzio materialaren aurrekontuaren ehuneko bost – obrak hartzeari buruzko akta egiten denetik gutxienez ere hiru urteko indarraldiarekin–. Horiei buruz, honakoak aipatu behar ditugu:

a) Kontratuaren fidantza. 2010eko abenduan, NASIPAK kontratuaren fidantza gisa 500.000 euroko epe finkoko ezarpen bat jarri zuen; fidantza hori, berak esaten duenaren arabera, sozietate mistoaren alde eratuta dago. Alderdi horrek, ordea, ez du finantza-entitatearen agiri-euskarririk. Hala eta guztiz ere, 2012ko martxoan, beste finantza-entitate baten abala aurkeztu zuen, 491.667 eurokoa eta urte bereko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin.

---

<sup>28</sup> Zenbatekoa bat dator proiektuan, hura aldatu ondoren, jasotakoarekin.

b) Ehuneko bosteko atxikipena. Ez dago jasota betebeharrak hori bete izana. 543.880 euro egiten zuen. Horri buruz adierazi beharra daukagu NASIParen konkurtso-administrazioak sozietate mistoak gai horri buruz zuen asmoa onartu zuela, eta kalifikatu zuela esanez kreditu kontingente bat zela, zenbateko berekirik gabekoa eta menpekkoa. Bestalde, aipatu beharra daukagu 2013ko apirilean iturgintza- eta elektrizitate-lanen azpi-kontratatistek gisa horretako obrak ehuneko zazpian abalatu dituztela.

Azken batean, hautapen-prozesua publizitatearekin eta lehiarekin egin zen arren, Ganbera honek honakoak nabarmendu behar ditu, printzipio horien aplikazio efektiboan eragin negatiboa izan dutelakoan:

- Eskaintzak egiteko behar zen dokumentazioa NASIParen egoitzan zegoen, eta eskaintza horiek egoitza horretan bertan aurkeztu behar ziren.

- Kontratazio mahaian proiektua erredaktatu zuena zegoen, eta hark merkataritza-harremana izana zuen NASIParekin, gutxienez ere bazkide pribatu horrek ordaindu zuen lehenengo proiektuaren erredakzioan eta sozietate mistoa eratzeko eskaintza aurkezterakoan. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago ezen, eskaintzak baloratzeko organo horren akten arabera, hura presente egotea soilik jasota dagoela 1. gutun-azala –"Dokumentazio tekniko eta administratiboa"– irekitzeko unean.

- Esleipen-hartzaileak orrietan exijitutako bermeak ez betetzea, bereziki obra-ziurtagiriei buruzko atxikipenei buruzkoak; fidantzarik ez egote hori kontabilitate-erantzukizuneko kasu bat izan daiteke. Horri dagokionez, Andacelayk informatutakoaren arabera, eraikuntza-arazo batzuk antzematen ari dira etxebizitzaren eraikuntzan, eta haien konponketa berme horiekin finantzatu beharko zen.

#### **Hogeita hirugarrena. Udalari ordaindutako EIOZa eta obra lizentziak**

Udalak emandako informazioaren arabera, hasiera batean etxebizitzaren sustapen horrengatik ordaindutako EIOZak –aurrekontuaren gainean aplikatzekoa den ehuneko 4,8ko tasa– eta obra lizentziak –ehuneko 0,2ko tasa– 0,62 milioi egin zuten. Kalkulu hori egin zen aldatutako proiektuan aurreikusitako obraren exekuzio materialeko aurrekontua –12,37 milioi– oinarri hartuta.

Obren amaierako exekuzioa –2012ko uztaila– 10,88 milioikoa izan zen, eta horrek aurreko kontzeptuengatik behin betiko zergapetzea suposatu zuen, 0,54 milioikoa.

2012ko otsailean, sozietate mistoak idazki bat aurkeztu zion Udalari, bere garaian ordaindutako EIOZaren berrikuspena eskatze aldera. Udalak erantzun zuen esanez data horretan obrak amaitu gabe zeudela eta, horrenbestez, amaierako likidaziorik ez zegoenez, une horretan ezin zela inongo berrikuspenik egin; hori, halere, ez zen eragozpena amaitzen zirenean haiek erregularizatzeko.

Bestalde, 2012ko urrian, sozietate mistoko Administrazio Kontseiluak erabaki zuen Udalak ez zuela zerga horren kontzeptuan inongo zenbatekorik itzuli behar.

#### **Hogeita laugarrena. Mailegusetatik eratorritako finantza-gastuak**

Sozietate mistoa eratzeko prozesuan aurkeztutako eskaintzaren arabera, NASIPAK bere gain hartuko zituen bai sozietate mistoak lursailak erosteko gastua eta haren BEZa, bai etxebizitzak eraikitze gastua finantzatzeko zorpetzetik heldutako finantza-zama guztiak ere.

Hala eta guztiz ere, finantzaketa horretatik heldutako gastuak sozietate mistoari egotzi zitzaizkion, sustapena zela-eta hark jasan beharreko beste gastu bat balira bezala. Kontabilitatean ez dago jasota NASIPAK kontzeptu hori dela-eta sortutako zorra.

Sozietatearen kontabilitatearen arabera, finantza-gastuek, 2013ko azaroaren amaierara arte, 1,20 milioi euro egin dute.

NASIParen hartzekodunen konkurtsoan, Udalak/Andacelayk konkurtsoko administratzaileari gastu horiei buruzko informazioa eman zioten; izan ere, 2010etik 2013ko ekainaren 14ra arte –egun horretan deklaratu baitzen hartzekodunen konkurtsoaren autoa– 1,09 milioi egin dute gastu horiek, honako xehetasun hauen arabera:

Sortutako interesak	Zenbatekoa
2010	256.703
2011	229.225
2012	507.326
2013ko ekainaren 14ra arte	95.928
<b>Guztira</b>	<b>1.089.182</b>

Zenbateko horretan sartzen dira bai errentamendu gastuak, bai finantza-gastuak ere, eta aipatutako administratzaileak zor gisa aitortua du; alabaina, bi enpresa horien artean dagoen sozietate-lotura dela-eta, menpeko zor gisa deklaratu da.

Halaber, eskatu zitzaion maileguak 2013ko ekainaren 15etik abuztuaren 30era sortutako interesak aitortzeko; 57.817 euro egiten dute interes horiek. Zor hori ez zen une horretan aitortu, eta aitortuko balitz, konkurtso-administrazioak aipatzen duen bezala, masaren aurkako kreditua dela joko litzateke.

Azken batez, azaldutako egoera, kontratua dela-eta NASIParen ez-betetze bat izateaz gainera, sozietate mistoaren aldetik, diligentzia falta bat izan da funts publikoen erabileran eta kontabilitate-erregistroan, eta Administrazio Kontseiluari exijitzekoa zaio. Diligentzia falta horrek eragin du baliabideak 1,20 milioi inguru kaltetu izana, eta sozietateko administratzaileen sozietate-erantzukizuneko eta banakako erantzukizuneko ustezko kasu bat da, kontabilitate-erantzukizuna dela eta.

Bestalde, sozietate mistoaren arduradun berriek azterlan bat enkargatu dute aurreko finantza-gastuek sozietateen gaineko zergan daukaten eraginari buruz, zeren eta enpresaren diru-sarrera direla jotzen baitute. Azterlan horren arabera, 2010etik 2012ra bitarteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergan izan duen eragina, kasuko errekaruak barne, Foru Ogasunari ordaindu beharreko 0,3 milioi eurokoa da.

### **Hogeita bosgarrena. NASIPari ordaindutako kudeaketa-gastuak**

Eraketa-kontratuaren arabera, bazkide pribatuak, NASIPak, sozietatearen kudeaketa integralaren eta merkataritza-jarduketan truke portzentaje bat jasoko du, hain zuzen etxebizitzaren salmenta-prezioaren ehuneko bi.

Sozietate mistoaren kontabilitatean, kontzeptu hori dela-eta honako fakturen oharrak ageri dira:

Ekitaldia	Kontzeptua	Kontabilitate-kontua	Zenbatekoa
2011	NASIPA, salmenten kudeaketa	Enpresen aholkularitza eta salmenten kudeaketa	400.000
2011	NASIPA, salmenten kudeaketa	Enpresen aholkularitza eta salmenten kudeaketa	148.000
2012	NASIPA, salmenten kudeaketa, deuseztatzea	Enpresen aholkularitza eta salmenten kudeaketa	-148.000
2013	NASIPA, salmenten kudeaketa, itzulketa	Enpresen aholkularitza eta salmenten kudeaketa	-108.189
<b>Guztira</b>			<b>291.811</b>

Aurreko zenbateko horiek kontabilitatearen araberako salmenten zenbatekoari ehuneko bira aplikatuz heldu denarekin -16,17 milioi- alderatu ditugu, eta ateratzen da NASIPAK kontzeptu horrengatik 31.544 euro jasotzeko dituela, guztira.

Bestalde, 2012an etorkizuneko salmentak direla-eta aurrerakin edo komisio-hornidura bat ematen zaio, 153.199 eurokoa. Zenbateko hori sozietate mistoak zor gisa erreklamatu du NASIPAREN hartzekodunen konkurtsoan.

Erregularizatzeko daude hartzekodunen konkurtsoa hasi zenetik egin diren salmentetatik heldutako zenbatekoak.

### **Hogeita seigarrena. NASIPA, S.L.ren hartzekodunen konkurtsoa eta sozietate misto horretan izan duen eragina.**

NASIPAREN borondatezko konkurtsoaren prozeduraren barruan, Egüés 21-II sozietate mistoak eta Udalak konkurtso-administrazioari jakinarazi zizkieten 2,26 milioi euro egiten duten zorrak; kopuru horretatik, aipatutako administrazioak guztira 1,26 milioi aitortu zituen behin-behineko, eta menpeko zortzat kalifikatu ziren. Hona haien xehetasunak:

- Obren exekuzioaren aurrerakina. Geroan erosleek ukoaren ondorioz deuseztatuko ziren etxebizitzaren salmentetatik NASIPAK jasotako komisioen hornidurari dagokio (ikus hogeita bosgarren ondorioa). Zor hori NASIPAREN 2013ko urriaren 31ko balantzean ageri zen, 153.178 euroko kopuruarekin; alabaina, sozietate mistoak guztira 153.199 euro erreklamatu ditu; azken zenbateko hori konkurtso-administrazioak onartzen duena da.

- Publizitate-gastuak. Kontzeptu horretan biltzen da sozietate mistoa eratzeko lehiaketan NASIPAK bere gain hartzen zituela sustapenaren publizitate-gastu guztiak. Zor hori, 17.526 euroan zenbatetsi dena, ez zegoen jasota ez NASIPAREN kontabilitatean, ez aldeko kreditu gisa sozietate mistoaren 2012ko abenduaren 31ko kontabilitate erregistroetan. Alabaina, konkurtso-administrazioak emandako dokumentazioan aitortuta dago.

- Finantza-gastuak. Hogeita laugarren ondorioan iruzkindu den bezala, jatorri hauxe dute gastu horiek: NASIPAK, bere eskaintzan, bere gain hartzen zuen maileguen finantza-zama. 2013ko ekainaren 14ra arte 1.089.182 euro egiten zuten guztira. Zor hori ez zen ageri NASIPAREN kontabilitatean, ez eta aldeko kreditu gisa ere sozietate mistoaren kontabilitatean. Konkurtso-administrazioak, ordea, aitortua du, aurkeztutako dokumentazioaren arabera.

Aurreko zor horiek menpeko zortzat kalifikatu izanak haien ordaintzeko garaian azken tokian kokatzen ditu; ordaintza hori, beraz, egingen da masaren eta konkurtso-kredituen aurkako gainerako zorrak guztiz ordaintzen direnean.

Gainera, sozietate mistoak honako zorrak aurkeztu zituen:

- Maileguen finantza-gastuak, 2013ko ekainaren 15etik abuztuaren 30era bitartekoak: 57.817 euro egiten dute. Zor hori, zeina ez baitago kontabilitatean erregistratuta ez NASIPAN, ez sozietate mistoan, aldeko kreditu gisa, konkurtso-administrazioaren ustez ezin da aitortu, eta aitortuko balitz ere masaren kontrako kreditutzat hartuko litzateke.

- Sozietate mistoa eratzeko abalak, 400.000 euro egiten dutenak (ikus hogeigarren ondorioa). Konkurtso-administrazioak zor gisa aitortzen ez duen arren, bai kalifikatzen du esanez kreditu kontingente bat dela, zenbateko berekirik ez duena eta menpekoaren kalifikazioa duena.

- Exekutututako obren gaineko atxikipenengatik abalak, 543.880 euro egiten dutenak (ikus hogeita bigarren ondorioa). Konkurtso-administrazioak aurrekoa bezala kalifikatzen du; hau da, haren arabera, kreditu kontingentea, zenbateko berekirik gabea eta menpekoa da.

Laburbilduz, aurreko egitateek agerian jartzen dute, lehenbizi, NASIPAK ez dituela bete sozietate mistoa eratzeko kontratutik beretik eratortzen diren kontratu-betebeharrak; bestetik, ez da kontrolik egon edo diligenzia falta bat izan da sozietate misto horretako sozietate-organoen aldetik kudeaketari eta kontabilitateari dagokienez, eta horretan merkataritza-esparrua eta

kontabilitate-erantzukizuna direla-eta sozietate-erantzukizuneko nahiz banakako erantzukizuneko kasu bat egon daiteke.

2013ko abenduan, sozietate mistoak hartzekodunen zerrenda aurkatzeko intzidente-demanda bat aurkeztu zuen, eskatuz aipatutako finantza-gastuei zegokien 57.817 euroko kreditua sartzeko eta aitortzeko, eta kreditu hori masaren aurkako kreditu kalifikatzeko; gainerako kredituei dagokienez, ontzat ematen du konkurtso-administrazioak emandako aitortpena eta kalifikazioa. 2014ko otsailean, epaitegiak tramitera onartu zuen konkurtso-intzidente hori, eta hura ebazteko zain gaude.

Halaber, sozietate mistoko egungo arduradunen asmoa da saltzeko dauden higiezin merkaturatzearen gaineko kudeaketa berreskuratzea, hartara deuseztatuz hura bazkide pribatuari esleitzen dion kontratua.

Azkenik, adierazi behar dugu konkurtso-administrazioaren aipatutako txostenak merkatu prezioen arabera milioi bar euroan baloratzen duela NASIPAK Egüés 21-II sozietatean duen partaidetza (ehuneko 48,97). Kopuru hori sozietatearen kapitalean duen partaidetzari -1.518 euro- eta dibidendu aktiboei -998.482 euro- dagokie.

#### **Hogeita zazpigarrena. Sustapenaren gastuak eta diru-sarrerak**

2013ko urtarrilean sozietateak sustapena zela-eta exekutatu zituen gastuak hurrengo taulan ageri dira, NASIPAK sozietatearen Administrazio Kontseiluari aurkeztutako informazioaren arabera:

<b>Promoción Egüés 21-II</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Diru-sarrerak	15.216.911
Gastuak	19.401.102
Emitza gordina 2013ko urtarrilean	-4.184.191

Data horretan, informazio horren arabera, gastuen ehuneko 99 beteta zegoen, eta kalkulatu zen 125.652 euroko gastuak egiteko gelditzen zirela. 2013ko urtarrilera arte betetako gastuak honako taulan ageri dira xehakaturik:

<b>Gastuak</b>	<b>A-1 lur-zatiak</b>
Lursailak	4.055.350
Eraikuntza	12.291.677
Lanbide-ordainsariak	643.691
Gastu orokorrak	400.000
Lizentziak	711.908
Maileguen finantza-gastuak	864.428
Aseguruak eta abalak	233.911
Beste gastu batzuk	200.137
<b>Guztira</b>	<b>19.401.102</b>

Diru-sarreretan, betetze maila ehuneko 63koa da. Ehuneko txiki horren arrazoia da oraindik ere saltzeko daudela 49 etxebizitza (garajea eta lotutako trastelekua barne), 16 garaje-plaza eta hiru etxabe<sup>29</sup>. Jotzen zen aurreko elementuak salduz eta beste diru-sarrera batzuen bitartez 8.955.682 euroko diru-sarrerak lortuko zirela.

<sup>29</sup> Alabaina, gero lokaletako bat bitan bereizi zen.

Aurreko taulan kalkulu horiei erreparatuz gero, honakoa lortuko dugu:

<b>Promoción Egûés 21-II</b>	<b>Amaierako kalkuluen zenbatekoa</b>
Diru-sarrerak	24.172.593
Gastuak	19.526.754
Kalkulatutako emaitza gordina	4.645.839

Sustapena dela-eta kalkulatutako etekin gordinak, horrenbestez, 4,65 milioi egingen lukete; hau da, gastu-bolumenaren ehuneko 23,79 edo guztizko diru-sarreraren ehuneko 19,22.

Azkenik, NASIPAK, aurkeztutako eskaintzaren arabera, gastu horien balorazioa behar baino 1,21 milioi handiagoak dira, eta gastu kopuru hori NASIPAREN kargura lirateke eta ez sozietate mistoaren kargura.

Txosten hau idazteko garaian, guztira 21 etxebizitza eta etxabe bat saldu dira, guztira 2,82 milioi egiten dutenak; horrenbestez, saltzeko gelditzen dira 28 etxebizitza, hiru etxabe eta 16 garaje-plaza.



## V. LABURPENA EDO AMAIERAKO LABURBILTZEA

Amaierako laburpen gisa, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Udalak, bere burua antolatzeko daukan gaitasunaren eta bere autonomia funtzionalaren indarrez, erabaki zuen guztiz Udalarena izan zen sozietate publiko bat sortzea –Andacelay, S.L.–, zenbait eskumen garatzeko. Eskumen horiek eraikuntzaren arloa zuten ardatz, bai ekipamendu publikoei, bai etxebizitza babestuari dagokienez.

Azken lan hori bazkide pribatuarekin –NASIPA– batera exekutatu zen. NASIPAk etxebizitzen eraikuntza kudeatzeari buruz daukan gaitasuna eta ezagutza jarri zituen, eta hori guztia hurrengo bi sozietate mistoak eratzearekin formalizatu zen, bietan ere arlo publikoak partaidetzaren gehiengoa zuela: Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. eta Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.

- Andacelay sozietate publikoaren jarduera finantzatu zen Udalak lurzorua udal ondareko lur-zatiak dohainik lagatzearen bidez. Izan ere, lur-zati horiek gero sozietate mistoei besterendu zitzaizkien. Azken horiek, berriz, eraikitako etxebizitzen salmentaren bitartez finantzatzen ziren.

- Hiru sozietate publikoetatik bakarrak ere ez zizkion bere buruari eman bere jarduketak garatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak. Izan ere, jarduera guztia kanpoan kontratatu zuten. Sozietate mistoen kasuan, kudeaketa integrala bazkide pribatuak egin zuen, haiek eratzekeo prozesuetan jasotakoaren arabera, eta horren truke etxebizitzen salmentaren gaineko komisio bat jaso zuen.

- Kargu publikoek osatzen dute, guztiz, Andacelay sozietate publikoaren Administrazio Kontseilua, eta gehiengoa dira sozietate mistoetan.

- Bateratuta, hirur sozietateek 70 milioi inguru egiten duten gastuak egin dituzten. Gastu horiek honakoetan gauzatu dira: udal ekipamendu berriak egitea –udal eraikina eta igerilekuak– eta 366 etxebizitza babestu eraikitzea. Zenbateko hori honela xehakatzen da:

Inbertsioa	Sozietate egilea	Zenbatekoa
Udal ekipamenduak	Andacelay, S.L.	7.990.352
228 etxebizitza babestu eraikitzea	Egüés 21, S.A.	41.161.260
138 etxebizitza babestu eraikitzea	Egüés 21-II, S.L.	20.899.266

Txosten hau idazteko egunean, guztira 29 etxebizitza saltzeko daude.

- 2013an, Egüés 21, S.A. sozietate mistoa desegin eta likidatu da; enpresaren sozietate-hartzekoa 1,05 milioikoa da, eta bi bazkideen artean banatu da, sozietatearen kapitalean daukaten partaidetzaren arabera; hartara, Andacelayri 533.455 euro egiten duten ondasunak egokitu zaizkio eta NASIPARI, berriz, 512.531 euro egiten dutenak.

- Halaber, 2013an, NASIPAk hartzekodunen borondatezko konkurtsoa deklaratu zuen, eta –konkurtso-administrazioaren txostenari jarraituz– prozesuan Egüés 21-II, S.L.ren aldeko zor-bolumen handia azaleratu zen, 1,26 milioi eurokoa. Zor hori, funtsean, ez zegoen erregistratuta bere kontabilitatean kobratzeko eskubide gisa. Zor hori menpeko zortzat kalifikatu du konkurtso-administrazioak. Hori dela eta, azken tokian dago kobratzeari dagokionez.

- Oro har, ondoriozta dezakegu udal organoek ez dutela sozietate horiek egindako jardueren gaineko kontrol egokirik egin, bereziki sozietate mistoei dagokienez, legezketasun, publizitate, gardentasun, kudeaketa egoki, tratu-berdintasun eta interes orokorrari egokitzea printzipioak zorrotz beteko zirela bermatze aldera. Bestalde, egindako jarduketak ez zitzaizkien helarazi Udalaren barne kontroleko organoei, fiskaliza zitzan eta haiei buruzko aholkua eman zezan.

• Sozietate horiei aplikatzekoa zaien araudiaren ez-betetze nagusi gisa, honakoak azpimarratuko ditugu –haietatik, izan ere, erantzukizun juridikoko ustezko aztarnak ondoriozta daitezke–:

A) Kontratazio administratiboaren arloan, sozietate publikoek –bereziki mistoek–, Kontuen Ganberak bere txostenetan jada adierazten zuen bezala, ez dituzte errespetatu, oro har, publikitate eta lehia printzipioak, eta kasu jakin batzuetan bazkide pribatuaren alde egin dute. Baieztapen hori, halere, zehaztu egin behar da, eta hala:

a) Lehenengo sozietate mistoa eratzeko prozesuari buruzko publizitatea oso modu mugatuan egin zen, eta gero haren eraikuntza-jardueraren esparrua beste lur-zati batera zabaldu zen, betiere orrietan zabalpen hori arautzen zuten oinarritzko baldintzak jaso gabe.

b) Bigarren sozietate mistoaren sorreran, bazkide pribatuari exijitu zitzaizkion bermeak azken horrek deuseztatu zituen alde bakarretik, sozietate hori formalki eratu zenean, kontratuaren indarraldiaren amaierara itxaron gabe. Gainera, bazkide pribatuak ez zuen bete sozietate mistoak hartu beharreko kanpoko finantzaketatik eratorritako finantza-gastuak zirela-eta egina zuen eskaintza.

c) Aztertutako informaziotik badirudi eratoritzen dela etxebizitzan 3. sustapenari buruzko proiektu teknikoa hautapen prozesua hasi aurretik kontratatuta zegoela.

d) Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren 2. sustapeneko obren bazkide pribatuaren aldeko esleipena gauzatu zen hiru enpresari gonbita egitearen bitartez; hiru horien artean dago bazkide pribatua, zeina, azkenean, esleipen-hartzaile suertatuko zen; lehia publikora jo behar zen, ordea. Gainera, bazkide pribatuaren ordezkari batek kontratazio mahaiko buru gisa jardun zuen, eta ez dago agirietan jasota eskaintza horiei buruzko eztabaida prozesuan abstentzioa eman zuenik.

e) Egüés 21-II sozietate mistoaren sustapeneko eraikuntza-obrak esleitzeari begira, orriek bazkide pribatuaren posta-helbidea aipatzen dute bai proiektua eta orriak gordailatzeari begira, bai eskaintzak aurkezteari begira. Bazkide hori suertatu zen obra horien esleipen-hartzaile.

f) Hiru sustapenetako etxebizitzak eraikitzeako obretan –bazkide pribatuari esleitu zitzaizkien hirurak– ez zen ziurtagirien atxikipenik ezarri ez eta beste formularik ere egindako obraren egokitasunari buruzko berme gisa –Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren kasua– edo ezarrita ere ez ziren bete –beste sozietate mistoaren kasua–.

g) Etxebizitzak eraikitzeako obrak prezio itxi edo itundu baten arabera esleitu ziren. Prezio hori ezin izan zen inolaz ere aldatu, exekutututako unitateen kopurua eta haien neurketa zein ziren ere; esleipenaren zenbatekoa zehatz egiten zuen ziurtagiria egin zen. Ezin da kontrastatu egiazki egindako obren kostua benetakoa den.

B) **Tributu**en arloan, nabarmendu behar dugu bazkideek zenbait faktura egin zituztela Egüés 21, S.A.ren aurka; ez dago jasota faktura horiek bat datozen egiazki exekutututako gastu batekin edo/eta egiazki emandako zerbitzu batekin.

C) **Sozietatearen edo merkataritzaren** esparruan, zergei dagokien gaiaz aparte, nabarmendu behar dugu bazkide pribatuak behar baino diru gehiago jaso zuela lehenengo sozietate mistoaren kudeaketa-komisioa dela-eta; halaber, nabarmentzekoa da bazkide horrek ez zuela bere eskaintza bete, zeren eta ez baitzituen bere gain hartu bigarren sozietate mistoak egindako finantza-gastuak. Gastu horien zenbatekoa ez zen kontabilitatean jasotzen aipatutako sozietate mistoaren aldeko eskubide gisa.

D) **Kontabilitate erantzukizuneko aztarna** gisa, baliabide publikoak kaltetzeagatik, sozietate-esparrutik heldutakoez eta lehentasunezko partaidetzak erosteko eragiketaz gainera, aipatu behar ditugu, batetik, Andacelay, S.L.ren aurreko ahaldunak lansariak jaso zituela –bateraezinak dira lansari horiek Udaleko zinegotzia izatearekin eta arduraldi eskusiboa duen udalbatzako kide izatearekin–, eta, bestetik, bigarren sozietate mistoak exekutututako obren gaineko bermerik ez izatea, Andacelayk ez erreklamatzeko lur-zati baten finantzaketa partzialaren ondorioz jaso ez

zituen diru-sarrera finantzarioak, eta 3. sustapeneko proiektuaren erredaktoreek behar zenaz gainetik ordaindutako diru kopurua.

- Kontuen Ganberak, enpresa publikoak fiskalizatzeko bere jarduketetan, bere egiten ditu, oro har, auditoria enpresa pribatuek urteko kontuei buruz egindako auditoria-txostenak. Eguesibarko Udalaren enpresa publikoen kasuan, ordea, erakutsi da lan horiek ez direla nahikoak egiaztatzeko eta kontrastatzeko egindako kudeaketa publikoa hari exijitzekoak zaizkion oinarrizko printzipioen arabera egin den.

- Esparru judizial eta tributu-esparruetan zabaldutako jarduketek, eta etxebizitzaren eraikuntza obren gaineko bermerik ez izateak beraiekin ekar dezakete Udalak eta haren sozietate publikoek kontingentzia ekonomikoak pairatzea; une hauetan, ordea, zenbatezinak dira horiek.

Sozietate publikoek garatutako jarduketak eragin positiboak izan ditu bai tokiko sektore publikoaren ondarean –Udalarena eta haren sozietateena batera hartuta–, bai bazkide pribatuaren ondarean ere.

Ganbera honek egindako kalkuluen arabera, kontabilitate-informazio metatua –ez bateratua– abiapuntu hartuta, eta gure lanean eragina izan duten mugak kontuan hartuta, honakoak izanen lirateke ondare-aldaketa horiek<sup>30</sup>:

#### A) Eguesibarko Udalaren sektore publikoa.

Udalaren sektore publikoak , 0,16 ,milioiko finantza inbertsioarekin eta 9,49 milioi euroan baloratutako lur-zatien lagapen batekin, 4,53 milioiko ondare-gehikuntza garbia izan du . Kopuru hori heldu da bai udal ekipamenduen eraikuntzatik, bai sozietateen emaitzetatik ere. Hona xehetasunak:

Eguesibarko Udalaren sektore publikoa	Gutxitzeak	Gehikuntzak
Udalak lur-zatiak lagatzea	9.490.164	
Inbertsio finantzarioa	159.051	
Udal ekipamenduak		7.762.549
Sozietate publikoek jasotako dibidenduak		1.828.307
Andacelayren ondare garbia, 2013ko abenduaren 31n (ehuneko 100)		3.935.255
Egüés 21-II-ren ondare garbia, 2013ko uztailaren 31n (ehuneko 51,03)		656.675
Guztira	9.649.215	14.182.786
Ondare garbiaren hazkuntza, guztira	4.533.571	

Aurreko emaitzak alderatzen baditugu hirugarrenei lur-zatien salmenta publikoa egiteko egoera hipotetiko batekin, tarteko sozietate publikoak eratu gabe, salmenta-prezioa Udalaren zerbitzu teknikoek haiei emandako balioaren balioakidea izanen litzateke –9,49 milioi euro–, zeren eta hura kalkulatu baitzen kontuan hartuz lurzoruak etxebizitza babestuko tipologia desberdinen salmenta-prezioan izanen zuen gehieneko eragina. Hipotesi horren arabera, udal ondarearen gehikuntza garbia 1,73 milioikoa izanen zen, behin aipatutako ekipamendu berrien eraikuntzaren kostua kenduta; hau da, amaierako emaitza 2,83 milioi txikiagoa izanen zen.

Aurreko taulak, Egüés 21-II sozietate mistoaren ondare garbiaren barruan, ez ditu biltzen NASIPAREN hartzekodunen borondatezko konkurtsoaren prozeduran zehar azaleratutako zorrak, 1,26 milioian baloratu direnak, zeren eta ez baitira birformulatu haren urteko kontuak, kontuan hartuz, gainera, zor hori menpeko zor gisa kalifikatu dela.

#### B) NASIPA bazkide pribatua

<sup>30</sup> Kontuan hartu beharra dago aztertutako eragiketak hainbat urtetan egin direla, eta urte horietan etxebizitza babestuen salmenta-moduluek balorazio desberdinak izan dituztela.

Bazkide pribatuak, 0,15 milioiko finantza-inbertsioarekin, bere ondarea 7,35 milioian handitu du. Kopuru hori heldu da bai sozietate mistoetan zeukan partaidetzatik, bai bere eraikuntzako eta etxebizitzaren sustapeneko jardueratik bertatik ere. Hona xehetasunak:

<b>NASIPA</b>	<b>Gutxitzeak</b>	<b>Gehikuntzak</b>
Inbertsio finantzarioa	148.518	
Sozietate-hartzekoa Egüés 21, S.A. desegitean		512.531
Egüés 21, S.A.k jasotako dibidenduak		179.709
Etekin gordinen fakturen bidezko ustezko banaketa, Egüés 21, S.A.		865.667
Egüés 21, S.A.ren kudeaketa-komisioa		1.699.042
Etxebizitzaren eraikuntzaren industria-etekina (ehuneko 5), Egüés 21, S.A.		1.208.626
<b>Egüés 21, S.A., guztira</b>		<b>4.465.575</b>
Egüés 21-II, S.L.k jasotako dibidenduak		132.840
Egüés 21-II, S.L.ren kudeaketa-komisioa		400.000
Etxebizitzaren eraikuntzaren industria-etekina (ehuneko 5), Egüés 21-II, S.L.		614.584
Sustapenaren gastua, bere kargura hartu behar zuena		1.259.616
Egüés 21-II, S.L.ren ondare garbia, 2013ko uztailaren 31n (ehuneko 48,97)		630.167
<b>Egüés 21-II, S.L., guztira</b>		<b>3.037.207</b>
Guztira	148.518	7.502.782
<b>Ondare garbiaren hazkuntza, guztira</b>	<b>7.354.264</b>	

Baldin eta bazkide pribatu hori mugatu izan balitz soilik etxebizitzaren sustapen- eta eraikuntza-jarduerara, haren ondare-gehikuntza 3,92 milioikoa izanen zen, hau da, 3,43 milioi txikiagoa.

Azken batez, Udalak eta haren bazkide pribatuak lortutako ondare-gehikuntzak heldu dira etxebizitzak eraiki eta sustatzeko sozietate mistoen formula erabiltzetik. Formula horren pean, bi bazkideek beren gain hartu zuten jarduera horretatik heldutako arriskua eta, etxebizitza ia guztiak saldu direla kontuan hartuta, arrisku horrek emaitza handiagoa ekarri du.

Azkenik, esan behar dugu otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legeak<sup>31</sup>, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea aldatzekoak, artikulua berria sartu duela –zortzigarrena bis– kapital mistoko sozietateekiko kontratuak berriaz arautzeko. Besteak beste, araupetze horretatik, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Sozietate mistoaren xedea soilik kontratuan zentratuko da eta entitatea hura gauzatu ondoren azkenduko da.
- Orriek jaso behar dute zer elementu arautuko duten, batetik, entitate esleipen-egilearen eta bazkide pribatuaren arteko kontratu-harremana, eta, bestetik, entitate esleipen-egilearen eta sortzen den kapital mistoko toki entitatearen arteko harremana.
- Sozietate mistoak baliabide material eta tekniko egokiak eduki beharko ditu kontratuaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat exekutatzeko.
- Egindako azpi-kontratazioek ezin dute gainditu kontratuaren prezioaren ehuneko 50a.

<sup>31</sup> NAO 2013ko martxoaren 4an argitaratu zen, eta biharamunean hartu zuen indarra.

Sozietate mistoekiko kontratuaren diseinu berri hori ez zaie aplikatuko, logikoa denez, Eguesibarko Udalaren aztertutako kasuei, baina bai osatzen dute haietan aurkitutako alderdi eta gabezi garrantzitsuen araupetzea.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko ekainaren 25ean  
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

## 1. ERANSKINA. EGUESIBARKO UDALAREN SOZIJETATE PUBLIKOEN BALANTZEAREN ETA EMAITZEN KONTUAREN BILAKAERA

## A) ANDACELAY, S.L.

## Egoera-balantzea

## Aktiboa

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>A. Aktibo ez-korrontea</b>	153.000	153.000	155.046	260.079	1.858.230	154.914	154.581	154.581	2.822
Ibilgetu materiala eta ez-materiala			2.046	107.079	1.705.230	333			731
Epe luzeko finantza-inbertsioak	153.000	153.000	153.000	153.000	153.000	154.581	154.581	154.581	2.091
<b>B. Aktibo korrontea</b>	2.102.491	7.619.372	8.658.657	12.398.726	11.743.445	14.395.112	3.441.989	3.423.309	3.940.334
Izakinak		4.743.854		2.484.612	2.484.612	7.180.460			478.336
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	2.591	768.125	385.114	598.582	671.981	950.995	23.723	32.667	250.305
Finantza-inbertsioak epe laburrera			2.516.000	9.032.391		3.858.000	1.111.150	1.033.983	474.000
Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioideak	2.099.900	2.107.392	5.757.543	283.141	8.586.853	2.405.657	2.307.116	2.356.659	2.737.612
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>2.255.491</b>	<b>7.772.372</b>	<b>8.813.704</b>	<b>12.658.805</b>	<b>13.601.675</b>	<b>14.550.026</b>	<b>3.596.570</b>	<b>3.577.890</b>	<b>3.943.156</b>

## Ondare garbia eta pasiboa

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
<b>A. Ondare garbia</b>	2.245.781	7.008.851	8.567.840	12.124.029	12.447.109	13.140.015	3.591.050	3.571.016	3.935.255
Kapitala	4.000	4.000	4.000	4.000	4.000	4.000	4.000	4.000	4.000
Erreserbak		2.241.781	2.278.310	8.563.840	9.620.923	9.697.498	3.592.400	3.592.400	3.366.400
Aurreko ekitaldierako emaitza								-5.350	-25.384
Ekitaldiko emaitza	2.241.781	37.329	6.284.730	1.071.578	337.575	3.438.517	-5.350	-20.034	590.239
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak				2.484.612	2.484.612				
Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak		4.725.741							
<b>B. Pasibo ez-korrontea</b>			9.800	9.800	9.800	9.800	4.900		
Epe luzeko zorrak			9.800	9.800	9.800	9.800	4.900		
<b>C. Pasibo korrontea</b>	9.710	765.521	236.064	524.976	1.144.766	1.400.211	619	6.874	7.901
Talde-enpresetako eta enpresa elkartuetako epe laburreko zorrak			397.538	646.082				4.900	5.225
Epe laburreko zorrak									
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	9.710	765.521	236.064	127.438	498.684	1.400.211	619	1.974	2.676
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>2.255.491</b>	<b>7.774.372</b>	<b>8.813.704</b>	<b>12.658.805</b>	<b>13.601.675</b>	<b>14.550.026</b>	<b>3.596.570</b>	<b>3.577.890</b>	<b>3.943.156</b>

Oharra: 2013ko kontabilitate-informazioa aurrerapen bat da, sozietateen gaineko zerga dela-eta kalkulu bat eginda

## Galeren eta irabazien kontua

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Negozio-zifiraren zenbateko garbia	2.246.260		5.792.243	600.000		4.055.350	7.990.352	5.072	4.039
Izakinen aldaketak	-2.252.810		-4.743.854				-7.990.351		
Homidurak						<b>-3.084.176</b>			
Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak			301.000						119.999
Langile-gastuak				-1.620	-1.685	-2.970		-616	-50.362
Bestelako ustiatze-gastuak	-4.278	-25.196	-11.778	-8.806	-7.993	-75.031	-107.476	-18.208	-9.567
Ibilgetuaren amortizazioa			-238	-571	-571		-333		-239
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzen egozpena	2.252.810		4.725.741			2.484.612			
Beste emaitza batzuk				-121.526	-27.000	-3.890			-19
<b>Ustiapeneko emaitza</b>	<b>2.241.982</b>	<b>-25.196</b>	<b>6.063.113</b>	<b>467.477</b>	<b>-37.249</b>	<b>3.373.323</b>	<b>-107.809</b>	<b>-13.751</b>	<b>63.851</b>
Diru-sarrera finantzarioak eta beste	7.109	62.629	239.264	606.524	375.603	74.503	102.459	63.886	199.438
Finantza-gastuak								-70.169	-7
Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa									
Tresna finantzarioaren besterentzetik heldu den nariadura eta emaitza									328.555
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>7.109</b>	<b>62.629</b>	<b>239.264</b>	<b>606.524</b>	<b>375.603</b>	<b>74.503</b>	<b>102.459</b>	<b>-6.283</b>	<b>527.986</b>
<b>Zerga aurreko emaitza</b>	<b>2.249.091</b>	<b>37.434</b>	<b>6.302.377</b>	<b>1.074.001</b>	<b>338.353</b>	<b>3.447.827</b>	<b>-5.350</b>	<b>-20.034</b>	<b>591.837</b>
Mozkinen gaineko zerga	-7.310	-105	-17.647	-2.423	-778	-9.309			<b>-1.598</b>
Ekitaldiko emaitzak	2.241.781	37.329	6.284.730	1.071.578	337.575	3.438.517	-5.350	-20.034	590.239

Oharra: 2013ko kontabilitate-informazioa aurrerapen bat da, sozietateen gaineko zerga dela-eta kalkulu bat eginda

## B) GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, S.A. SOZIEDADE MISTOA

## Egoera-balantzea

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Desegitea, 2013ko apirilean
<b>A. Aktibo ez-korrontea</b>			361	361	361	362	362	971.855	
Epe luzeko finantza-inbertsioak (fidantzak)			361	361	361	362	362	971.855	
Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak									
<b>B. Aktibo korrontea</b>	3.652.127	8.910.597	12.964.276	23.133.916	3.741.066	1.357.082	1.140.167	207.878	1.045.986
Izakinak	3.200.552	8.590.720	10.850.094	22.250.129	3.452.173	991.679	795.227	937.915	24.488
Bezeroak, salmenten eta zerbitzuak ematearen ondorioz	437.890	255.583	539.626	-3.732	507	24.489	24.489	24.489	24.488
Bestelako zordunak			819.926	819.926	34	42.397	51.864		
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	13.686	64.294	1.574.556	67.593	288.352	298.517	268.587	207.878	83.583
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>3.652.127</b>	<b>8.910.597</b>	<b>12.964.637</b>	<b>23.134.277</b>	<b>3.741.427</b>	<b>1.357.444</b>	<b>1.140.529</b>	<b>1.179.733</b>	<b>1.045.986</b>

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Desegitea, 2013ko apirilean
<b>A. Ondare garbia</b>	300.000	300.000	815.213	597.255	966.814	1.040.306	1.003.927	1.067.372	1.045.028
Kapitala	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000	300.000
Erreserbak			407.505	35.588	590.476	73.492	-36.379	63.445	126.231
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak			107.708	220.916					
Ekitaldiko emaitza									
Jasotako diru-laguntzak eta dohaintzak									
<b>B. Pasibo ez-korrontea</b>	2.746.260	6.401.204	6.614.666	16.716.512	2.401.961	293.845	129.584		
Kreditu-erakundeekin hartutako epe luzeko zorrak	2.746.260	6.401.204	6.614.666	16.716.512	2.401.961	293.845	129.584		
<b>C. Pasibo korrontea</b>	605.867	2.209.392	5.534.758	5.820.510	372.652	23.293	7.019	112.361	958
Epe laburreko zorrak	605.867	2.209.392	5.534.758	0	8.491	9.128	12.772	112.361	
Hornitzaileak				959.685	306	992	-5.753		
Epe laburreko beste hartzekodun batzuk				4.860.825	363.855	13.172			958
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>3.652.127</b>	<b>8.910.597</b>	<b>12.964.637</b>	<b>23.134.277</b>	<b>3.741.427</b>	<b>1.357.444</b>	<b>1.140.529</b>	<b>1.179.733</b>	<b>1.045.986</b>

Oharra: 2012ko kontabilitate-informazioa likidazioan dagoen enpresaren irizpidearen arabera taxutu da.



## Galeren eta irabazien kontua

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Negozio-zifraren zenbateko garbia			11.233.044	30.000	26.221.720	2.666.362	171.296	9.500
Izakinen aldaketak				11.400.035	-18.803.260	-2.467.043	-184.599	-5.887
Hornidurak	<b>335.928</b>	<b>202.951</b>	-7.794.852	-9.627.580	-5.398.457			
Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak				0	631.189			
Bestelako ustiatze-gastuak	-315.801	-206.192	-2.677.350	-1.266.962	-1.385.256	-59.620	-16.823	-85.640
Beste emaitza batzuk		0	1.555	35.913	67.401	-1.313	1.020	148.881
Emaitzara transferitutako kapitaleko diru-laguntzak	0	144.451	144.451					
<b>Ustiapeneko emaitza</b>	<b>20.127</b>	<b>141.211</b>	<b>906.850</b>	<b>571.406</b>	<b>1.333.337</b>	<b>138.385</b>	<b>-29.106</b>	<b>66.854</b>
Diru-sarrera finantzarioak			1	7	11		4	5
<b>Finantza-gastuak</b>	-20.127	-141.211	-304.918	-521.429	-490.668	-33.397	-6.101	-1.360
Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arazoizkoa							-1.176	-2.054
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>-20.127</b>	<b>-141.211</b>	<b>-304.917</b>	<b>-521.423</b>	<b>-490.658</b>	<b>-33.397</b>	<b>-7.274</b>	<b>-3.409</b>
<b>Zerga aurreko emaitza</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>601.933</b>	<b>49.983</b>	<b>842.679</b>	<b>104.988</b>	<b>-36.379</b>	<b>63.445</b>
Mozkinen gaineko zerga			-194.428	-14.395	-252.204	-31.496		
<b>Ekitaldiko emaitzak</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>407.505</b>	<b>35.588</b>	<b>590.476</b>	<b>73.492</b>	<b>-36.379</b>	<b>63.445</b>

Oharra: 2012ko kontabilitate-informazioa likidazioan dagoen enpresaren irizpidearen arabera taxutu da.

## C) GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II S.L. SOZETATE MISTOA

## Egoera-balantzea

## Aktiboa

	2010	2011	2012ko zirriborrea	2013ko uztailaren 31
<b>A. Aktibo ez-korrontea</b>	361	361	361	361
Epe luzeko finantza-inbertsioak (fidantzak)	361	361	361	361
<b>B. Aktibo korrontea</b>	6.581.494	12.163.576	7.931.067	6.824.226
Izakinak	5.712.196	11.669.261	6.052.671	6.037.028
Bezeroak, salmenten eta zerbitzuak ematearen ondorioz			130.499	46.179
Bestelako zordunak	760.747	388.581	14.385	6.856
Epe laburreko finantza-inbertsioak			282.294	153.079
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	108.551	105.734	1.451.218	581.084
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>6.581.855</b>	<b>12.163.937</b>	<b>7.931.428</b>	<b>6.824.587</b>

## Ondare garbia eta pasiboa

	2010	2011	2012ko zirriborrea	2013ko uztailaren 31
<b>A. Ondare garbia</b>	3.100	-407.304	1.281.393	1.286.842
Kapitala	3.100	3.100	3.100	3.100
Erreserbak				1.007.190
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak			-410.404	
Ekitaldiko emaitza		-410.404	1.688.697	276.552
<b>B. Pasibo ez-korrontea</b>	3.529.322	8.043.545	5.985.343	5.507.520
Kreditu-erakundeekin hartutako epe luzeko zorrak	3.529.322	8.043.545	5.985.343	5.507.520
<b>C. Pasibo korrontea</b>	3.049.433	4.527.696	664.692	30.225
Kreditu-erakundeekin hartutako epe laburreko zorrak	730.076			
Epe laburreko zorrak	579.445	77.125		
Hornitzaileak	252.180	579.275		26.127
Epe laburreko beste hartzekodun batzuk	1.487.731	3.871.295	664.692	4.098
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>6.581.855</b>	<b>12.163.937</b>	<b>7.931.428</b>	<b>6.824.587</b>

## Galeren eta irabazien kontua

	2010	2011	2012ko zirriborrea	2013ko uztailaren 31
Negozio-zifraren zenbateko garbia			14.884.802	296.383
Izakinen aldaketak	5.712.196	5.957.065	-5.605.699	-12.298
Hornidurak	-4.275.666	-5.468.497	-6.672.892	
Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak			240.154	240.154
Bestelako ustiatze-gastuak	-1.179.828	-676.763	-173.495	-102.349
Beste emaitza batzuk		7.017	70.136	
<b>Ustiapeneko emaitza</b>	<b>256.702</b>	<b>-181.178</b>	<b>2.743.006</b>	<b>421.890</b>
Diru-sarrera finantzarioak			111	1
Finantza-gastuak	<b>-256.702</b>	<b>-229.225</b>	<b>-507.437</b>	<b>-145.339</b>
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>-256.702</b>	<b>-229.225</b>	<b>-507.326</b>	<b>-145.338</b>
<b>Zerga aurreko emaitza</b>	<b>0</b>	<b>-410.403</b>	<b>2.235.679</b>	<b>276.552</b>
Mozkinen gaineko zerga			-546.983	
<b>Ekitaldiko emaitza</b>	<b>0</b>	<b>-410.403</b>	<b>1.688.697</b>	<b>276.552</b>

Oharra: 2012ko informazioa urteko kontuen zirriborro bat da; 2013ko uztailaren 31ri dagokiona NASIParen konkurtso-administrazioaren txostenetik heldu da, eta Egüés 21-II, S.L. sozietateak aurkeztutako zorra aitortu baino lehenagokoa da.

**2. ERANSKINA. SOZIEKATE MISTOEKIN LOTUTAKO JARDUKETA NAGUSIEN LABURPEN KRONOLOGIKOA**

	<b>Gestión y Promoción Egúés 21 S.A.</b>	<b>Gestión y Promoción Egúés 21 S.A.</b>	<b>Gestión y Promoción Egúés 21-II, S.L.</b>
	1. sustapena (3B-4 lur-zatia) 66 prezio tasatuko etxebizitza	2. sustapena (3A-9 lur-zatia) 48 BOE eta 114 PTE	3. sustapena (A-1 lur-zatiak) 138 babes ofizialeko etxebizitza
2005eko otsaila	Udala: sozietate mistoa eratzeke prozesuaren hasiera		
2005eko martxoa	Udala: 3B-4 lur-zatia Andacelayri lagatzea erabaki		
2005eko maiatza	Andacelayk NASIPA hautatzen du sozietate mistoa eratzeke bazkide pribatu gisa		
2005eko ekaina	Sociedad Gestión y Promoción Egúés 21, S.A. eratu zen		
2005eko urria	Lur-zatiaren salerosketa eta sustatzailearen mailegua eskrituran jaso ziren		
2005eko azaroa	Etxebizitzak eraikitzeke obretarako kontratua sinatu zen		
2006ko ekaina		Egúés 21, S.A.k proiektuaren kontratazioa hasi zuen Kontratazio mahaiaren 2006-07-17ko akta	
2006ko uztaila		Udalak erabaki zuen 3A-) lur-zatia Andacelayri lagatzea	
2006ko iraila		Egúés 21, S.A.k obra-kontrataziorako prozesua hasi zuen, etxebizitza tipologiaren arabera	
2006ko iraila		Andacelayk proiektua hautatu zuen	
2006ko azaroa		Bi obrak NASIPArI esleitu zitzaizkion	
2007ko otsaila	Obraren amaierari buruzko ziurtagiria		
2007ko apirila		Lur-zatiaren salerosketaren eta sustatzailearen bi maileguren eskritura egin zen	
2007ko maiatza		Proiektuaren kontratua sinatu zen	
2007ko maiatza		Etxebizitzak eraikitzeke obraren kontratuak sinatu ziren	
<b>2008ko azaroa</b>	<b>Kontuen Ganberaren Eguesibarko Udalaren 2006ko ekitaldiari buruzko txosteneko "Geroko egitateak" atalerako azterketa lana. Udalak zenbait hirigintza-sozietate sortu izana nabarmentzen du.</b>		
	<b>Gestión y Promoción Egúés 21 S.A.</b> 1. sustapena (3B-4 lur-zatia)	<b>Gestión y Promoción Egúés 21 S.A.</b> 2. sustapena (3A-9 lur-zatia)	<b>Gestión y Promoción Egúés 21-II, S.L.</b> 3. sustapena (A-1 lur-zatiak)

Data	66 prezio tasatuko etxebizitza	48 BOE eta 114 PTE	138 babes ofizialeko etxebizitza
2008ko azaroa			Udalak erabaki zuen A-1 lur-zatiak Andacelayri lagatzea
2008ko azaroa			Egüés 21, S.A.k, aztertutako dokumentazioaren arabera, A-1 lur-zatiak proiektua erredaktatzeko kontratua sinatu zuen. 2009an NASIPAK ordaindua
22009ko maiatza			Etxebizitzaren eraikuntzaren obra amaierako ziurtagiria
2009ko azaroa			Nafarroako Gobernuko Erripagariako udalez gaindiko plan sektoriala aldatzeko izapideak hasi zituen, eraikigarritasuna handituta
2009ko azaroa			Andacelayk sozietate mistoa eratzeko lehiaketa publikoa hasi zuen
<b>2009ko abendua</b>			<b>Nafarroako Kontratazio Publikorako Batzarraren txostena</b>
2010eko maiatza			Andacelayk NASIPARI esleitu zion sozietate mistoaren eraketa
2010eko maiatza			Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. eratu zen
2010eko apirila			Egüés 21-II, S.L.k erabaki zuen A-1 lur-zatien eraikigarritasuna % 19,6 handitzea
2010eko maiatza			Sozietatea eratzeko lehiaketatik heldu den proiektua sinatu zen, eraikigarritasuna % 19,6 handituta
2010eko maiatza			Nafarroako Gobernuko udalez gaindiko plan sektoriala aldatzeko espediente onetsi zuen (2010-06-04ko NAO)
2010eko uztaila			Lur-zatiaren salerosketaren eta sustatzailearen eraikuntzarako maileguen eskriturak
2010eko uztaila			Andacelay, S.L.k obrak kontratatzeko prozesua hasi zuen
2010eko urria			Obrak NASIPARI esleitu zitzaizkien
2010eko abendua			Etxebizitzak eta eranskina eraikitzeke obraren kontratua sinatu zen
<b>2012ko maiatza</b>			<b>Andacelayko Administrazio Kontseiluko kideen aldaketa</b>
2012ko uztaila			Etxebizitzaren eraikuntzaren obra amaierako ziurtagiria
<b>2012ko iraila</b>			<b>Sozietate mistoen Administrazio Kontseiluko kideen aldaketa</b>
<b>2013ko apirila</b>			<b>Egüés 21, S.A. desegin zen</b>
2013ko uztaila			NASIPAREN hartzekodunen konkurtsoa
2013ko iraila			<b>Egüés 21, S.A. azkendu zen</b>

## ANDACELAY SOZIETATE PUBLIKOKO LEHENDAKARI JOSÉ ALFONSO ETXEBERRÍA GOÑI JAUNAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Eguesibarko Udaleko alkate Alfonso Etxeberria Goñi jaunak, Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2004-2013)" izeneko behin-behineko fiskalizazio txostenaren proposamena, Kontuen Ganberak igorri diona, ikusita, azaldu eta zuzenbidearen arabera ondoen dagokion moduan, honakoa DIO:

Eguesibarko Udalari emandako epearen barruan, hari buruz honako alegazioak aurkeztu dituela.

### ALEGAZIOAK

#### LEHENA.- III. EGUESIBARKO UDALAREN SOZIETATE PUBLIKOAK. III.2. "Gestión y Promoción Egüés 21, S.A." sozietate publiko mistoa

Behin-behineko txostenean honakoak jasotzen dira *berariaz sozietateei aplikatzekoa zaien araudiaren ez-betetze nagusi gisa –haietatik, izan ere, erantzukizun juridikoko ustezko aztarnak ondoriozta daitezke–:*

- A) **Administrazio-kontratazioaren arloan**
- B) **Zerga arloan**
- C) **Sozietateen edo merkataritzaren arloan**
- D) **Kontabilitate erantzukizuneko ustezko aztarna gisa**

Egüés 21, S.A.k, behin-behineko txostenaren arabera, ez-betetze garrantzitsuak egin ditu jasotako arlo guztietan (administrazio-kontratazioa, zerga arloan, sozietateen edo merkataritzaren arloan eta kontabilitate-erantzukizuna).

Halaber, behin-behineko txostenean berariaz jasotzen da, Egüés 21, S.A.ri dagokionez, *Administrazio Kontseilua bost kontseilarik osatzen dutela, lehendakari eta idazkari karguak barne. Kontseilari horietatik, hiru Andacelayk izendatzen ditu –alkatea, Andacelay, S.L.rako zinegotzi ahalduna eta zinegotzi bat– eta bi NASIPAK izendatzen ditu. Halaber, NASIPAK ahalduna ez den kontseilari bat izendatzen du. 2012ra arte, enpresa misto horrek bi zinegotzi delegatu dauzka izendatuak, bat bazkide bakoitzeko. **Hasierako udal ordezkari horiek karguan gelditzen dira ia 2012ko irailean beste hiru zinegotzik ordeztzen dituzten arte, Akziodunen Batzar Nagusiak onetsitako akordioaren arabera.***

Ulertzen da azken baieztapen horri buruzko zehaztapenak egin beharko liratekeela, honako gaiak direla eta:

- 2005ean, sozietatea eratzeke eskrituran, bost kidek osatutako administrazio kontseilu bat izendatu zen: José Anastasio Andía García de Olalla, Carolina Dolores Potau Menéndez, José María Senosiain Ibañez, Miguel Luís Ezquerria eta Gregorio Luís Ezquerria. Halaber, 2005ean, Batzar Nagusiaren akta bakarra dago, non sozietatearen kontseilari delegatuak eta ahaldunak izendatzen baitira. Urte horretan, ez dago Administrazio Kontseiluaren aktarik.
- 2006an, 2005eko kontseilari berek jarraitzen dute. Urte horretan, ez dago Administrazio Kontseiluaren aktarik; horrenbestez, ez dakigu urteko kontuak nola formulatu 2005eko ekitaldiko urteko kontuak Administrazio Kontseiluko kontseilari guztiek sinatu zituzten.
- 2007an, kontseilari eta kide José María Santos Senosiain Ibañez kargutik kendu eta haren ordezkari Iñigo Solchaga Muñoz izendatu zen. Urte horretan, ez dago Administrazio Kontseiluaren aktarik; horrenbestez, ez dakigu urteko kontuak nola formulatu ziren. 2005eko ekitaldiko urteko kontuak Iñigo Solchaga Muñozek eta Administrazio Kontseiluan jarraitzen zuten lau kontseilariak sinatu zituzten.

- 2008an, 2009an, 2010ean eta 2011n ez dago Administrazio Kontseiluaren aktarik; horrenbestez, ez dakigu urteko kontuak nola formulatu ziren. Halaber, urte bakoitzeko Batzar Nagusiaren akta bakarra dago, non 2007, 2008, 2009 eta 2010eko ekitaldietako urteko kontuak onesten diren.

Deigarri gertatzen da 2010eko ekitaldiko urteko kontuak 2011ko martxoaren 31n Estefanía Clavero Belzunegui sinatuta egotea. Deigarri gertatzen da zeren ez baitago inongo dokumentazio, akta edo informaziorik ondorioztatzen duenik inongo kontseilari kargutik kendu eta beste bat izendatu denik.

- 2012an, Administrazio Kontseiluaren hiru akta daude, eta Batzar Nagusiaren akta bakarra ere ez.
  - o Horietako lehenengoan, 2012ko martxoaren 31koan, Administrazio Kontseiluko kide guztiak (Carolina Dolores Potau Menéndez kenduta) biltzen dira. Horien artean, Estefanía Clavero Belzunegui dago. Orduan erabaki zuten Carolina Dolores Potau Menéndez Administrazio Kontseiluko idazkari kargutik kentzea eta kargu horretarako Gregorio Luis Ezquerria izendatzea; eta erabaki zuten, halaber, 2011ko ekitaldiko urteko kontuak formulatzea.
  - o 2012ko martxoaren 30ean, 13:00etan, Administrazio Kontseiluko kide guztiak (Carolina Dolores Potau Menéndez kenduta) bildu ziren. Horien artean, Estefanía Clavero Belzunegui dago. Hartan erabaki zuten 2011ko ekitaldiko urteko kontuak onestea.  
Deigarri gertatzen da urteko kontuak sozietateko bost kontseilarietatik lauk formulatuta egotea eta, gainera, auditoria-txostenean ezer ere ez esatea kontseilarietako baten sinadura falta izateari buruz.  
Azkenean, deigarria da, halaber, sozietatearen urteko kontuen onespina Administrazio Kontseiluak ematea eta ez Akziodunen Batzar Nagusiak.
  - o 2012ko martxoaren 30ean, 14:00etan, Administrazio Kontseiluko kide guztiak (Carolina Dolores Potau Menéndez kenduta) bildu ziren. Horien artean, Estefanía Clavero Belzunegui dago. Hartan erabaki zuten Carolina Dolores Potau Menéndez Administrazio Kontseiluko kontseilari kargutik kentzea.

Aktak aztertuta, ondoriozta daiteke 2007an José María Santos Senosiain Ibáñez kargutik kendu eta Iñigo Solchaga Muñoz izendatu zenetik, ezin dela jakin zein den sozietatearen Administrazio Kontseiluaren osaera zehatza, hain zuzen ere 2012ko martxoaren 31ra arte, une horretakoa baita Administrazio Kontseiluaren lehenengo akta non kontseilarien izenak jasotzen diren.

Horrek garrantzi handia dauka zeren eta litekeena baita, behin-behineko txostenaren arabera, administrazio-kontratazioaren, zergen, sozietateen edo merkataritzaren eta kontabilitate-erantzukizunaren arloetako ez-betetze garrantzitsu batzuk egotea, Administrazio Kontseiluko kideei egotz lekiokena.

## **BIGARRENA.- Bosgarren ondorioa Andacelay A.1 lur-zatien finantzaketa aurreratzea**

Behin-behineko txostenak, gai hori dela eta, honakoa dio: *Beste ezer baino lehen, zehaztu beharra dago ezen NASIPAK Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoa eratzeke lehiaketara aurkeztutako eskaintzan, enpresa horrek zuzenean hartzen zituela bere gain lur-zatiak ordaintzeko eta eraikuntza-obra egiteko behar ziren maileguak ituntzetik heldutako finantza-gastuak.*

*Hasiera batean, aurreikusita zegoen Andacelay sozietate mistoak lur-zati horiek ordaintzeko gastua -4,05 milioi euro- osorik egitea aurrezki kutxa batekin banku-mailegu bat itunduz. Alabaina, uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorioz eta Espainiako Bankuak ezarritako kreditu-murrizketak direla-eta, aurrezki kutxek soilik eragiketaren ehuneko 80a ordaintzeko adinako mailegua eman zezaketen.*

*Gai hori ebazteko, NASIPAREN ekimenez, sozietate mistoaren hiru bazkideei -Andacelay, NASIPA eta Egüés 21, S.A.- proposatu zitzaizkien kapitalean zeukaten partaidetzaaren arabera, maileguarekin estali gabeko ehuneko 20a -811.070 euro- emateko.*

*Formula hori Andacelayko kontseiluak onetsi zuen 2010eko uztailaren 21ean egindako bilkuran; bilkura horren aktan, gainera, berariaz honakoa aipatzen da: "NASIPAK egindako proposamenarekin, Andacelayk ez du ezer ere galduko, ez finantza-kostuan, ez eta lor genezakeen etekin handiagoa jasotzean, zeren eta NASIPAK konpromisoa hartu baitu zenbateko hori itzultzeko lur-zatien salerosketan lortutako likideziarekin".*

*Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoaren egun bereko, 2010eko uztailaren 21eko, Administrazio Kontseiluan, erabaki zen aurreko finantzaketa-proposamena onestea eta 2010eko abenduaren 31n bazkide horiek aurreratutako kopuruak itzultzea, betiere lehentasuna emanaz Andacelayri itzultzeari. Halaber, gehitzen da ezen "soilik Andacelayk jarritako kopuruari dagokionez, NASIPAK finantza-kostua hartuko duela bere gain, maileguak irauten duen denboran, Andacelayk, lur-zatien salerosketatik lortutako likideziarekin gehi ehuneko 0,25arekin, kontratatutako funtsaren etekin handiagoaren berdina den kapital-kostuaren arabera.*

**Azken batean**, uste dugu jarduketa horrek ez duela urratu sozietate mistoa eratzeko hautapen-prozesua, zeren eta lur-zatiak erosteko finantzaketarako eskainitako formularen aldaketa prozesu horretan zehar gertatutako arrazoiei zor baitzaie. Hala eta guztiz ere, uste dugu NASIPAK Andacelayri aurrerapen horrengatik jaso ez zuen finantza-etekina ordaindu behar ziola.

NASIPAK sozietate mistoaren eraketarako, lur-zatien besterentzerako eta obra-proiektua erredaktatzeko aurkeztutako eskaintzak, "Kudeaketaren programazioa eta plangintza" izena daraman 2b gutun-azalekoak, "Ekonomia- eta finantza-kaudimena" izenburuko 8. orrialdean, honakoa ezartzen du:

**EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA:**

*Atal honen barruan erakutsi nahi dugu NASIPA, S.L.k sustapenaren amaiera egokirako dakarren kaudimen tekniko eta ekonomikoa.*

**Udalak edo Udalaren Andacelay Hirigintza Sozietateak bazkide sendo bat bilatu behar dute, plangintzan ezarritako mugarrien betetzea bermatuko duena.**

*Aurrez azaldu den bezala, NASIPA, S.L.k modu egokia du lurzorua erosteko eta BEZa ordaintzeko maileguak lortzeko, sozietate mistoa eratzen den une berean. Horretarako, Nafarroako Kutzaren eta Rural Kutzaren finantzaketa- eta kaudimen-konpromisoak dauzkagu.*

*Bi entitate horietatik helarazi digute unearen inguruabarrak direla-eta eta Espainiako Bankuaren araudiari jarraituz, **NASIPA, S.L.ren abala** behar dela, gutxienez ere eragiketaren % 20 bermatzeko edo kopuru horiei dagozkien funts berekiak jartzeko.*

*Sozietate mistoak ez du gaitasunik bere kasa zorpetzeko, zeren eta gutxienekoa den kapital soziala duen sozietate bat baita, funts berekirik gabekoa; hori dela eta, **NASIPA, S.L.ren abala** behar da, bai lurzoruaren eragiketarako, BEZerako.*

*NASIPA, S.L.k konpromisoa hartzen du **eragiketak abalatzeko eta funts berekiak jartzeko** hain zuzen ere beharrezkoak direnak sozietatearen finantza-beharrizanei aurre egiteko, sustatzailearen kasuko maileguak sinatzen diren bitartean, behin-behineko kalifikazioa eta obra-lizentzia lortu ondoren (azpimarra eta letra lodia jatorrizkoak dira).*

NASIPA, S.L.k aurkeztutako eskaintza irakurrita, argiro ondorioztatzen da abal bat behar dela edo, kasua bada, lurzoruaren eta BEZaren zenbatekoaren % 20 egiten duen kopuru bat funts berekien bidez jarri beharra dagoela. NASIPA, S.L.k beharizan hori argiro onartzen du bere eskaintzan.

Horrenbestez, uste dugu jarduketa horrek urratu duela sozietate mistoa eratzeko hautapen-prozesua, zeren eta lur-zatiak erosteko finantzaketarako eskainitako formularen aldaketa ez baitzaio zor prozesu horretan zehar gertatutako arrazoiei; izan ere, egoera eta konponbide horiek berariaz jasota daude NASIPA, S.L.k aurkeztutako eskaintzan.

**HIRUGARRENA.- Bederatzigarren ondorioa: Egüés 21, S.A. sozietate mistoari zerbitzuak emateagatik Andacelayk eginiko fakturen bidezko diru-sarrerak.**

Lehenengo, alegazio honen bidez, Udalak eta Andacelay sozietate publikoak ziurtatu nahi dute ez dagoela ez informaziorik, ez agiririk honakoan dautzan lanei buruz: "Kudeaketa tekniko eta administratiboak edo beste gisa batekoak, hiru lurzorua sustatzera edo salmentara bideratutakoak, Eguesibarren etxebizitza babestua sustatzeko proiektua dela-eta"; eta, horrenbestez, ezta ere haiek 901.000 euroan kuantifikatuta egoteari buruz.

Halaber, aditzera eman nahi da Egüés 21, S.A. enpresa mistoko bazkideen arteko fakturen bidezko ustezko dibidendu-banaketa, sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera, **lotu beharra dagoela Andacelayk duen kuotaren % 99ko hobaria egotearekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legean jaso bezala.**

**LAUGARRENA.- Hamalagarren ondorioa: 2. sustapeneko kontratazioak (3A-9 lur-zatia, 114 PTERekin eta 48 BOERekin). Proiektua eta obra-zuzendaritza.**

Behin behineko txostenak honakoa jasotzen du: *2007ko maiatzean –esleipena egin eta zazpi hilabeteren ondoren–, sozietate mistoaren eta esleipen-hartzailearen arteko kontratua izenpetu zen, guztira 0,89 milioi egiten duen kopuruarekin. Kontratu horretan, ez da sartzen ez obra-zuzendaritza, ez eta segurtasunaren arloko koordinazioa, aparejadoreek egin beharrekoa; enkargu hori gero zuzenean egiten da 0,19 milioiren truke”.*

Behin-behineko txostenaren laburpen edo amaierako laburbiltzean, halaber, honakoa jasotzen da (V. atalean): *Sozietate horiei aplikatzekoa zaien araudiaren ez-betetze nagusi gisa, honakoak azpimarratuko ditugu –haietatik, izan ere, erantzukizun juridikoko ustezko aztarnak ondoriozta daitezke– : besteak beste, lehenengo, kontabilitate-erantzukizunaren arloan.*

Ulertzen da Egüés 21, S.A.ren zuzeneko esleipena, 190.000 eurokoa kontabilitate-erantzukizunaren arloko ez-betetze larri bat dela eta horrela jaso beharko litzatekeela txostenean; izan ere, entitate esleipen-egile bat da, Nafarroako Kontratuari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 2. artikuluan aipatzen direnetakoa, eta, horrenbestez, bere obra-, hornidura eta laguntza-kontratuak foru lege horretako II. liburuan adierazitakoaren arabera esleitu behar ditu.

190.000 euroko ZUZENEKO ESLEIPENA laburbiltzeetan jaso behar da administrazio-kontratazioaren arloko erantzukizunen barruan sartzen den gutxieneko gisa.

**BOSGARRENA.- Hamaseigarren ondorioa: Andacelayk eta NASIPAK Egüés 21, S.A. sozietate mistoari egindako fakturak**

Gaur arte, ez da jasota gelditu faktura horien justifikazioa, nahiz eta ikerketa batzorde bat egon den etekinen banaketa bat zegoela salatzen zuena eta, halaber, haiei buruz informazio eskari batzuk egon diren.

Modu berean, ziurtatzen da ez Andacelayn, ez Egüés 21, S.A.n, ez Eguesibarko Udalean ez dela ezagutzen lan horien izaera, xehetasun edo zenbatekoak. Ez dakigu, ezta ere, norik edo zein organok baimendu zituen proiektuaren ustezko aldaketa eta obrak berak.

Bi gai aipatzea komeni da, behin-behineko txostenean azaldu ez direnak.

1. 2012ko martxoaren 2an, Juan Larrazak, Egüés 21, S.A.ren izenean, bi idazki aurkeztu zituen 3B-4 eta 3A-9 lur-zatietan egindako obretan likidatutako EIOZaren berrikuspenera eskatzeko. Eskari hori egin zen Ikerketa Batzordearen ikerketen ondorioz; izan ere, haietan, agerian jarri zen EIOZaren kobrantza eskasa zegoela, Ikerketa Batzordeak 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuraren aktatik ondorioztatzen den bezala. Sozietate mistoak berrikuspenera



egin zuen arren, sekula ez zitzaion Eguesibarko Udalari jakinarazi exekuzio materialean handitze bat izana zenik eta, horrenbestez, zergaren oinarriak handitu zirenik, nahiz eta haiek 2008an eta 2009an gertatu ziren, EIOZak berrikusteko eskariari Eguesibarko Udalak 2012ko maiatzaren 3an emandako erantzunean agerian jartzen den bezala. Izan ere, haren arabera, EIOZaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarriek ez zuten jasotzen faktura horiek existitzen zirenik. Kontua da Egüés 21, S.A.ko lehendakariak, hau da, enpresak, ez zuela jakinarazi proiektuaren exekuzio materialaren hazkundea, eta pertsona hori eta Udalaren erantzuna –hazkundea kontuan hartzen ez zuena– sinatu zuena pertsona bera direla. Huts egite hori soilik azal daiteke ulertzen bada fakturak ez zegozkiola obren egiazko exekuzio bati, baizik eta dibidendu-banaketa bati, txosteneko hamaseigarren ondorioan aditzera eman den bezala.

2. Andacelayko Administrazio Kontseiluan izandako aldaketaren ondoren, NASIPak sozietate horretan sartu ziren bi zinegotzi berriei dossier bat aurkeztu zien, non sozietate mistoen ibilera azaltzen den. Dossier horretan argi eta sendo geri da ETEKINAK/DIBIDENDUAK izeneko atal bat, non aipatzen baita Egüés 21, S.A.k banatutako dibidenduak honakoak direla: 1.088.051,27 euro (% 51) Andacelayrentzat eta 1.045.382,59 euro (% 49) NASIParentzat.

**Azkenik**, eskura daukagun informazio guztia kontuan hartuta:

- Andacelay:
  - o ez Udalean ez sozietatean bertan ez dago agiri edo informaziorik 901.000 euroko fakturak egitea justifikatzen duenik. Gainera, zerbitzu horiek emateko garaian, sozietateak ez zuen langilerik.
  - o Fakturen zenbatekoa bi sozietateek dibidendu-banaketa gisa fakturatutakoaren baturaren guttizkoaren % 51 da. Kasualitatez, Andacelayk Egüés 21, S.A.n duen partaidetzaren ehuneko bera da, dibidendu-banaketaren kasuan egokituko litzaiokeena.
- NASIPA:
  - o 865.667 euro egiten duten bi faktura dauzka. Egindako lanen izaera, xehetasunak eta zenbatekoa ez daude jasota ez Andacelayren, ez Egüés 21, S.A.ren, ez Eguesibarko Udalaren artxiboetan.
  - o Aurkeztutako datuak eraikuntza enpresak –hau da, NASIPAK– baizik ez ditu sinatzen; ez dago jasota jabeak eta obra zuzendaritzak sinatu izana.
  - o Aurreko gastu horiek 2008ko irailean (lehen sustapena) eta 2009ko otsailean (bigarren sustapena) fakturatu ziren. Lehen sustapeneko obren amaierako ziurtagiria 2007ko otsailean eman zen.
  - o Udalak Egüés 21, S.A. sozietatearen logotipoa duen agiri bat aurkeztu zigun. Testua honela hasten da: "Honen bitartez, fakturen bidezko dibidendu-banaketa idatziz jaso behar dugu, sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera",
  - o Fakturen zenbatekoa bi sozietateek dibidendu-banaketa gisa fakturatutakoaren baturaren guttizkoaren % 49 da. Kasualitatez, NASIPAK Egüés 21, S.A.n duen partaidetzaren ehuneko bera da, dibidendu-banaketaren kasuan egokituko litzaiokeena.
- Egues 21, S.A.:
  - o Ez dakigu nork edo zein organok baimendu zituen proiektuaren aldaketa eta obrak berak.
  - o Ez dio inoiz ere Eguesibarko Udalari jakinarazi exekuzio materialaren kopuruak 865.667 euro gora egin duela.
- Udala:
  - o EIOZaren zerga-oinarria kalkulatzeko ez ditu exekuzio materialaren 865.667 euro horiek kontabilizatzen; horrenbestez, kopuru hori erregularizatu gabe dago.

- Udalaren izenean EIOZaren erregulazioa jakinarazten duena eta exekuzio materialaren handitzea jakinarazi behar duen sozietateko lehendakaria pertsona bera dira. Hau da, huts-egite horren justifikazio logiko bakarra da ulertzea ez dela exekuzio materialaren handitze bat, baizik eta dibidendu-banaketa bat.
- Ez dakigu nork edo zein organok baimendu zituen proiektuaren aldaketa eta obrak berak.

**Analizatutako dokumentazio guztia aztertu ondoren, soilik ondoriozta daiteke zenbait faktura egiazko edukirik izan gabe egin zirela, eta eragiketa-modu horretatik ondorioztatzen da merkataritzaren eta zergen arloko araudiaren ez-betetze agerikoa, zeinean ustezko erantzukizun juridikoen aztarnak egon daitezkeen, hainbat esparrutan. Gainera, ulertezin gertatzen da jarduketa hori bi sozietate publikok sustatu eta babestu izana.**

### **SEIGARRENA.- AUDITORIA-ENPRESA PRIBATUAK**

Behin-behineko txostenak diotenaren arabera, *Kontuen Ganberak, enpresa publikoak fiskalizatzeko bere jarduketetan, bere egiten ditu, oro har, auditoria enpresa pribatuek urteko kontuei buruz egindako auditoria-txostenak. Eguesibarko Udalaren enpresa publikoen kasuan, ordea, erakutsi da lan horiek ez direla nahikoak egiaztatzeko eta kontrastatzeko egindako kudeaketa publikoa hari exijitzekoak zaizkion oinarrizko printzipioen arabera egin den.*

Kontuen Auditoriari buruzko Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 13. artikulua honakoa xedatzen du: *"Nolanahi ere, joko da kontuen auditoreak edo auditoria-sozietateak bere eginkizunak betetzeko enpresarekiko edo erakundearekiko behar adina independentzia ez duela beste lege batzuetan aurreikusitako bateraezintasun kasuetan ez ezik, auditoria-txostena sinatzen duen kontuen auditorearengan honako inguruabarretatik bat gertatzen denean:*

*d) Auditatutako entitatearen finantzen egoera-orriak edo bestelako kontabilitate-dokumentuen ardura materiala edo prestaketa.*

*Aipatutako errege dekretuko 15. artikulua ezartzen du ezen 12. artikulutik 14. artikulura ezarritakoaren eraginetarako, auditatutako entitateari buruzko aipamenak zabalduko direla beste entitate batzuetara, baldin eta urteko kontuek, finantzen egoera-orriek edo auditatutako bestelako kontabilitate-dokumentuek aipatzen duten ekitaldi-hasieratik auditoria txostenaren datara bitarteko uneren batean zuzeneko lotura izan badute, erabaki-batasun bera edukitzearen bitartez, auditatutako entitatea eta beste entitateak pertsona fisiko edo juridiko batek edo elkarrekin diharduten nahiz akordio zein estatutu-baldintza batzuen bidezko zuzendaritza bakarraren pean dauden batzuek edozein baliabideren bidez kontrolatuta egoteagatik, edo, bestela, eragin adierazgarria edukitzearen bitartez, Merkataritza Kodearen 47. artikulua arabera.*

Badirudi aurreko artikuluen irakurketatik eratortzen dela sozietate bateko finantzen egoera-orriak nahiz bestelako kontabilitate-dokumentuen ardura materiala duenak edo haiek prestatzen dituenak ezin duela haren auditoriarik egin, eta kasu hori zabaltzen dela Merkataritza Kodeko 42. artikuluan jasotakoetatik zuzeneko nahiz zeharkako loturaren bat dagoen sozietateetara, kontrol-harreman bat egoteagatik.

Andacelay eta bi sozietate mistoak kasu horretan sarturik daude 2011ko ekitaldiaren zati batean eta 2012ko ekitaldian, zeren eta Andacelayren kontabilitatea eramaten duen pertsona bera baita Andacelayk partaidetza handiena duen bi sozietate mistoen auditoriak egiten dituenak. Horixe ondorioztatzen da, batetik, Eguesibarko Udalaren 2011ko urriaren 4ko aktatik eta, bestetik, Andacelayren 2013ko uztailaren 4ko aktatik.

Horietako lehenengoan, honakoa ageri da: *13.- Eskariak eta galderak. Alfonso Etxeberria jaunak hartu du hitza.- Andacelay sozietate publikoaren gaiari dagokionez, geure buruari galdetzen diogu*

*zergatik gaur arte ez den batzarrik egin eta jakin nahi genuke nor ari den haren kudeaketa administratiboez arduratzen.*

*Alkateak Alfontsoak planteatutako galderei erantzun die: Andacelayren kudeaketak alkateak eramaten ditu. Kontuen gaiari dagokionez, kontuen auditore bat arduratzen da haietaz. Fermín Elizalde.*

*Horietako bigarrean, honakoa ageri da: Bigarena.- 2011ko ekitaldiko urteko kontuak onestea, bidezkoa bada. Aitor Altunak (Andacelayko kudeatzailea) hartu du hitza, 2011ko kontuak azaltzeko. Hirugarren aldia da 2011ko kontuak Batzarrera datozela. 2012ko abenduan bi aldiz etorri ziren, eta hau hirugarren aldia da. Fermín Elizalde bertan dago. Bera da 2011n eta 2012an kontabilitateaz eta aholkularitzaz arduratu zena, hari galderaren bat edo argitasunen bat eskatu nahi badiozue ere.*

Akta horiek irakurrita, badirudi ezen, auditoria eta kontabilitatearen ardura nork fakturatu duen alde batera utzita, biak pertsona berak egiten dituela eta, horrenbestez, ulertu beharko litzateke auditoreak ez duela behar adinako independentziarik.

Gainera, NASIPako kudeatzailea, bera baita sozietate mistoen kontabilitateaz arduratzen den merkataritza-enpresa, Egués 21, S.A. eta Egués 21-II, S.L. sozietate mistoen auditorearen koinatukidea da. Gai hori, gutxienez ere, jakinarazi egin behar zitzaion Administrazio Kontseiluari, zeren eta egoera hori mehatxu bat baita haren independentziarako, eta horri egokitzat jotzen diren neurrien bitartez egin beharko litzaioke aurre; esate baterako, plangintzan beste auditore batek parte hartuz, lana eta txostena beste auditore batek berrikusiz eta abar.

#### **ZAZPIGARRENA.- Hogeita bigarren ondorioa. Etxebizitzak eraikitzeako obren kontratazioa.**

Behin-behineko txostenean, ondorio horri dagokionez, honakoa ezartzen da: *Azken batean, hautapen-prozesua publikitatearekin eta lehiarekin egin zen arren, Ganbera honek honakoak nabarmendu behar ditu, printzipio horien aplikazio efektiboan eragin negatiboa izan dutelakoan:*

- *Eskaintzak egiteko behar zen dokumentazioa NASIParen egoitzan zegoen, eta eskaintza horiek egoitza horretan bertan aurkeztu behar ziren.*
- *Kontratazio mahaiari proiektua erredaktatu zuena zegoen, eta hark merkataritza-harremana izana zuen NASIParekin, gutxienez ere bazkide pribatu horrek ordaindu zuen lehenengo proiektuaren erredakzioan eta sozietate mistoa eratzeako eskaintza aurkezterakoan. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago ezen, eskaintzak baloratzeko organo horren akten arabera, hura presente egotea soilik jasota dagoela 1. gutun-azala –"Dokumentazio tekniko eta administratiboa"– irekitzeko unean.*
- *Esleipen-hartzaileak orrietan exijitutako bermeak ez betetzea, bereziki obra-ziurtagiriei buruzko atxikipenei buruzkoak; fidantzarik ez egote hori kontabilitate-erantzukizuneko kasu bat izan daiteke. Horri dagokionez, Andacelayk informatutakoaren arabera, eraikuntza-arazo batzuk antzematen ari dira etxebizitzaren eraikuntzan, eta haien konponketa berme horiekin finantzatu beharko zen.*

**Lehenengo eta behin, etxebizitzak egiteko obrak kontratatzeari buruz hitz egiten hasteko, sozietate mistoa eratzeako, lur-zatiak besterentzeko eta proiektuaren erredakziorako eta obra-zuzendaritzarako deialdiko kontratazio-orrietara eta aurkeztutako eskaintzetara jo beharko litzateke.**

Sozietate mistoa kontratatzeako baldintzen pleguan, kaudimen tekniko eta ekonomikoa dela-eta baldintza batzuk ezartzen dira, eskaintzaileek nahitaez bete beharrekoak. Honako hauek dira:

#### A) Kaudimen tekniko eta ekonomikoa egiaztatzea.

Lizitatuak orok kontratua gauzatzeko **kaudimen ekonomiko** eta finantzarioa dutela frogatu beharko du, hau da, enpresak ekonomia- eta finantza-egoera egokia duela, eta inolako gorabehera ekonomiko edo finantzariok ez diola eragotziko kontratua behar bezala betetzea.

Kontratu honetan, egiaztatzea honakoaren bidez eginen da: uneoro hurrengo bi ratioak bete beharko dira. Elkarrekin parte hartzen duten enpresek ratioak bakoitzak bere aldetik bete beharko dituzte. **Ratioak 2008ko ekitaldiko urteko kontuetan**, Erregistroan jasotakoetan, oinarritzen dira.

**Likidezia= Diruzaintza/Pasibo Zirkulatzaila > % 5**

**Kaudimena= Aktibo Zirkulatzaila/Pasibo Zirkulatzaila > 1,5**

Lizitatuak orok kontratua betetzeko **kaudimen tekniko edo** profesionala duela egiaztatu beharko du honakoaren bidez: egiaztatu beharko da enpresek **gutxienez ere 250 etxebizitza babestu sustatu dituztela**. Aurkeztutako sustapenetako batek 100 etxebizitzakoa edo gehiagokoa izan beharko du.

Deialdi horretara, 6 eskaintza aurkeztu ziren: Sarriguren Constructora Promotora, Euspen, S.A., Iruña Construcciones, Adania, Abaigar eta Nasipa. Eskaintzak aurkeztutako enpresa guztiek, beren proposamenetan jasotako datuen arabera, kaudimenaren ratioa gainditzen dute, baina soilik Nasipa eta Abaigar iristen dira 1,6ko kaudimen-ratioa.

138 etxebizitza eraikitzeko obren kontratazioarako baldintza arautzaileen orrietan, lizitatuak bete beharreko kaudimen tekniko eta ekonomikoko baldintza batzuk eskatzen dira. Honako hauek dira:

6.- Onartuak izateko alde aurreko baldintzak.

*Lehiaketa honetako esleipen-hartzailea izan ahal izateko ezinbesteko betekizuna izanen da ondoren aipatzen diren baldintzak betetzea:*

A) EKONOMIA- ETA FINANTZA-KAUDIMENA

Enpresek, 2008ko ekitaldiko Merkataritza Erregistroko kontuak eta 2009ko ekitaldiko kontu auditatuak aurkezteaz gainera, **egiaztatu beharko dute ekonomia- eta finantza-kaudimeneko gutxieneko baldintzak betetzen dituztela**, honakoak, hain zuzen ere:

**a) Enpresaren ondare garbia gutxienez ere lizitazioaren eredu-prezioaren % 20 izanen da.**

**b) Enpresaren likidezia-adierazlea % 5,25etik gorakoa izanen da.**

**c) Ekonomia-kaudimenaren ratioa 1,6 baino handiagoa izanen da.**

Kaudimena eta likidezia kalkulatzeko modua:

- $Likidezia(\%) = \text{Diruzaintza/Pasibo Korrontea} * 100$ , auditatutako azken balantzearena
- $\text{Ekonomia-kaudimena}(\text{maniobrarako funtsa}) = \text{Aktibo Korrontea/Auditatutako azken balantzeko Pasibo Korrontea}$

a), b) eta c) letretan adierazitako baldintzetatik edozein ez betetzeak berarekin ekarriko du Kontratazio Mahaiak lizitatuak prozeduratik kanpo uztea. Enpresen aldi baterako batasun bat aurkeztuz gero, enpresa bakoitzak bere aldetik bete beharko ditu baldintzak.

. Halaber, finantza-entitateak emandako txostena aurkeztu beharko du, kaudimena egiaztatze aldera.

## KAUDIMEN TEKNIKOA

Lehiatzaile orok egiaztatu beharko du **eskariak aurkezteko epea amaitu aurreko hiru urteetan, gutxienez ere 250 etxebizitza babestu eraiki dituela eta gutxienez ere lizitazioaren xedearen pareko etxebizitza-kopuru bat sustatu duela**. Hori guztia justifikatzeko behar diren egiaztagirak aurkeztu beharko ditu (sustatzaileen ziurtagiriak, zuzendaritza fakultatiboaren ziurtagiriak edo obra amaierako ziurtagiriak).

Eragin horietarako, eraikuntza obrak lehiatzaile batek beste enpresa batzuekin batuta edo haiekin elkarte bat osatuz egin dituenean, lizitatuak dagokion etxebizitzaren zati proportzionala joko da egintzat.

**Enpresenaldi baterako batasun bat aurkeztuz gero, enpresa bakoitzak bere aldetik bete beharko ditu baldintzak.**

**7.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena**

*Lehiatzaileak 2008-2009 ekitaldiko urteko balantzeak eta galeren eta irabazien kontuak aurkeztuko ditu, seigarren klausulako A) atalean adierazitakoaren arabera, bai eta lizitatuzaileen ekonomia-kaudimena egiaztatzen duten finantza-entitateek emandako txosten egin berria ere. Hori guztia ALDEZ AURREKO BALDINTZA izanen da eskaintzak ONARTZEKO.*

Merkataritza Erregistroan gordailatutako kontuen, urteko kontuen eta sozietate mistoaren kontratazioarako deialdian –erantsi denean– jasotako informazioaren azterlan konparatiboa eginez, kaudimen teknikorako ezarritako baldintzak gehituta, honakoa ondoriozta daiteke:

- Ekonomia- eta finantza-kaudimena dela-eta jasotako ratioek normalean Nafarroan jarduten duten eraikitzaile/sustatzaile gehienei ez dietela aukerarik uzten lehiaketan parte hartzeko. 20 baino gehiago aztertu ondoren, 7 dira, Nasipa barne, ekonomia- eta finantza-kaudimenaren betekizunak betetzen dituztenak.
- Behin ekonomia- eta finantza-kaudimeneko ratioak aplikatuta, kaudimen teknikorako jasotako ratioek balizko bi eskaintza-egileri baizik ez diete biderik uzten: Nasipa eta, kasua bada, Acciona. Dokumentazio juridiko eta administratiboaren irekiera-aktan bertan ezartzen da ezen "1 gutun-azala, "Dokumentazio juridiko administratiboa" aztertuta, printzipioz soilik NASIPA onartuko litzatekeela, zeren eta bera baita ekonomia-kaudimenari buruzko orriaren betekizuna egiaztatzen duen bakarra; eta posta bidez jakinaraziko litzateke beste bi enpresei, kaudimen-ratioen betetzea egiaztatu nahi badute ere". Accionak bere ekonomia-kaudimena egiaztatu zuen.

Hemen planteatutako gai guztietatik ondorioztatzen da ezen, erantzukizun juridikoak eta behin-behineko txostenean jada aipatutakoa alde batera utzita, hautapen prozesuan ez dela lehiarik gertatu.

Aurreko guztia dela eta:

Eskatzen da behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak aurkeztutzat jotzeko eta horren arabera haiek behin-behineko txostenean sartzea erabakitzeko.

Justiziazkoa delakoan eskatzen da, Sarrigurenen, 2014ko ekainaren 19an.

Eguesibarko Udaleko alkatea: Alfonso Etxeberria Goñi

**ANDACELAY SOZIETATE PUBLIKOKO LEHENDAKARI OHI JOSÉ ANASTASIO ANDÍA GARCÍA DE OLALLA JAUNAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

A: Kontuen Ganbera

Gaia: Eguesibarko Udalaren sozietateak

Jaun-andre horiek:

"Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2004-2013)" izeneko behin-behineko txostena 2014ko ekainaren 10ean igorri zenidaten, posta elektronikoz bidez. Hari dagokionez, berriz ere esan behar dizuet, aurreko komunikazioan egin nuen bezala, 2013ko martxoan utzi niola udal horretako alkatea izateari, eta gaur arte ez dudala harekin inongo harremanik izan; halaber, urtebete baino gehiago lehenagotik utzia nion aipatutako merkataritza-sozietateetan ardurarik izateari.

Aurtengo urtariletik Bartzelonara aldatu dut helbidea, lan arazoak tarteko; horrenbestez, berriz adierazten dizuet ezinezko zaidala behar den dokumentazio teknikoa eskuratu behin-behineko ondorioei buruzko alegazioak zorrotasunez aurkezteko.

Halaber, jasota utzi nahi dut –bai eta horregatik protesta egin ere– behin-behineko txostenari buruzko alegazioak aurkezteko emandako epea laburra dela, kontuan izanda Kontuen Ganberaren Erregelamenduak arautzen duela alegazioak aurkezteko gehieneko epea 15 eguneko dela; izan ere, kasu honetan, gainera, 8 egun naturalera mugatu da epea hori. Horri aurrez azaldutako inguruabarrak gehituta, oso modu agerikoan mugatuta dago defentsa egokirako dudak eskubidea.

Egiaztatu ondoren behin-behineko txostenean ez dela jaso behin-behineko zirriborra dela-eta eman nituen argitasunetatik bakarra ere, berriz ere ondokoa diot, ALEGAZIO moduan:

**LEHENA.**- Txosten honek "ikerketa batzordea" izenaz ezagutzen denaren ondorioen zati handi bat jasotzen badu ere, Eguesibarko Udalaren 2012ko otsailaren 7ko Osoko Bilkuraren aktara (alegazioen aurreko idazkiari gehitu zaio) jotzeko eskatzen dut, bertan ematen baitaie erantzuna ondorio horietatik gehienei (41-62 orrialdeak). 41-62). Gainera, erantzun horiek, beste batzuen artean, Agoizko Epaitegiari helarazi zitzaizkion, behar den dokumentazio teknikoarekin eta euskarri-dokumentazioarekin batera.

Hori dela eta, Ganberari eskatzen diot aipatutako Osoko Bilkuran emandako erantzunak aztertu eta balora ditzan, eta aktan jasotako adierazpenak egintzat har ditzan.

**BIGARRENA.**- Nolanahi ere, gaietako batzuk 2012ko otsaileko erantzun horretan islatu ez zirenez, zeren eta data hori baino geroagoak baitira, eta erreferentziako txostenaren atalen bat argitzen saiatze aldera, azaltzen dut 66 PTEren lehenengo sustapeneko obretan zehar ustekabeko batzuk gertatu zirela. Ustekabeko horiek 162 etxebizitzaren obra berrian berriz gertatuko zirela sinetsita geundenez, jakinarazi ziguten hobekuntza batzuk egiteko modua bazegoela, eta haiekin etxebizitza horietan kalitate handiagoa lortuko litzatekeela eta etorkizunean eraikuntzako alderdi batzuetan arazoak saihestuko zirela.

Gure erantzuna ezezkoa izan zen, zeren eta prezio itxiko aurrekontu bat baitzen, eta hobekuntza horiek, etxebizitzaren kalitatea handitu eta salmenta ondorengo arazoak saihesten bazituzten ere, kostu handiagoak ekarriko zituzten, eta udal sozietateari egoztekoa zen etekina txikiagoa izanen zen.

Sustatzailearekin zenbait elkarrizketa izan ondoren, erabaki zen hobekuntza horiek egitea (objektiboki, beharrezkoak baitziren), baina une hauetan adierazten dugu sozietate mistoari fakturatu nahi dizkiogula eginak zituen kontrol- eta kudeaketa-zerbitzu haiek, zeinak gaur arte fakturatu gabe baitzeuden.

Puntu honetan, Kontuen Ganberak aditzera ematen du Andacelay merkataritza sozietateak ez duela baliabiderik sozietate mistoari zerbitzuak emateko, baina ahaztu egiten zaio Andacelayk erabiltzen zituen baliabideak Udalarenak berarenak zirela.

Kontua da Udalak egiazko kontrol bat egin zuela eta Nasipak egindako obrekin lotutako burokrazia administratiboko kontuak kudeatu zituela, eta horregatik kobratu zuela merkatuaren arabera bidezkotzat jo zuena, Andacelayren bitartezko fakturak eginez.

Horrenbestez, Nasipa, S.L.ren fakturei eta Andacelayk egindakoei dagokienez, esan behar dut egiazkoak direla, obra-aldaketei eta aldaketa horien gaineko kontrol-lanei dagozkiela, haiei buruz luze eztabaidatu genuela eta, azkenean, ontzat eman zirela obra likidatzeko garaietan, gutxi gora-behera, berme-aldia amaituta zegoenean (obrak jaso zirenetik urtebeteko epean).

Faktura horien alde informatu zuten bai obra zuzendaritzak, bai udal teknikariek eta Andacelayko kudeatzaileek ere, eta horri buruzko dokumentazioa tokiren batean egonen da, Udalean, Andacelayn, sozietate mistoan edo Nasipan, zeren eta Nasiparen eta Andacelayren arteko eztabaidagaia izan baitziren.

Gaur egun gogoan dudanetik (ezin baitut dokumentaziora jo), fakturak hiru kontzepturi buruzkoak ziren:

- Obrako ustekabeak, zeren eta lursailean iturri natural bat agertu baitzen.
- Zuzendaritza fakultatiboaren aldaketen ondoriozko ustekabeak.
- Sozietate mistoko bazkideek onetsitako kalitate-aldaketak; esate baterako, ate trinkoak jartzea barne-hutsen ordez...

Ulertzen dut aldaketa horiek obra-aginduen liburuetan jasota egon beharko dutela. Halaber, jasota utzi behar dugu ziurtagiri horiek ordaintzeko bazkide pribatuarekin itundu genuela haiek beti Andacelayk kobratu ondoren kobratuko zutela, eta beti diruzaintzan zeuden aukeren arabera, zeuek ere egiaztatuko zenuten bezala.

**HIRUGARRENA.**- Hirugarren sustapenari dagokionez, egiazki Andacelayk modu positiboan baloratu zuen Nasipak finantza-kostuak bere gain hartzea, baina beti hitz egin zen eta hitzartu zen sustapenaren amaierako kostuak izatea, orduan kontrol hobea edukiko baitzen ekarpenaren zenbatekoaz, kontusail hori aldagarria izaten baita.

Izan ere, Nasipak eskaintzan egin zuen aurreikuspena 400.000 euro ingurukoa zen, eta milioi bat gora egina zuen, txostenaren arabera. Gainera, mailegua eskatu egin behar zuen eta mistoa itundu behar zuen, sustatzaile gisa, eta hartara kontabilizatu behar zuen.

Kanpainako laugarren hilabeterako sustapeneko etxebizitzaren % 92 salduta zegoenez, horrek ekarri zuen sustapenaren amaieran diruzaintza-egoera nahikoa izatea finantza-gastu horiek konpentsatzeko bazkideentzako etekinaren banaketaren bitartez. Ezerk ere ez zuen une hartan susmarazten, aurreko sustapenen eskarmentuarekin, txostenean iruzkindu den amaiera gertatuko zenik.

Era berean, bazkide pribatuarekin hitzartu genuen amaierako ziurtagirian obraren guztizkoaren % 5eko atxikipena eginen zela, nahiz eta gure bazkidearekin aurreko beste sustapen batzuetan izandako esperientzia positiboagoa izana zen, erreklamazioei erantzutearen ikuspuntutik.

**LAUGARRENA.**- 2012ko apiriletik, Andacelayko egungo izatezko –ez eskubidezko– kontseilariek ederki dakite egoera zertan den, zeren eta gaia aztertu baitzen "ikerketa batzordea" deitutakoan. Une horretatik aurrera, pertsona horiek sozietatearen agente eraginkorra izan dute. Izan ere, 2011ko kontuak antzinako administratzaileek sinatu zituzten berrien aginduz, eta fakturak azken horiek baliozkotu dituzte.

Balio dezatela iruzkin hauek erakusteko sozietateko "izatezko" administratzaileek nahikoa eta sobra ezagutzen zutela egoera 2012ko otsailetik.

Nabarmentzekoa da sustapen honetan izandako uko-egiteak askoz gehiago izan direla aurreko bi sustapenetan izan zirenak baino. Beste arrazoi batzuen artean, ulertu behar dugu gure sustapenak hartutako ospe txarra, Udalaren barruko sektoreren batetik sistematikoki jaurtikitako publizitate negatiboaren eta difamazio-kanpainaren ondoriozkoa, erabakigarri gertatu dela uko-egiteen kopuru handi horretarako.

Nasipak konkurtsoan sartu izanak ez du aldatzen hitzartutakoa (interesen ordainketa), eta, horrenbestez, aitortu beharko litzateke konkurtsoko kreditu gisa, eta konkurtsoei buruzko legedian ezarritakoaren arabera ordaindu beharko litzateke.

**BOSGARRENA.-** Ulertu genuen lehenengo bi sustapenak 1. sozietate mistoa eratzeko hasierako lehiaketan babestuta zeudela, eta horixe abalatu zuen Kontratazio Batzarrak lur-zatien eskualdaketari buruz (eskatzen dut hitzez hitz transkriba dadila, txosten hori alde batera lerratu gabe).

Sozietate horren funtzionamendua zalantzan jartzen duen Kontuen Ganberaren txostena ezagutu bezain laster, behar ziren neurriak hartu ziren, Ganberaren jarraibideak zorrotz betez, bazkidea bilatzeari, lur-zatien transmisioari, obra-kontratuei eta abarrei dagokienez.

Esperientzia horrek, Ganberaren beraren datuen arabera, berarekin ekarri du 3 milioi euro gehiago izatea, lur-sailen besterentze hutsean oinarritutako konkurtso bat egin izan balitz lortuko zenarekin alderatuta.

Amaitzeko, nabarmenduko dut sozietate mistoen bitartezko zeharkako kudeaketak errentagarritasun handia ekarri diola udalerriri eta, azken batean, biztanleen eta etxebizitza babestuen egungo eta etorkizuneko esleipen-hartzaileei, zeren eta horren bidez kalitate handiagoko etxebizitza batzuk eta udal zerbitzu gehiago lortzen baitituzte, udalerrientzako etekin handiak lortzearen bidetik. Izan ere, Eguesibarkoa da Nafarroako udaletatik, gaur arte, zorrik batere ez duenetako bat.

Aukera honetaz baliatuta, agur egiten dizuet, adeitasun handiz, beti bezala.

José A. Andía



**NASIPA, S.L.REN ADMINISTRATZAILE BAKAR SATURNINO LUIS EZQUERRA JAUNAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Saturnino Luis Ezquerria jauna –adinduna, 15.241.860 J zk.ko NANA duena– NASIPA, S.L.ren administratzaile bakarra da, erantsitako kopian (1. agiria) ageri den administratzaile bakarraren izendapenari buruzko eskrituraren arabera. Helbidea Iruñean du, Remigio Múgica kaleko 2. zenbakiko beheko solairuko kanpoaldean. NASIPA, S.L., berriz, Nafarroako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago, 477. liburukiko, 9. folioko, NA-8.354 orrialdean, eta B-31.499.577 IFZ dauka. Saturnino Luis Ezkerria jauna Administrazio horren aurrean agertu eta honakoa ADIERAZI DU:

2014ko maiatzaren 20an, "Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2004-2013)" txosteneko lehenengo "aldaketak egiteko zirriborroa" helarazi zitzaigun, egokitzat jotzen genituen iradokizun eta iruzkinak aurkeztu ahal genitzan, agiri hori jaso eta hamar eguneko epean.

2014ko maiatzaren 30ean, alegazioak posta elektroniko bidez igorri genituen –Ganbera horrek berariaz onartzen duen bidea da hori–, baina, horretaz gainera, 2014ko ekainaren 2an, astelehenez (Kontuen Ganberaren Erregistroa jendearentzat irekita dagoen hurrengo egun baliodunean), idazki horren kopia bat aurkeztu genuen, alegazioetan aipatzen den dokumentazio erantsi ugarirekin, dokumentazio hori ezin baitzen posta elektroniko bidez bidali.

2014ko ekainaren 10ean, egun horretan bertan onetsitako behin-behineko txostena jakinarazi zaigu, eta gure aldeari beste 8 eguneko epe bat eman zaio alegazioak egiteko.

Behin-behineko txostenak hasierako zirriborroko gai batzuk zuzendu dituen arren, jotzen dugu oraindik ere akats ugari, errealitatearekin bat ez datozen ondorioak eta interpretazio lerratuak, behar den errespetuarekin esanda, jasotzen dituela. Hori dela eta, gure aldeak legitimazioa du, Ganberak berariaz aitortzen duen bezala, behin-behineko txostenari alegazio berriak aurkezteko, eta horixe eginen du honen bidez.

Behin-behineko txostenaren xehetasunetara eta gure sakoneko alegazioetara sartu aurretik –bide batez, aurreratzen dugu zirriborroa dela-eta aurkeztutako en oso antzekoak izanen direla, zeren eta Ganberak egindako aldaketak oso-oso txikiak baitira–, prozedura-kontu oso garrantzitsu batzuk aipatu nahi ditugu, zeren eta zuzeneko eragina baitute gure aldearen –eta, gure ustez, beste txostenak ukitutako beste alde batzuen– defentsarako eskubidean.

Txostenak berak Sarreran dioen bezala, Parlamentuak 2012ko abenduaren 10ean egindako eskari bati erantzuten dio; izan ere, eskari hori Kontuen Ganberaren 2013ko jarduketa programan sartu da.

Aurrekoa alde batera utzita, 2014ko maiatzaren 20ra arte ez da Ganberan gure aldearekin harremanetan jarri jada erredaktatuta zegoen hasierako zirriborroari buruzko alegazioak eskatzeko.

Hau da, enkargua egin eta urte eta erdiaren buruan igorri da zirriborroa.

Beraz, Ganberak lehenengo zirriborroa –konplexua eta bolumen izugarri handikoa– idazteko urte eta erdiko epea izan zuen; alegazioak aurkezteko, ordea, 10 eguneko epea eman zuen.

Ahalegin izugarria eginez, are gehiago nire mandatu-egilea dagoen konkurtso-egoera eta langilerik eza kontuan hartuta, soilik 9 egun naturaletan lortu genuen alegazio oso beteak aurkeztea, 44 orrikoak, eta haiekin batera dokumentazio ugari eta anitza ere aurkeztu genuen, alegatutakoarekin zuzeneko lotura zuena.

Ez dakigu aurreko alkateak edo txostenak ustez ukitutako beste batzuek alegaziorik aurkeztu zuten, ez eta nolako alegazioak ziren ere, baina egiazki harrigarri gertatzen da hurrengo 8 egun naturaletan Ganberak alegazio horiek ez ezik, haiekin aurkeztu genuen dokumentazio ugaria aztertzeke modua izatea, exijitzekoa litzatekeen xehetasunarekin.

Izan ere, egiaztatu dugu emandako behin-behineko txostenean, 8 egun natural horietan onetsitakoan, zuzendu egin direla gure alegazioetan aditzera emandako akats agerikoenak –esate baterako, datetan zeuden nahaste batzuk–, baina gainerakotik ia ezer ez da kontuan izan. Gure aldeak ez daki horretarako arrazoiak zein diren, zeren eta alegazioei ez baitzaie ezer erantzun.

Baldin eta horri gehitzen badiogu behin-behineko txostenari alegazioak aurkezteko aldi berria are

laburragoa dela, 8 egun naturalekoa, ageri-agerikoa da gure aldearen –eta, gure ustez, gainerako ukituen– defentsarako eskubidea izugarri mugatzen dela. Izan ere, badirudi alegatzen dena alegatzen dela ere, eta dokumentazioa aurkeztuta ere, Ganberak ez duela bere iritzia –askotan, okerra– aldatuko.

Are gehiago, kontuan hartzen badugu Kontuen Ganberak berak bere webgunean dokumentu bat baduela, "Nafarroako Kontuen Ganberaren fiskalizazio-prozedurari buruzko informazio orokorra" izenarekin

(<http://camaradecomptos.navarra.es/imgx/pdf/Transparencia%20Informac%20procedimiento%20fiscalizad%20or.pdf>), non esaten baita behin-behineko txostenari alegazioak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa dela, ez dugu ulertzen zergatik mugatu den 8 egunera eta zergatik zirriborroari alegazioak aurkezteko epea luzexeagoa (10 eguneko) izan den.

Halaber, jotzen dugu justifikaziorik gabekoa dela Ganberak egun naturalak zenbatzea, eta ez egun baliodunak, are gehiago Ganberaren beraren ebazpenak ([http://camaradecomptos.navarra.es/imgx/pdf/Resolucion%20horario%20registro%20CComptos%202014\\_firmado.pdf](http://camaradecomptos.navarra.es/imgx/pdf/Resolucion%20horario%20registro%20CComptos%202014_firmado.pdf)) ezartzen duenean Erregistro eraginetarako egun baliodunak soilik astelehenetik ostiralera izanen direla, 8:30etik 14:30era.

Azkenik, jakinarazi berri diguten behin-behineko txostenak ez du jasotzen zirriborroan aldaketak egiteko kontrolik; izan ere, kontrol horrek berrikuspen lana erraztuko zuen.

Azken batez, adierazitako guztia dela eta, jotzen dugu Ganberak gaur arte aurrera eraman duen prozedurak parez pare talka egiten duela bere araudiarekin berarekin eta, batez ere, txostenak ukitutako defentsarako eskubide egokiarekin.

Berriz diogu urte eta erdiko epean egindako txosten bati buruz ari garela, eta alegazioetarako, ordea, epe murrizak ematen direla, egun naturaletan kontatuak. Alegazio horiek gero Ganberak abiada biziko epeetan analizatzen ditu, haiei erantzunik eman gabe eta haiek aztertu gabe, eta hori adierazgarri ezin nabarmenagoa da alegazio horiek zorroztasunez aztertu ez izanarena eta Ganberak alde aurretik jarrera finkatua edukitzearena gure aldetik edo beste edozein ukituren aldetik esan daitekeenari buruz.

Nolanahi ere, ondoren, eskabide honen eranskin gisa, hasierako zirriborroari buruzko alegazioetan aurkeztutakoaren berdin-berdina den dokumentua aurkeztu dugu, non argitzeko/aldatzeko/deuseztatzeko eskatzen ditugun gai garrantzitsuak banan-banan aztertzen diren, atal bakoitzari dagokion moduan. Dokumentua, ezinbestez, zirriborroaren garaian aurkeztu genuenaren oso antzekoa da, zeren eta ordukoa ez baita ia batere kontuan hartu, zergatik ez dakigula. Halere, batzuetan (gutxieneko kasuetan) aurreko idatzikoak kendu egin ditugu, zeren eta behin-behineko txostenetik ere kendu baitira; beste batzuetan, berriz, ordukoen buruzko xehetasun edo argipen batzuk sartu ditugu, behin-behineko txosteneko aldaketen eraginez.

Berariaz eskatzen dugu zirriborroari buruzko alegazioekin batera aurkeztu genuen dokumentazio ugarira jotzeko (kasuko ataletan identifikatzen da hori). Hau da, ez dugu dokumentazio beraren kopia berriz erantsi, zeren eta Ganberak bere esku baitu. Hartara jotzeko eskatzen dugu, besterik gabe.

Honakoa da eskema, betiere exekutiboak izateko eta Ganberaren berrikuspen-lana errazteko asmoz egina:

- Ganberak antzemandako ustezko ez-betetzea, zirriborroko ondorioak hitzez hitz transkribatuta.
- Enpresa honen iruzkinak eta argipenen, aldaketen eta barren eskaria.
- Euskarriko dokumentazioari buruzko aipamena.

Arren eskatzen dizuegu gure alegazioak aintzat hartzeko, poliki aztertzeko eta zirriborroa aldatzeko. Hala egin ezean, gehi iezaiozue idazki hau osorik (eskabidea eta alegazioak) behin betiko txosten gisa onesten den testuari.

Nolanahi ere, geure esku gelditzen da egitateen egiazkotasuna argitzeko eta enpresa honen izen ona aldezteko bidezkoak diren ekintza guztiez baliatzea, bai eta aipatzen diren egitateetatik eratorritako edozein erreklamazio ekonomiko egitea ere.

Iruñean, 2014ko ekainaren 18an

Sinatua: Saturnino Luis Ezquerria

## I. SOZIETATE MISTOEN BOTERE ESLEIPEN-EGILEAREN IZAERA

### GANBERAREN TXOSTENA.

14. orrialdea. *Horri buruz, Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak, 2009ko txostenean, ondorioztatzen zuen etxebizitzaren sustapenerako sozietate mistoa " entitate esleipen-egilea dela, Nafarroako Kontratuari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 2. artikuluan aipatzen direnetakoa, eta, horrenbestez, bere obra-, hornidura eta laguntza-kontratuak foru lege horretako II. liburuan adierazitakoaren arabera esleitu behar dituela".*

### NASIPAREN IRUZKINAK

Azken gai horri dagokionez –"entitate esleipen-egilearen izaera"–, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 2. artikuluari jarraituz, betiere hura interpretatuz Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, entitate batek, Kontratuari buruzko Foru Legearen menpe egoteko, honako baldintzak guztiak bete behar ditu:

a) Nortasun juridikoa izatea.

b) Bere jardueraren bidez, neurri batean bederen, interes publikoko helburuak betetzea, industri edo merkataritza izaerarik ez dutenak.

c) Kontrol publikoko moduren bat egotea, dela jardueraren erdiaren zuzeneko nahiz zeharkako finantzaketaren bidez, dela haren kudeaketa kontrolatzen duten mekanismoen nagusitasun-eraginaren bitartez, dela administrazio- zuzendaritza- edo zaintza- organoetako kideen erdiak baino gehiago izendatzearen bitartez.

Kontuan hartu beharra dago, gainera, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere jurisprudentzian adierazia duela betekizun horien betetzea irizpide funtzionalarekin egin beharra dagoela.

b) atalean aipatzen den baldintzari dagokionez, adierazi beharra dago merkatuan esku-hartzearen kasu hauetan argudiatu ohi dela lehiari dagoen merkatu bat egoteak egiazta lezakeela merkataritza- eta industria-jarduera baten aurrean gaudela, eta horrek berarekin ekarriko lukeela entitatea ez egotea kontratazio publikoaren betebeharren menpe.

Entitate batek merkataritza- nahiz industria-izaerako interes publikoko xedeak betetzeko, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen aplikazioaren eraginetarako eta lehiari dagoen merkatu bat dagoela egiaztatzen bada, kontuan hartu behar da ea entitatea irabazi asmoarekin eratu den eta, bigarrenik, era haren merkataritza- nahiz industria-jardueran bere jardueratik heldu diren arriskuak jasaten dituen; hau da, kudeaketaren ondoriozko galeren kasuan entitate publiko baten bermea duen ala ez.

Horrenbestez, sozietate mistoen merkataritza- nahiz industria-izaerako interes publikoko xedeei dagokionez, Eguesibarko Udalak izan behar du agerian jartzen duena eta zehaztasun handiagoz zehazten duena zergatik eratu zituen eta zein izan zen haiek eratzeko erabakiaren arrazoi garrantzitsuena, alde batera utzi gabe itxura batean sozietateek merkatuarekin lehia egin duten merkataritza- nahiz industria-jarduerak (etxebizitzak sustatu eta eraikitzea) garatu dituztela Udalak etxebizitza babestuko eskaintza zeukan garaian (2.000 baino gehiago etxebizitza babestu eta 3.000 baino gehiago etxebizitza babestu egiteko eskaintza berri baten aurreikuspena; azken hori Sarrigurengo bigarren fasean) eta udalerrak 5.000 biztanle inguru zituenean –horrenbestez, etxebizitza sozialaren beharra nahikoa eta sobra beteta zegoenean eta sozietate horien xedea funtsean merkataritzakoa eta merkatuan lehia egitekoa zenean–. Nabarmendu beharra dago bigarren sustapenaren kasuan kalifikazioa 2007ko urtarrilaren 2an aurkeztu zela, diru-sarrerak handitzeko xede bakarrarekin, % 7,43ko modulu-igoerari atxikita. Ulertzen dugu interes publikoko inbertsio batean etekinaz beste helburu batzuk nagusitu behar direla; inbertsio hauetan, zehazki, bazkideek % 260tik gorako TIRak lortu dituzte.

Entitate batek interes publikoko xedeak betetzeko bigarren baldintzari dagokionez, nabarmendu beharra dago galeren kasuan bermea entitate pribatuak ematen duela, zeren bera baita kudeaketan galerak izateko kasuan bermeak aurkezten dituen bakarra.

Promoción y Gestión Egüés 21, S.A. ren xedea honakoa da:

*"Mota guztietako higiezinak eskuratzea eta eraikitzea; higiezinak sustatzea, urbanizatzea,*

*kudeatzea eta merkaturatzea; bai eta jarduera horiekin zerikusia duten beste edozer jarduera osagarri ere”.*

Nolanahi ere, bistan denez, Kontratazio Publikoaren Batzarraren iritziz, ondorioztatzen da lurzoruaren udal ondareko orubeetan etxebizitzak sustatzeko ekonomia mistoko sozietate batek ezin duela inolaz ere industria- nahiz merkataritza-izaerako xederik, nahiz eta etxebizitzaren merkaturatzea lehia egin, lehiakortasunaren arauen menpe. Eta hori hala da babes-araubideren baten menpeko etxebizitzak direlako eta haien jatorria lurzoruaren udal ondarean dagoelako.

Horixe ondorio juridiko bat da, zalantzarik gabe oso eztabaidagarria izan daitekeena, kontraktorako argudioak bai baitaude.

Alabaina, hasieran esan dugun bezala, Kontratazio Publikoaren Batzarraren irizpidea ezagutu baino askoz ere lehenago, NASIPAK (sozietate mistoen kudeatzaile eginkizunetan ari zela) beti adierazi du sozietate mistoaren kontratazioak egon behar zuela kontratazio publikoaren araudian exijitzen diren publikitate- eta lehia-printzipioen menpe, aipatu den bezala. Txosten hori eman ondoren, badakigu kontratazioa Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legeko II. liburuko arauen menpean egon dela.

Berriz diogu aurrekari eta iruzkin horiek jaso behar direla, bai eta sozietate mistoen izaerari buruz dauden zalantza juridiko agerikoak ere, hartara gaia bere testuinguruan egoki jartze aldera. Bestela, txostenak halako sentsazio bat ematen du –agian horixe baita bilatzen dena– zeinaren arabera bai Udalak, bai NASIPAK ederki baitzekiten sozietate mistoak eratu zirenetik haiek botere esleipen-egileak zirela, eta hori alde batera utzi nahi izan zutela kontratazio publikoaren arloko araudia ez betetzeko; hori, ordea, guztiz okerra da.

## **II. ANDACELAYRI BURUZKO ONDORIOAK.**

### **A) 3-A-9 LUR-ZATIAREN "ZUZENEKO" SALMENTA.**

#### GANBERAREN TXOSTENA.

29. orrialdea. Azken batean, Egüés 21, S.A. sozietate mistoaren eraketa arautzeko orriek kontratua beste jarduketa-esparru batzuetara zabaltzea aurreikusten bazuten ere, Kontratazio Batzarrak 2009ko txostenean esan zuen orri horiek "oinarrizko baldintza juridiko, ekonomiko eta teknikoak" jaso behar zituztela, gehikuntza horiek arautzekoak. Halako baldintzarik ez da jaso aztertutako orrietan. Kontuen Ganberaren iritziz, horrenbestez, lur-zati horren salmenta eta Andacelayk etxebizitzaren sustapena zuzenean kudeatzearen negozioa ez ziren izan publikitate eta lehia printzipioen arabera, zeinak exijitzekoak baitira kontratazio publikoaren araudiaren arabera.

30. orrialdea. Azken batean, aurreko eragiketei dagokienez, Ganbera honek jada bere txostenetan adierazi zuen Andacelayk bigarren lur-zatia zuzenean Egüés 21, S.A.ri esleitzea ez zela izan kontratazio publikoari buruzko araudian aipatzen diren publikitate eta lehia printzipioen arabera.

#### NASIPAREN IRUZKINAK

Hasierako lehiaketaren helburuak kontratatutakoaren zuzeneko esleipenerako gaikuntza ematen zuen, oso zabala baitzen eta berariaz aurreikusten baitzuen sustapen/eraikuntza-jarduera beste esparru batzuetara zabaltzea, eta batzuk orientabide gisa aipatzen zituen. Horrenbestez, NASIPAK ekintzak gauza zitzakeen, baldin eta beste lehiaketa batzuetarako deia izan balitz.

Jada adierazi dugun bezala eta Kontratazio Aholku Batzarraren 34. puntuan xehetasunez aztertzen denez, orria legekotzat jo da eta, bereziki, hartan aurreikusitako aukera, Lurzoruaren Udal Ondarea etorkizuneko lur-zatietara zabaltzekoa.

Horrenbestez, lur-zatiaren bigarren eskualdaketak, bigarren sustapenerako egindakoak, estaldura du orrietan eta Kontratazio Batzarraren txostenean. Are gehiago: lehenengo sustapenean jada gertatu zen bezala, lur-zatiaren besterentzea, etxebizitza babestuak egiteko xedea duenez, legez ezarritako gehieneko prezioaren arabera egin da; horrenbestez, enkante bat eginda ere ezin zen prezio altuagorik lortu.

Nolanahi ere, onartuta ere Kontratazio Batzarrak arrazoirik ez izatea, hau da, lur-zatiaren etorkizuneko eskualdaketak lehenengo lehiaketan hasierako estaldura ez edukitzea, Lurraldearen

Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 228. artikulua hitzez hitz diotenari erreparatuta, Udalak Andacelayri zuzeneko eskualdaketa egin diezaiolke, eta azken horrek sozietate mistoari eskualda diezaiolke, enkante-prozedurara jo gabe, kapital-zabalkuntzaren bidetik, diruz besteko ekarpen gisa, orriek eranskinen 3. atalean dioten bezala.

Are gehiago, jo liteke lur-zatiaren ekarpen hori Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legeko 8. artikulua barruan sartzen dela –ente instrumentalei kontratuak enkargatzeari dagokionez–, zeren eta nekez jo baitaiteke sozietate mistoak erabakitzeke autonomia duenik Udalari edo Andacelayri dagokionez, sozietatearen % 51 Udalarena denean eta 3 kontseilarietatik 2 Udalak izendatzen dituenean.

Nolanahi ere, norabide bateko zein besteko argudioez haratago, berriz diogu Nafarroako Kontratazio Batzarrak, zeina organo gorena baita Nafarroako kontratazio publikoaren arloko araudia interpretatzeari dagokionez, ondorioztatu duela ezen orriak –etorkizuneko lur-zatietara zabaltzea aurreikusten zutenak– legezkoak zirela. Horrenbestez, gomendatzen dugu etxebizitzak sustatzeko ekonomia mistoko sozietate bat eratzeari buruz batzar horrek, Eguesibarko Udalak eskatuta, egindako txostena –3/2009 Txostena–. Zehazki, ondorio gisa ateratzen du legezkoa dela ekonomia mistoko sozietateak eratzea Lurzoruaren Udal Ondareko lur-zatietan etxebizitzak sustatzeko, bazkidea hautatzeko aurrez lizitazioa eginda (...), eta ez dagoela legezko eragozpenik Lurzoruaren Udal Ondareko lehendik dauden lur-zatiak eta etorkizunekoak hartzeko.

Aurreko gure alegazioetan esan genuen bezala, harrigarri gertatzen da Ganberaren txosteneko 14. orrialdean haren ondorioetako lehenengo lerrokadaren zati bat aipatu eta letra lodiz nabarmentzea; “legezkoa dela ekonomia mistoko sozietateak eratzea Lurzoruaren Udal Ondareko lur-zatietan etxebizitzak sustatzeko, bazkidea hautatzeko aurrez lizitazioa eginda; lizitazio horretan egiazki adierazi beharko dira ekonomia mistoko sozietateak hartzen duen zerbitzu publikoaren espazioa eta eginkizunak”. Eta orain ere bigarren lerrokadaren zati bat aipatzen da, baina ez hitzez hitz, baizik eta modu lerratuan, txosten horretako garrantzitsuena kenduta, zeina baita kasu zehatz honi buruzko aipamena.

Zehazki, Ganberaren txostenak aipatzen du Batzarrak dioela lege-eragozpenik ez dagoela zabalpen horietarako, orriek haien oinarriko baldintzak arautzen dituzten bitartean; eta halaxe da.

Ganberak, ordea, ez du aipatzen Batzarraren txosteneko hurrengo esaldia, non hitzez hitz esaten baita guztiz onargarria dela espazio-ziurtasun hori, **Lurzoruaren Udal Ondareko oraingo eta etorkizuneko lur-zatiak** sartuz. Horixe da gakoa. *“Horrenbestez, etxebizitzaren sustapenaren zerbitzu publikoaren xede diren lur-zatien zehaztapen-esparruak guztiz burutua geratu beharko du oinarriko baldintzetan, eta ez dago legezko eragozpenik Lurzoruaren Udal Ondareko lehendik dauden lur-zatiak eta etorkizunekoak hartzeko”.* Bigarren esaldia, azpimarratzen eta letra lodiz idatzitako hori da Ganberak transkribatzen ez duena, zalantzarik gabe bere iritzia aurkakoa delako.

Kontuen Ganbera Kontratazio Batzarraren irizpidearekin ados ez badago, argi esan beharko du eta arrazoiak eman beharko ditu, baina larritasun oso handikoa iruditzen zaigu haren txostenaren zati bat transkribatzea soilik, eta ez hitzez hitz, ikustarazi nahian bere irizpidearekin bat datorrela. Irizpide hori, nolanahi ere, errespetatzekoa izanen da oso, baina ez da Kontratazio Batzarrarenaren berdina, txostenari hitzez hitz erreparatuta ondorioztatu daitekeen bezala, zeren bertan onartzen baita kasu honetako berariazko orriek har zitzaketela, eta halaxe egin zuten, LUOko etorkizuneko lur-zatiak.

Baldin eta Batzarrak onartzen badu LUOko etorkizuneko lur-zati batera zabaltzea, bistan da hasierako orrietan, etorkizuneko lur-zati horretara zabaldu aurrekoan, ezin dela espazioa gehiago zehaztu; izan ere, berariaz aipatzen da lurzoruaren udal ondareko lur-zatiak izanen direla, guztiak ere etxebizitza babestuak egitekoak, eta horixe da gure kasua.

Azken batean, kontua ez da kontratazio publikoaren arloko araudian aipatzen diren publizitate eta lehia printzipioetako bat ez dela bete, baizik eta araudi hori zorrotz bete dela, lizitazioaren terminoak erreparatuta.

Horixe berretsi du kontratazio publikoaren arloaren Nafarroako interprete gorena dena, eta ulertezin gertatzen da Kontuen Ganberak haren txosteneko hitzez hitzeko aipamena eta aipamen osoa ez egitea; are gehiago, Zuzenbidean eztabaidagarriak eta eztabaidatuak diren irizpideak izaki, ondorioztatu dezala, gutxi gora-behera, legez kontraktotasun argia dagoela.

Behin-behineko txostena nahitaez aldatu behar da puntu horretan, eta hitzez hitz eman behar du Kontratazio Batzarraren ondorio guztia, aipatuta, Batzar horrek egin zuen bezala, ez dagoela kontratazio-araudiaren ez-betetzerik sozietate mistorako lizitazioan sartzeagatik LULOaren etorkizuneko lur-zatiak, egin zen bezala. Horrek esan nahi du 3A-9 lur-zatiaren besterentzeak erabateko estaldura zuela hasierako orrietan.

## **B) LUR-ZATIEN SALMENTA PREZIOAREN IGOERA.**

### GANBERAREN TXOSTENA.

29. orrialdea. 2010eko uztailean, Andacelayk Egüés 21-II, S.L.ri lur-zati horien salmenta fakturatu zion, 4.055.350 euroan; hau da, ehuneko 24,28 gehiago. Sozietatearen aktetan ez dago jasota prezio-aldaketa horri buruzko berriazko aipamenik; hala eta guztiz ere, aipatutako sozietate mistoaren aktetan bai ageri da horri buruzko informazioa, zeren eta jada 2010eko apirilaren 19ko bilkuran aipatu baitzen eraikigarritasuna ehuneko 19,6 handitu dela. Hala eta guztiz ere, ez dago dokumentaziorik prezio-igoera hori kuantifikatzen duenik eta eraikigarritasun handiagoarekin lotzen duenik.

30. orrialdea. Halaber, ikusten dugu lur-zatien balorazioa ez dagoela dokumentuetan eta teknikoki bermatua.

### NASIPAREN IRUZKINAK

Ganbera horri aurkeztua zaio aldaketa horren euskarri den dokumentazioa, zeina, bestalde, publikoa baita. Berriz diogu.

Sozietate mistoa eratzeko hasierako orrietan, A1.1, A1.2 eta A1.3 lur-zatien eraikigarritasuna bakoitza 3.960 metro koadrokoa zen. NASIPak 126 BOE egiteko proiektua aurkeztu zuen lehiaketa honetara. Lur-zatien eraikigarritasuna 3.960 metro koadrotik 4.767,84 metro koadrorara pasatzen da horietako bakoitzean, eta orduan proiektua berregiten da, eta 126 BOEtik 138 BOEra aldatzen da. Aldaketa horrek berarekin dakar proiektu berria egitea, zeren eta gehikuntza hori bai solairu bakoitzean, bai altueran gauzatzen baita. Lur-zatiaren fitxa pasatzen da solairu bakoitzean 21m x 21m izatetik 22m x 22m izatera, eta profila, berriz, B+8+A izatetik B+10 izatera. Eraikigarritasun osoa agortzeko, erabaki zen solairu bakoitzean 80 cm-ko hegala egitea, horixe baita araudiak baimentzen duena. Horrekin, 550 m<sup>2</sup>-ko solairuak lortzen dira. Gainera, erabaki zen 9. eta 10. solairuetan duplexak egitea, zeren eta eraikin baten ebakuaziorako gehieneko distantzia bertikala, eskailera bakarrarekin, 28 metrokoa baita sute kasuan; izan ere, eraikineko eskailera 10. solairuraino igoz gero, bi eskailera egin beharko lirateke, eta salmentarako azalera galduko litzateke. Horrenbestez, 138 BOE eraikitzen ari dira.

2010eko apirilaren 19an, Gestión y Promoción Egüés 21-II-en 1. aktan, erabaki zen lur-zatien eraikigarritasuna % 19,6 handitzea, zeren eta handik gutxira Nafarroako Gobernuak Erripagañako I. Banaketa Arloko udalez gairidiko plan sektorialaren aldaketa-espeditzea onetsi behar baitzuen, hain zuzen ere udalez gairidiko plan sektorialeko I. Banaketa Arloko Konpentsazio Batzarrak sustatu zuena; izan ere, plan horretan sartzen zen, besteak beste, Hirigintza eta Etxebizitzaren arloko Urgentziazko Neurriak Hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako aldaketa. Lur-zatien eraikigarritasuna % 19,6 handitzen duen erabaki hori 2010eko maiatzaren 17an onetsi zen behin betiko, eta 2010eko ekainaren 4ko NAOan argitaratu zen.

Horrenbestez, eta nabarmena denez, eraikigarritasunari buruzko erabakia Nafarroako Gobernuak onetsitako hirigintza-aldaketak baldintzatuta dago, eta hartan bermatzen da. Guk dakigula ez da haren aurkako errekursorik aurkeztu. Sozietate mistoak egiten duen gauza bakarra da Foru Gobernuak onetsitako hirigintza-araudiak bideratzen dion aldaketa baimentzea, eta hori egiten du etxebizitza babestu gehiago sustatu eta eraikitzeke xedearekin.

Ondoren, 2010eko abuztuaren 13an, Nafarroako Kontratazio Atarian, 138 BOEak eraikitzeke lizitazio-iragarkia argitaratu zen.

Eraikigarritasunaren handitze horrek onura ekarri dio udalerrinari, zeren eta etxebizitza babestu gehiago bai baitu, bai eta Andacelayri ere, lurzoruaren prezioa dela-eta gehiago kobratu baitu. 138 BOEak eraikitzeke lurzoruaren truke Andacelayri ordaindutako prezioa handiagoa izan da. Legeak exijitzen du salmenten % 17,5 ordaintzea. 126 BOEren hasierako proiektuan, urbanizatutako lurzoruaren balioa 3.262.90,75 euro + BEZa da, eta exekututzen ari den proiektuan, berriz, 138

BOEkoan, 4.055.349,72 euro + BEZa da.

Eraikigarritasuna handitzearekin, on egin zaio Eguesibarko Udalari, zeren eta obretarako lizentzia proiektu handiago batena baita, eta, horrenbestez, lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa handiagoa baita; hori dela eta, Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.ri ere on egin zaio, zeren eta sustapenean etxebizitza gehiago baitaude salgai; eta, horrenbestez, Andacelay, S.L.ri ere on egin zaio, zeren eta kapital sozialaren % 51ren jabea baita (bai eta NASIPARI ere, % 49aren jabea delako).

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako dokumentazio honetara jo beharra dago:

- Gestión y Promoción Egüés 21-II S.L.ren Administrazio Kontseiluaren 1. akta, 2010eko apirilaren 19koa.
- Nafarroako Gobernuaren 2010eko maiatzaren 17ko Akordioa, zeinaren bidez onesten baita Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketaren espedientea. Aldaketa hori formulatu da, besteak beste, Hirigintza eta Etxebizitzaren arloko Urgentziatzko Neurriak Hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legeko Lehen Xedapen Iragankorreko 1. idatz-zatian ezarritakoaren babesean. Espedientea udalez gaindiko plan sektorialeko I. Banaketa Arloko Kontentsazio Batzarrak sustatu zuen. 2010eko ekainaren 4ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.
- Erripagañako A1 lur-zatian etxebizitzaren hiru dorre exekutatzeko proiektuaren aldaketaren justifikazioa. Proiektua Conrado Capilla Frías jaunak eginga da.

Horrenbestez, aldaketa guztiz justifikatuta dago aurrekariekin eta erantsitako dokumentazioarekin, eta horixe aitortu beharko du txostenak.

### **C) ANDACELAYK A.1 LUR-ZATIEN FINANTZAKETA AURRERATZEA.**

#### **GANBERAREN TXOSTENA.**

*31. orrialdea. Gure kalkuluen arabera, baldin eta Andacelayren finantzaketa-aurrerakinari aplikatzen badiogu sozietate horrek data horretan zeuzkan finantza-gaindikinengatik lortzen zuen tasa handiagoa, azken horrek 4.266 euroko diru-sarrera finantzarioak lortuko zukeen.*

*Azken batean, uste dugu jarduketa horrek ez duela urratu sozietate mistoa eratzeko hautapen-prozesua, zeren eta lur-zatiak erosteko finantzaketarako eskainitako formularen aldaketa prozesu horretan zehar gertatutako arrazoiei zor baitzaie. Hala eta guztiz ere, uste dugu NASIPAK Andacelayri aurrerapen horrengatik jaso ez zuen finantza-etekina ordaindu behar ziola.*

*Andacelayk etekin hori ez erreklamatzeari, gure iritziz, baliabide publikoak kaltetzearen ondoriozko kontabilitate-erantzukizuneko balizko kasu bat da.*

#### **NASIPAREN IRUZKINAK**

Ados gaude Ganberaren irizpidearekin, alegia, aldaketa zuzenbidearen arabera dela, geroztik gertatutako arrazoiak tarteko, eta halaxe izapidetu zen.

Andacelayk ez du sekula aurrerapen horren etekin finantzarioa erreklamatu. Ganberak jotzen du 4.266 eurokoa dela.

Ez daukagu jasota, ezta ere, konkurtsoan kreditu gisa hura jakinarazi denik. Hartara egin izan balitz eta behar bezala justifikatu izan balitz, NASIPAK –eta gure ustez konkurtso-administratzaileak– ez zuen eragozpenik izanen hori aitortzeko, legedi indardunaren arabera dagokion kalifikazioarekin. Azken gai hori garrantzitsua da, zeren eta konkurtsoan ez jakinaraztea udal kudeatzaile berriei egotzi beharko litzaieke, eta ez aurrekoei; izan ere, azken horiei kopuru horren aurretiko erreklamazio eza legokieke.

**D) EGÜÉS 21, S.A. SOZIEATE MISTOARI ZERBITZUAK EMATEAGATIK ANDACELAYK EGINIKO FAKTUREN BIDEZKO DIRU-SARRERAK****GANBERAREN TXOSTENA.**

34. orrialdea. Gai hori dela eta, txosten honetako hamaseigarren ondoriora jo beharra dago. Soilik aurreratu nahi dugu uste izatekoa dela Egüés 21, S.A. enpresa mistoko bazkideen arteko fakturen bitartezko dibidendu-banaketa bati dagozkiola, eta horretara jo zela "sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera" sozietate horrek egindako bi etxebizitza-sustapenetatik lortutako etekinengatik. Eragiketa horren izaera konfirmatuz gero, hainbat esparrutako erantzukizun juridikoak erator litezke.

**NASIPAREN IRUZKINAK**

Aurrerago, Egüés 21, S.A. sozietate mistoa aztertzerakoan adieraziko denera jotzeko eskatzen dugu.

**III. "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21, S.A." SOZIEATE MISTOARI BURUZKO ONDORIOAK****A) 3A-9 LUR-ZATIAREN "ZUZENKO" SALMENTA.****GANBERAREN TXOSTENA.**

37. orrialdea. Orrietan ezartzen da ezen, 3B-4 lur-zatian egitekoa den hirigintza jarduketaz gainera, etorkizunean jarduketak beste esparru batzuetara zabal daitezkeela; aurreikuspen horien emaitza da Andacelay sozietateak zuzenean esleitu ziola 3A-9 lur-zatia, aurrerago gara zezan. Aipatutako orrietan zabalkuntza horiek arautu behar zituzten oinarrizko baldintzak ageri ez zirenez, zuzeneko esleipen hori ez zen izan publizitate eta lehia printzipioen araberakoa.

**NASIPAREN IRUZKINAK**

Andacelayri buruzko lehen gaia dela-eta erantzun dugunera jotzeko eskatzen dugu.

**B) 2. SUSTAPENEN KONTRATAZIOAK (3A-9 LUR-ZATIA, 114 PTE-REKIN ETA 48 BOE-REKIN).****GANBERAREN TXOSTENA.**

39. orrialdea. Kontratazio horiek sozietatea bera eratzeko prozesutik independentea den prozesu baten gisara egiten dira. Horiei buruz, honakoa aipatu behar dugu:

**• ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO OBRAK****GANBERAREN TXOSTENA.**

40. orrialdea. Obren esleipena sozietate mistoak egin zuen, prozedura negoziatua erabiliz eta hiru enpresari gonbita eginez. Kontuen Ganberaren iritziz, esleipen hori, daukan zenbatekoa dela eta, lizitazio irekiaren prozedura erabiliz edo publizitate eta lehia printzipioen araberako prozedura murriztuaren bidez egin beharko zen.

41. orrialdea. Merkataritza Erregistroko datuen arabera, NASIPAK merkataritza-harremanak dauka esleipenera aurkezten diren bi enpresekin; horietako batekin, bi enpresen aldi baterako batasun osatu ditu etxebizitzak egiteko; bestearekin, berriz, sozietate batean hartzen du parte, akziodun gisa.

Laburbilduz, eraikuntza-obra horien esleipena gauzatu zen aginduzkoa zen lehia publikoa egin gabe; halaber, hiru enpresei gonbita eginez gauzatutako esleipen prozeduraren objektibotasunean eragina izan dute honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

Kontratazio mahaiko lehendakaritzarako NASIPAKo ordezkaria izendatu zen, zeina, aldi berean, haren kudeatzailea baitzen. Ez dirudi arrazoizkoa denik halakorik onartzea, ez eta eztabaidetan, puntuazioetan eta organo horrek erabakiak hartzerakoan ez abstenitzea ere, kontuan izanda enpresak prozesurako eskaintza bat aurkezten zuela.

Kontratazio organoan proiektua erredaktatu duen taldeko kide bat sartzea, proiektu horren



*hautapen prozesuan NASIPako ordezkariaren jarduketa erabakigarria izan baitzen.*

*Bestalde, kontratua prezio itxiaren formularen bidez egin zenez eta hain zuzen ere prezio horren arabera ziurtatu zenez, ezin dugu ondoriorik atera egiazki exekutututako obren kostua benetakoa izateari buruz. Halaber, nabarmendu behar dugu bermerik ez dagoela, aipatutako eraikinean akatsik antzemanaz gero haiek finantzatu ahal izateko.*

#### NASIPAREN IRUZKINAK

NASIPAK obren lizitaziora aurkezteko izan lezakeen bateraezintasunari dagokionez, egokitzen jotzen dugu gogoraraztea 6/2006 Foru Legeko 20.3 artikulua, bateraezintasuna izan dadin, exijitzen duela lizitatzailak esku hartu izana lizitaziora aurkeztu nahi deneko kontratuaren xehetasun teknikoak zehazterakoan. Hau da, logikoa denez, saihestu nahi da joko-arauak jarri dituen, kontratuaren baldintza teknikoak finkatu dituen, kontratu horretarako lizitazioan aurkeztea, horrek abantaila ematen baitio. Kasu honetan ez da kontratazioaren arloko foru araudiak exijitzen duen lehenengo baldintza betetzen (berak edo berarekin lotutako enpresak xehetasun teknikoak idaztea), eta, horrenbestez ezin da NASIPAREN eraikuntza-eskaintza bateraezintzat jo.

NASIPAK ez ditu xehetasun tekniko horiek erredaktatu, eta, gainera, ez du inongo enpresa-loturarik Andacelay, S.L.rekin eta arkitektoen lantaldearekin, haiek izan baitziren erredaktatu zituztenak, indarreko legedian ezarritako terminoetan.

Aurrekoa ezarrita, garrantzitsua da argitzea, halaber, Foru Legeak Nafarroara dakarren 2004/18/CE Zuzentarauak ez duela berariaz jasotzen debekatuta dagoenik kontratu xehetasun teknikoen erredakzioan parte hartutakoak lizitaziora aurkeztea.

Europako arauak exijitzen duena da, xehetasun teknikoak finkatu ondoren, kide diren estatuek berma ditzatela haiek ez dezatela distorsiorik eragin lehiari eta bidea eman dezatela lizitatzailak berdintasun-baldintzetan aurkeztu ahal izatea. Hitzez hitz dio xehetasun teknikoek lizitatzaila guztien arteko aukera berdintasuna ahalbidetuko dutela eta ez dutela eragin behar kontratu publikoak lehiarako zabalik egoteko bidegabeko oztupoak sor daitezela. Azken aurreikuspen hori berariaz aldatu zen Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko 30/2007 Legeko 45. artikulura. Estatuko lege hori oinarritzakoa da.

Hau da, xehetasun teknikoak erredaktatze hutsak (halakorik, ordea, ez da kasu honetan gertatu: NASIPAK ez ditu erredaktatu) ez luke bateraezintasunik sortuko; bateraezintasuna sortzeko egiaztatu beharko litzateke erredakzio horrek lehiari edo berdintasun-baldintzetan distorsioa eragin duela.

Horri buruzko jurisprudenzia ugari dago; esate baterako Auzientzia Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salako 8. Sekzioaren 2009ko urtarrilaren 21eko epaia (JUR/2009/59594).

Izan ere, gai zehatz hori, bai eta etorkizuneko lur-zatietara zabaltzeko aukera ere, orain dela lau urte aztertu eta ebatzi zuen Nafarroako Kontratazio Batzarrak, martxoaren 7ko 3/2008 Erabakiaren bidez. Izan ere, haren bidez, kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat ezetsi zen, obren esleipen-hartzaile zen sozietatearekin lehiatuta, obra-zuzendaritzako kontratu bat proiektuaren erredakzioaren esleipen-hartzaile izandako arkitekto berari esleitu izateari buruzkoa.

Nafarroako Kontratazio Batzarrak jotzen du ezen i) ez dela gertatzen 176.2 artikuluko debekua, zeren eta ez baita egiaztatu obren esleipen-hartzailea den enpresaren eta zuzendaritzaren esleipen-hartzailea den arkitektoaren arteko lotura, eta ii) ez dela gertatzen 20.3 artikuluan aipatzen den bateraezintasuna, zeren eta proiektuaren erredakzioa ez baitagokio obra-kontratuaren xehetasun teknikoen erredakzioari, nahiz eta antzekotasun batzuk izan, eta, nolana ere ez dagoela inongo probarik lizitatzailen lehia eta berdintasun-baldintzak urratu izanari buruz.

Aipatutako 3/2008 Erabakia irakurtzea gomendatzen dugu.

Eraikitzaileari dagokionez, hiru eskaintza aurkeztu ziren lehiaketa-gonbita eginda. Izan ere, berriz ere jo genuen hau ez zela botere esleipen-egile baten kasua, eta, horrenbestez, jotzen genuen beharrezkoak diren publizitate- eta lehia-printzipioak bete egiten zirela. Sanco, Urapasa eta NASIPA izan ziren aurkeztutakoak, eta azkenekoa suertatu zen esleipen-hartzaile, 47 punturekin (Urapasak 38 puntu lortu zituen eta Sancok, berriz, 30 puntu). Egüés 21ren Kontratazio Mahaiaren 2006ko azaroaren 15eko akta erantsi da.

Horrenbestez, okerra da zuzenean esatea ez dela lehia publikorik izan eta objektibotasunean

eragin duten inguruabarrak gertatu direla.

Une horretan ustez errespetatu behar zenarekin bat datorren lizitazio bat egon da, hiru enpresari berdintasunez gonbita eginaz, eta NASIPA izan zen hautatua, zeren eta eskaintza onena baitzen, alde aurretik sozietate publikoak onetsitako orrien irizpideak aplikatuta.

Ez dugu ulertzen NASIPAk beste enpresa lizitzaileekin dauzkan merkataritza-harremanei buruzko aipamena; badirudi iradoki nahi dela halako adostasun bat badagoela, iraganean NASIPArekin eta beste enpresetako baten artean EAB bat egon delako edo hirugarren sozietate batean akziodunak direlako, gutxieneko egoeran. Aipamen hori lerratua da, eta ez du inongo zentzurik, zeren eta tamaina batetik gorako Nafarroako eraikuntza-enpresa ia guztiek baterako proiektuetan lan egin baitute; eta horrek ez du eraginik bakoitza bere aldetik aurkezten diren kontratuak lizitazioan, nabarmena den bezala. Argudio hori absurdora eramanez, jo liteke gure enpresak Kontuen Ganberako egungo lehendakariari etxebizitza bat saldu izanak halako eragozpen edo bateraezintasun bat dakarrela: guztiz onartezina litzateke hori.

Ganbera horrek enpresa lizitzaileen edo/eta sozietate publiko lizitzailearen adostasunen probaren bat baldin badu, azaldu egin beharko luke, horixe baita bere betebeharra, eta ez susmoak zabaldu guztiz bazterrekoak diren gaiengatik, beste esparru batzuetan, eta ez fiskalizazio objektibo eta serio batean, egin ohi den bezala.

Azkenik, aipatu beharra dago prezio itxiko kontratazioak prozesuaren objektibotasunean eragina izatearena ulertezin gertatzen zaigula, errespetu guztiarekin esanda. Hain zuzen ere, prezio itxiko kontratazioa da ente publikoei eman ohi zaien gomendioetako bat, alde aurretik gehieneko aurrekontu bat finkatuz, proiektuko neurketen arabera, edozein dela ere exekutatuak obraren egiazko neurketa. Hau da, toki guztietan diru publikoen erabilpenaren arloko jokabide egokien erakusgarri dena, prezio itxi bat finkatzea, objektibotasun ezaren aztarna bilakatzen da Ganbera honentzat, non eta lizitazioan. Ez dugu ulertzen.

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako dokumentazio honetara jo beharra dago:

- Kontratazio Publikoaren Batzarraren Batzorde Iraunkorraren maiatzaren 13ko 5/2008 Erabakia.
- Eguesibarko Udalari buruz Kontuen Ganberak egindako auditoria, 2006ko ekitaldikoa, 2009ko otsailean egin.
- Europar Batzordearen 2008ko apirilaren 12ko LCEur 2008/629 Komunikazioa, kontratazio publikoaren arloko Europako Zuzenbidea aplikatzeari buruzkoa eta lankidetzat publiko-privatu instituzionalizatuari lagapenak egiteari buruzkoa.
- Jurisprudentzia. Gaztela Leongo Auzitegi Nagusia, Valladolid (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. Sekzioa). Maiatzaren 16ko 1017/2008 Epaia. Andaluziako Auzitegi Nagusia, Sevilla (Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa). 2003ko apirilaren 30eko epaia. Audentzia Nazionala (Administrazioarekiko Auzien Sala, 8. Sekzioa). 2009ko urtarrilaren 21eko epaia.

Horrenbestez, ez da gertatu kontratazio publikoaren araudiaren ez betetzerik, eta, bereziki, NASIPArekin bateragarritasun arauen ez betetzerik, eraikuntza obretarako lehiaketan aurkezterakoan, eta ez du lehian inolako abantailarik izan, eta are gutxiago lizitazioan objektibotasun faltarik (hiru enpresa gonbidatu ziren), txostenean harrigarriki eta zorrotzasunik gabe aipatzen den bezala.

### **C) UDALARI BI SUSTAPENENGATIK ORDAINDUTAKO EIOZ-A ETA OBRA LIZENTZIAK GANBERAREN TXOSTENA.**

42. orrialdea. *Udalak emandako informazioaren arabera, hasiera batean bi sustapenengatik ordaindutako EIOZak –aurrekontuaren gainean aplikatzekoa den ehuneko 4,5eko tasa– eta obra lizentziak –ehuneko 0,2ko tasa– 0,94 milioi egin zuten. Kuantifikazio hori Udalak egin zuen sozietate mistoak aurkeztutako exekuzio materialeko aurrekontuen arabera.*

*Hurrengo taulan alderatu ditugu, batetik, aurreko datuak eta, bestetik, sozietate mistoan bi sustapenentarako aurreikusitako exekuzio materialeko aurrekontuei buruz sozietate mistoaren artxiboetan lortutako informazioa:*

<i>Promociones de Egüés 21, S.A.</i>	<i>Obrak egitearen aurrekontua, Udalari aurkeztutakoa (a)</i>	<i>Obraren exekuzio materialerako aurreikusidun aurrekontua (b)</i>	<i>Aldea (a-b)</i>
<b>1. sustapena</b>			
<i>Zerga-oinarria</i>	3.850.004	5.919.172	-2.069.168
<i>EIOZaren eta obra lizentziaren zenbatekoa</i>	180.950	180.950	180.950
<b>2. sustapena</b>			
<i>Zerga-oinarria</i>	16.183.795	16.183.795	16.183.795
<i>EIOZaren eta obra lizentziaren zenbatekoa</i>	760.638	760.638	760.638

*Horrenbestez, lehen sustapenari dagokionez, Udalari tributu horien likidaziorako aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa bi milioitan txikiagoa zen exekuzio materialekoa baino; horren emaitza da kontzeptu horiengatiko tributazioa 97.251 eurokoa dela.*

*Hala eta guztiz ere, bigarren sustapenean, aurkeztutako aurrekontua obrakoa baino 0,5 milioi handiagoa da; horrenbestez, sozietateak kontzeptu horiengatik 24.455 euro gehiago ordaindu ditu.*

*Aurreko taulan bildutako exekuzio materialaren zenbatekoak –(b) zutabea– bat datoz, halaber, exekutututako obren amaierako zenbatekoarekin, kasuko ziurtagirien arabera. Horrenbestez, tributu horien hasierako likidazioa, Ganbera honek egindako kalkuluen arabera, bat dator amaierakoarekin.*

*2012ko maiatzean, Udalak EIOZaren likidazioei buruzko azterketa bat egin zuen, obrako amaierako ziurtagirien arabera. Honakoak izan ziren azterketa horren emaitzak:*

*1. sustapena: sozietate mistoari zerga horriengatiko kopuru osagarri bat eskatzen zaio, 93.113 eurokoa, eta sozietateak ordaindu egin zuen. Zenbateko horren aldea, gure kalkuluen arabera, zera da: osagarri hori EIOZari dagokio soilik, eta ez du obra lizentziaren tasa hartzen.*

*2. sustapena: sozietate mistoari 23.416 euroko zenbatekoa itzultzen zaio. Gure kalkuluen arabera, aldea obra lizentziari buruz aipatutako bera da.*

#### **NASIPAREN IRUZKINAK**

*Horri dagokionez, gehitu beharra dago (eta badirudi lerratu samarra dela txostenean ez aipatzea) Udalak 2012an EIOZen likidazioak direla eta egindako berrikuspena Egüés 21, S.A. sozietateak 2012ko otsailaren 29an eskatuta egin zela, orduko alkate José Anastasio Andia jaunaren ekimenez; izan ere, berrikuspen hori ezin izanen zen egin eskari hori gabe, zorrak preskribituta baitzeuden.*

*Sustapenaren likidazioaren emaitzari dagokionez, txostenean jada esaten den bezala, sozietate mistoak likidazioaren osagarria ordaindu zuen, 93.113 euro hain zuzen ere, nahiz eta, berriz diogu, zorra preskribituta zegoen.*

*Azpimarratu beharko litzateke sozietate mistoko arduradunek izan duten fede ona, jada preskribituta zeuden zor tributarioak likidatu eta ordaintzeko.*

**D) ANDACELAYK ETA NASIPAK EGÜÉS 21, S.A. SOZIETATE MISTOARI EGINDAKO FAKTURAK****GANBERAREN TXOSTENA.**

43. orrialdetik 46. orrialdera. *Andacelayren alde egindako fakturei dagokionez, bederatzigarren ondoriora jo beharra dago. Hartan esaten da horiek ez diotela objektiboki erantzuten inongo zerbitzu-emateri.*

*NASIPAREN alde egindako fakturak eraikuntza-gastuei egozten zaizkio, eta honela identifikatzen dira:*

*2007an, jasotzeko dauden ziurtagiri gisa. Jasotzeko dauden fakturen kontuan kontabilizatzen dira. 2008an, faktura jaso eta ordaintzen da, eta eraikuntzaren gastuen kontuan kargatzen da.*

*2009an, zuzendaritza fakultatiboak onetsitako prezio kontrajarrien likidazioaren kontzeptuarekin kontabilizatzen dira, "erantsitako zerrendaren arabera". Ez dago jasota halako zerrendarik.*

*Txosten hau eztabaidatzeko fasean, NASIPA enpresak baieztatu du aurreko fakturak bi sustapenetan egindako lanei dagozkiela, eta haiei buruzko euskarri-dokumentazioa eransten du; halaber, adierazten du obra horiek ezustekoetan eta etxebizitzaren eraikuntzan sartu beharreko hobekuntzetan justifikatuta daudela, eta ikusta aurrekontua prezio itxiarekin kontrastatu zela, Andacelayrekin adostu zen ordainketa-formula hori erabiltzea. Aurkeztutako ziurtagiriei dagokienez, honakoa esan behar dugu:*

*. Lan horien izaera, xehetasunak eta zenbatekoa ez daude jasota ez Andacelayren artxiboetan, ez Egües 21, S.A. sozietate mistoaren artxiboetan ere.*

*. Ez dakigu nork edo zein organok baimendu zituen proiektuaren aldaketa eta obrak berak.*

*. Aurkeztutako datuak eraikuntza enpresak baizik ez ditu sinatzen; ez dago jasota jabeak eta obra zuzendaritzak sinatu izana.*

*. Aurreko gastuak fakturatu ziren datak 2008ko iraila -1. sustapena- eta 2009ko otsaila -2. sustapena- izan ziren. Aipatu behar dugu 1. sustapeneko obren amaierako ziurtagiria 2007ko otsailekoa dela; hau da, aurkeztutako fakturaren data baino 18 hilabete lehenagokoa.*

*Gure lana egiten ari ginen bitartean, Udalak Egües 21, S.A. sozietatearen logotipoa duen agiri bat aurkeztu zigun, ez datarik, ez sinadurarik ez duena. Testua honela hasten da: "Honen bitartez, fakturen bidezko dibidendu-banaketa idatziz jaso behar dugu, sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera", Agiri horren datari dagokionez, hartatik ondoriozta daitekeen informazioaren arabera, badirudi emaitza kalkulatzeko garaian taxutu zela, 2007ko ekitaldiari dagozkion zergak baino lehen.*

*Lerrokada horren ondoren, sozietate mistoak exekutututako bi sustapenetako bakoitzarentzat, agiri horretan aztertzen dira 1. sustapenaren benetako etekin itxia eta 2. sustapenerako kalkulatu den etekina. Hartara,*

*1. sustapena: 66 PTE. Etekin itxia 1,17 milioikoa da, "zeinetatik 590.196 euro fakturen bidez banatu behar baititugu; horrekin, Andacelayk zenbateko horren ehuneko 51 fakturatu behar digu, hau da, 301.000 euro, eta NASIPAK, berriz, 289.196 euro".*

*2. sustapena: 48 BOEren lur-zatia. Lur-zati horretan espero den etekina 1,71 milioikoa da, baina oraindik ere etxabeak eta garaje-plazak saltzeko daudenez, etekin hori deuseza da orain. "Saltzen diren heinean, dibidenduak banatuko ditugu, fakturen bidez, espero zen etekinaren % 50era iritsi arte, hau da, 857.627 eurora arte; hortik, % 51 Andacelayri dagokio eta % 49, berriz, NASIPARI".*

*2. sustapena: 114 PTEren lur-zatia. Espero zen etekina 2.54 milioikoa da; ez dago lotu gabeko elementurik eta "horrenbestez, etekina % 53,63an utziko dugu, eta gainerako % 46,37a fakturen bidez banatuko dugu. Hori dela eta, Andacelayk 600.000 euro fakturatu behar dizkigu hileroko fakturen bidez, 50.000 euroko fakturak eginez urtebetez, eta NASIPAK 576.471 euro fakturatuko dizkigu. Horrenbestez, etekina 1.360.376 eurokoa izanen da, eta emaitza horren arabera ordainduko da sozietateen gaineko zerga".*

*Eragiketa horien emaitza gisa, agiri horretan zergen aurretiko honako etekinen taula erantsi zen:*

Lur-zatia	Etekina Espero zena	Etekina Andacelay	Etekina NASIPA	Fakturak		Etekina Amaierarako kalkulatu dena
				Andacelay	NASIPA	
66 prezio tasatuko etxebizitza	1.168.929	596.154	572.775	301.000	289.196	578.733
48 babes ofizialeko etxebizitza	1.715.254	874.780	840.474	0	0	1.715.254
114 prezio tasatuko etxebizitza	2.536.846	1.293.791	1.243.055	600.000	576.471	1.360.376
Guztira	5.421.029	2.764.725	2.656.304	901.000	865.667	3.654.363

Gero, 2007ko kontabilitate-emaizaren doikuntza batzuk xehakutzen dira. Honakoak azpimarratuko ditugu haien artetik:

2007ko ekitaldiko fakturen bidezko etekin-banaketa, 590.196 eurokoa -301.000 euro Andacelayri eta 289.196 euro NASIPari-.

· Sustapenak berezko dituen gastuez gainera, sozietatearen gastu batzuk badaude, "lehen aktibatuta zeudenak zero emaitza emateko<sup>1</sup> eta une horretan pasatzen dira gastu-kontutik; guztira, 27.392 euro egiten dute". Gastu horien artean, nabarmentzekoak dira 2005eko eta 2006ko auditoriarengatiko lansariak -11.000 euro- eta golferako eta errugbi txapelketarako babesak -6.000 euro-.

Agiria amaitzen da sozietate mistoaren 2007ko emaitzan egindako doikuntzak biltzen dituen honako taularekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
2007ko apirileko emaitza	1.179.001
NASIPA-Andacelayren fakturak	-590.196
Sozietatearen bestelako gastuak	-28.759
Izakinak, garajea	45.000
Izakinen gutxitzea, uko egiteagatik	-3.113
Zerga aurreko kontabilitate-emaizta, 2007-12-31n	601.933

Kontabilitate-emaizta hori bat dator zehazki ekitaldi horretako urteko kontuetan islatutakoarekin. Honela banatzen da:

Kontzeptua	Zenbatekoa	Banatzeko
Zerga aurreko kontabilitate-emaizta, 2007-12-31n	601.933	
Sozietateen gainerako zerga		194.428
Legezko erreserba		40.750
Andacelayren dibidenduak		187.045
NASIParen dibidenduak		179.710

<sup>1</sup> Gogorarazi nahi dugu sozietatearen 2005eko eta 2006ko kontabilitate-emaizta zero izan zela, haren urteko kontuen arabera.

2007ko ekitaldia da bazkideen arteko dibidendu-banaketa erabakitzen den bakarra.

Sozietate mistoaren 2007ko ekitaldiaren ondoko urteetako kontabilitatea aztertuta, dibidendu-banaketaren aipaturako fakturak aurkitu dira soilik, 2008ko eta 2009ko ekitaldiei dagozkienak.

Laburbilduz, urte horietako zergen aurretiko kontabilitate-emaizak hurrengo zenbatekoen arabera doitu behar dira:

Kontzeptua	Urteko kontuak
Zerga aurreko kontabilitate-emaizta, 2007-12-31n	601.933
+ Andacelayk eta NASIPAk 2007an egindako fakturak	590.196
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaizta doituia, 2007-12-31n</b>	<b>1.192.129</b>
Zerga aurreko kontabilitate-emaizta, 2008-12-31n	49.983
+ Andacelayk 2008an egindako fakturak	600.000
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaizta doituia, 2008-12-31n</b>	<b>649.983</b>
Zerga aurreko kontabilitate-emaizta, 2009-12-31n	842.679
+ Andacelayk 2009an egindako fakturak	576.471
<b>Zerga aurreko kontabilitate-emaizta doituia, 2009-12-31n</b>	<b>1.419.150</b>

Doikuntza horiek eragina izanen lukete, horrenbestez, bai sozietate mistoaren kontabilitate-emaizta zehazterakoan, bai sozietateen gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren likidazioetan ere.

Horrenbestez, bazkideek sozietate mistoaren kargurako faktura batzuk egitearekin –zein zerbitzu edo lan egin zen ez dago objektiboki jasota–, ustezko dibidendu-banaketa bat gauzatu da, "sozietateen gaineko zerga dela-eta gutxiago ordaintze aldera". Logikoa denez, jarduketa horrek ukitutako sozietateen eta haien tributazioaren kontabilitate-informazioa nahastu du. Formula horren arabera, bazkideetako bakoitzak honako zenbatekoak hartu zituen:

Bazkideak	Zenbatekoa, guztira	1. sustapena	2. sustapena
Andacelay	901.000	301.000	600.000
NASIPA	865.667	289.196	576.471
Guztira	1.766.667	590.196	1.176.471

Eragiketa horren izaera konfirmatuz gero, hainbat esparrutako erantzukizun juridikoak erator litezke.

#### NASIPAREN IRUZKINAK

Ganberak iruzkin batzuk egiten ditu NASIPAk eta Andacelay sozietate publikoak fakturatutako zerbitzuei buruz. Horri dagokionez, berriz esan behar dugu Kontuen Ganberak baliozkotasuna ematen diola ez datarik, ez sinadurarik ez duen agiri baten edukari, halako moduz non ezinezko gertatzen baita zehaztea nork eta noiz idatzi duen. Beraz, Ganberaren akusazioak inongo funtsik ez duten uste hutsetan oinarritzen da. NASIPAK ez daki ezer ere agiri horren existentziari buruz.

Agiri horrek ez du inongo zorrotzasunik, ezta idatzita dagoen moduari erreparatuta ere, zeren eta sozietate baten dibidenduak ezin baitira fakturatu. Horri dagokionez, Kontuen Ganberak ez du inongo azterketa zorrotzik egin NASIPAK eta Andacelay sozietate publikoak eman dituzten zerbitzuen

balorazioari buruz; izan ere, besterik gabe baieztatzen du sozietate horiek ez dituztela eman fakturretan ageri diren zerbitzuak.

NASIPAREN fakturazioari dagokionez, gogorarazi behar da zein testuingurutan gertatu zen zerbitzu horien fakturazioa.

66 PTERen sustapenaren eraikuntzan zehar, obrako zenbait ustekabeko izan ziren. Ustekabeko horiek 162 etxebizitzaren obra berrian berriz gertatuko zirela sinetsita, Andacelayri jakinarazi zitzaion hobekuntza batzuk egiteko modua bazegoela, eta haiekin etxebizitza horietan kalitate handiagoa lortuko litzatekeela eta etorkizunean eraikuntzako alderdi batzuetan arazoak saihestuko zirela.

Andacelayren erantzuna ezezkoa izan zen, zeren eta prezio itxiko aurrekontu bat baitzen, eta hobekuntza horiek, etxebizitzaren kalitatea handitu eta salmenta ondorengo arazoak saihesten bazituzten ere, kostu handiagoak ekarriko zituzten, eta udal sozietateari egoztekoa zen etekina txikiagoa izanen zen.

Andacelayren ordezkariekin zenbait elkarrizketa izan ondoren, erabaki zen hobekuntza horiek egitea (objektiboki, beharrezkoak baitziren), baina une horretan Andacelay sozietate publikoak adierazi zuen sozietate mistoari fakturatu nahi zizkiola eginak zituen kontrol- eta kudeaketa-zerbitzu haiek, lehendik fakturatu gabe baitzeuden.

Puntu horretan, Kontuen Ganberak aditzera ematen du Andacelay sozietate publikoak ez duela baliabiderik sozietate mistoari zerbitzuak emateko, baina ahaztu egiten zaio sozietate publikoak erabiltzen zituen baliabideak Udalarenak berarenak zirela.

Horri dagokionez, komeni da nabarmentzea Udalaren eta sozietate publikoaren arteko transferentzia prezioen kontu huts baten aurrean egon gaitezkeela, eta kontu horrek ez duela inongo garrantzirik, zeren eta bi enteek hobaria baitute Sozietateen gaineko Zergan, halako moduz non berdin den fakturatzen zuena sozietate publikoa izatea ala Udala bera izatea.

Kontua da Udalak egiazko kontrol bat egin zuela eta NASIPAK egindako obrekin lotutako burokrasia administratiboko kontuak kudeatu zituela, eta horregatik kobratu zuela merkatuaren arabera bidezkoztat jo zuena, Andacelay sozietate publikoaren bitartezko fakturak eginez.

Agertzeraz eman beharra dago ezen egiazki emandako zerbitzuak fakturatzeko erabakia hartu zela NASIPAK (eraikitzaile eta sustatzaile gisa) egindako jarduera guzti-guztien irudi fidela emateko. Hartara, NASIPAREN barne kontrolaren eta kostu-zentro bakoitzari zegozkion gastuak aplikatzearen esparruan, aukera horrek azpian zegoen errealitate ekonomikoa islatzen zuen; emandako zerbitzu gehigarriak ez fakturatzearen alde egin izanak, berriz, "NASIPA eraikitzailea"ren kostu-zentroa kaltetuko zuen, eta "NASIPA sustatzailea" kostu-zentroak, berriz, etekin handiagoa aterako zuen, azken hori sozietate mistoko bazkide gisa.

Horrenbestez, NASIPAK ez zuen inolako etekin fiskalik atera emandako zerbitzu gehigarri horiek fakturatzearekin; eta azken horiek tributazioaren xede izan ziren, NASIPAREN egoitzan.

BEZari dagokionez, Kontuen Ganberak ez daki BEZa neutroa dela, zeren eta sozietate mistoak kentzen duena diru-sarrerara baita hura fakturatzen duten sozietateentzat.

Azken batean, NASIPAREN kasu zehatzean, ez dago zerga-iruzurrik batere, eta hori berariaz argitu beharra dago txostenean.

NASIPAREN fakturen errealitateari dagokionez –obra zehatz, ziurtatu eta baloratuei dagokie–, aurreko alegazioetan aurkeztu dugun dokumentazioak ez du zalantzarako tarterik uzten.

Ganberaren txostenean, nahiz eta badirudien faktura horien egiazkotasuna aitortzen dela, esaten da ez dagoela jasota haiek onetsi zirenik, ez Andacelayn, ez sozietate mistoan, eta ez daudela Andacelayk edo obra-zuzendaritzako ordezkariak sinatuta; garrantzirik gabekoa da hori gai nagusiari dagokionez: faktura horiek errealak diren ala ez. Eta errealak dira, noski. Dokumentazioan Andacelayko onespenez-izapideak ez-betetzeak edo akats batzuekin betetzeak inolako eraginik ez du ez errealitate horretan, ez NASIPAREngan ere.

Bestalde, fakturak obrak amaitu eta urtebete baino geroagoak izateak ez die ezer ere kentzen haien errealitateari, kontrakoa baizik. Edozein obratan ohikoa da aldaketak exekutatzeko joatea zuzendaritza fakultatiboaren eta jabetzaren aginduz, eta horren aitorpena eta ordainketa amaierako

epera geroratzea, betiere diruzaintzan dirurik baldin badago, zeren eta sozietate mistoak ez baitu behar adina baliabide bereki haren lan-kapitala finantzatzeko, eta betiere lehenetasuna emanaz bazkide publikoak bazkide pribatuak baino lehenago kobratzeari.

Horixe da kasu honetan gertatu zena: lehenengo hobekuntzak proposatu ziren eta gero onartu ziren, baina ez ziren ordaindu nahi izan, eta azkenean, likidazio garaian Andacelayk (sozietate mistoko bazkide pribatua) onartu egin zituen, Andacelayk sozietate mistoari berak edo/eta Eguesibarko Udalak egindako ikuskatze- eta kudeaketa-lanak fakturatzearen truke. Horrela egin zen, eta horrela fakturatu zen eta ordaindu zen, eta alde honek onartu egin behar izan zuen, zeren eta bestela ez baitzuen kobratuko egiazki exekutututako obra-aldaketengatik, edo erreklamazioa egiteko prozesu judizial batean sartu beharko zuen.

Andacelayn hori guztia gutxi-asko dokumentatuta egotea NASIPARI ez dagokion gaia da, eta horri buruzko ezaguera handirik ez dugu.

Hala eta guztiz ere, sozietate mistoen dokumentazioari dagokionez, egoki iruditzen zaigu aipatzea hura dela-eta Udaleko egungo arduradunak erabateko kontrol-ezaz jokatzan ari direla, bereziki legezko betebeharrak betetzeari dagokionez.

Kontua da Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. likidazio prozesuan dagoela eta, horrenbestez, likidatzaile bakarra izendatuta dagoela, eta haren legezko betebeharra dela jatorrizko dokumentazio hori zaintzea. Hala eta guztiz ere, Udalak behin eta berriz eskatu izan dio likidatzaileari zeukan jatorrizko dokumentu batzuk emateko, eta horixe egin zuen 2012ko abuztuaren 3an, 2013ko abenduaren 5ean eta 2014ko urtarrilaren 21ean (hiru datatan, zeren eta aldi bakoitzean zerbait diferente edo gehigarri eskatu baitzen).

Bada, likidatzaileak berriaz eta idatziz errekerimendua eginda ere, 2014ko urtarrilean, hilabeteko epean jatorrizko dokumentazio guztia itzultzeko, jotzen baitzuen epe hori nahikoa eta sobra zela Udalak hura aztertzen bukatzeko eta, kasua bada, jatorrizko dokumentazioa fotokopiekin konpultsatzeko, ez da erantzunik jaso.

Hori gertatuko zen beldur zenez, likidatzaileak 2014ko urtarrileko idazki horretan iragarri zuen erantzukizunez gabeturik geratzen zela jatorrizko dokumentazio horren zaintzari eta erabilera egokiari dagokionez, entregaren unetik hasi eta hura egoera guztiz egokian itzuli bitarte.

Horrekin aditzera eman nahi duguna da ez dela harrizkoa Udaleko eta sozietate mistoetako egungo arduradunak gauza ez izatea Kontuen Ganberari eman behar litzaiokeen dokumentazioa aurkitzeko, hura osatu gabe edo moztuta entregatzea, edo, are gehiago, dirudienez, egiazkotasuna aitortzen aritzea ustezko dokumentu batzuei; esate baterako, aipatu den "Fakturen bidezko etekin-banaketaren akordioa"ri, zeina, berriz diogu, sekula ez dugu ikusi eta ez dakigu nork eta noiz egin duen eta zein asmorekin.

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako dokumentazio honetara jo beharra dago:

. 576.470,59 euroren fakturazioaren euskarri-dokumentazioa, non NASIPAK Sarrigurengo 162 BOEak aurrera eraman dituen hobekuntzak eta aldaketak ikus daitezkeen. Horixe da Kontuen Ganberak aztertu behar zuena, egin dituen adierazpen faltsuak egiten hasi baino lehen.

. NASIPAREN sozietateen gaineko zerga, 2008. eta 2009. urteetako, eta urte horietako 347 eredua, NASIPAK egiaztatu ahal izateko ez zuela inolako onurarik izan sozietate mistoari egindako fakturazioarengatik; are gehiago, horregatik zergak ordaindu behar izan zituen, logikoa den bezala.

Atal horri erredakzio berria eman behar zaio, azaldu eta kreditatu denaren argitara, NASIPAREN existitzen ez diren ez-betetze fiskalak aurreratu gabe eta berriaz argituz NASIPAREN fakturak guztiz errealak direla eta obra-aldaketei dagozkiela, NASIPAK dokumentu bidez egiaztatu duen bezala, oraindik ere bere esku duen dokumentazioaren bitartez, Andacelayk ere izan dezakeen dokumentazioa ezertan kendu gabe. Halaber, 63. orrialdeko ondorioa kendu beharra dago, non esaten baita ez dagoela jasota bazkideen (pluralean) faktura horiek bat datozen egiazki exekutututako gastu batekin edo/eta egiazki emandako zerbitzu batekin. NASIPAREN behin-behin guztiz errealak eta gardenak dira, eta bat datoz obren balorazioekin, zentimoz zentimo.

Gainera, Ganberari eskatzen diogu berrius dezan Udalak eskatutako jatorrizko



dokumentazioarekin, likidatzaile bakarrak eskuratu duena, eta egiazta dezala legearen nolako ez-betetzea egiten ari den hori dela eta, eta, azken batean, nolako arintasunez erabiltzen duten arduradun berriek jatorrizko dokumentazioa.

## **E) NASIPARI ORDAINDUTAKO KUDEAKETA GASTUAK**

### GANBERAREN TXOSTENA.

47. orrialdea. *NASIPAK komisio horrengatik behar baino 85.765 euro gehiago jaso ditu guztira.*

### NASIPAREN IRUZKINAK

Hogeita batgarren puntuan, Sozietate mistoaren (Egüés 21, II, S.L.) eratzetik bertatik eratorritako kontratazioei buruzkoan, aipatzen den bezala, NASIPA, S.L.k bere gain hartu zuen Capilla-Vallejo arkitektoen estudioko hasierako proiektuaren gastua –Egüés 21, S.A.k enkargatu zuen–, zeren eta uste baitzuen sozietate horrek udal dermioko etorkizuneko hirigintza-garapenak garatzen jarraitu ahalko zuela.

Kontuen Ganberaren txostena argitaratzean –bertan esaten da Andacelayren lur-zatien esleipenak eta eraikuntza-obren esleipena lizitazio publiko bidez egin behar zirela– proiektu hori gerarazi zen, baina arazo bat planteatu zen: egindako lana ordaindu beharra zegoen. Hori dela eta, akordio batera iristen da, alegia, bazkide pribatuak bere gain hartuko du arkitektoen proiektuaren kostuko 206.500 euro gehi ingeniariaritzako proiektuari dagozkion 55.000 euro, txostenean aipatzen ez direnak (lan horiek, aipatu den bezala, sozietate mistoak enkargatu zituen eta, horrenbestez, sozietate horri egotzi beharko litzaizkioke), baina ordainketa horien eragin finantzarioa arintzeko bidea ematen zaio NASIPA, S.L.ri 2. obrako kudeaketa-gastuen guztizkoa fakturatzeko; horrenbestez, kontusail horren guztizko kopurua fakturatzen da, 1.254.538 euro (txosteneko taulako 545.359 euro + 517.241 euro + 191.938 euro batzearen emaitza). Ez dakigu Andacelayk hori zuzen dokumentatu duen, baina errealitatea da, eta uste dugu garai horretako udal arduradunek hori berrets dezaketela.

Horren ondorioz, NASIPAK legokiokeena baino 175.735 euro gehiagoko kostua hartu du bere gain (206.500 + 55.000 - 85.765), eta berriaz gordetzen du horri buruzko erreklamazioa egiteko aukera. Txostenean hori jasotzeko eskatzen dugu.

NASIPAK ez du deus ere kobratu, ezta ere, desegiteagatik eta bazkideei eginiko esleipenarengatik, eta uler liteke likidazio horretatik eratorritako fakturek salmentengatik komisio bat sor lezaketela, orrietan itundutakoa; hori dela eta, NASIPAK erreserbatua du hura erreklamatzeko eskubidea, kasua bada.

Bestalde, ez daukagu jasota kudeatzaile berriek eskatua dutenik kreditu hori konkurtso-prozesuan aitor dadin, eta horrek ongi erakusten du zeinen bidegabekoa den; edo, bestela esanda, NASIPAK kreditu handiagoa edukiko zuela, hori zabal konpentsatuko zuena.

Horrenbestez, kendu beharko litzateke aipamen soil hori, zeinaren arabera NASIPAK behar baino 85.765 euro kobratu dituen, eta aurrekari horiek azaldu beharko dira, eta, azken batean aukera dagoela etorkizunean kontusail eta kontzeptu horiek erregularizatzeko. Horrek, izan ere, NASIPAREN aldeko saldo garrantzitsu bat emanen luke.

#### **IV. "GESTIÓN Y PROMOCIÓN EGÜÉS 21-II, S.L." SOZIEKATE PUBLIKO MISTOARI BURUZKO ONDORIOAK**

##### **A) ERAKETARAKO BALIOGARRIA EZ DEN FIDANTZA.**

###### GANBERAREN TXOSTENA.

51. orrialdea. *b) NASIPAK, berak egindako idazki baten bitartez, aipatzen du kontratuaren bermerako behin betiko fidantza gisa, epe finkoko 400.000 euroko ezarpena eratu duela Rural Kutxan, eta hura lagatzen diola Andacelayri onuradun gisa. Ez dago informazio gehiagorik, ez eta, bereziki, aipatutako finantza-entitatearen ziurtagiririk ere, non berariaz adierazten den Andacelay dela ezarpen horren onuraduna.*

*c) NASIPAREN aipatutako agirian, ezartzen da berme horri eutsiko zaiola sozietate mistoaren eratze-kontratua sinatu arte (2010eko martxoaren 29a); lehiaketako oinarrietan, ordea, aipatzen da berme gisa mantendu beharko dela kontratua guztiz exekutatu arte.*

*Horrenbestez, gure iritziz, fidantza jartzeko erabili zen tresnaren izaera ez zen baliozkoa, eta, gainera, ez zen kitatu behar sozietatea eratze hutsarekin; izan ere, kontratuak indarra zuen bitartean mantendu behar zen.*

*Iritzi hori berresten du sozietate misto horrek inguruabar hori NASIPAREN konkurtso-administratzaileari jakinarazi izanak, eta azken horrek zor gisa aitortzen ez duen arren, jotzen du kreditu kontingente bat dela, zenbateko berekirik ez duena eta menpekoaren kalifikazioa duena.*

###### NASIPAREN IRUZKINAK

NASIPA, S.L., Andacelay, S.L. sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2010eko martxoaren 8ko erabakiaren arabera, Erripagañan lur-zatiak besterentzeko eta babes ofizialeko etxebizitzaren proiektuak egiteko eta obra zuzendaritzarako sozietate misto bat eratze lehiaketako esleipen-hartzaile suertatu zen, eta kontratuaren berme gisa BEHIN BETIKO FIDANTZA jarri zuen, LAUREHUN MILA EUROKO (400.000-€) epe finkoko 3008 0137 48 1930833932 zenbakiko ezarpenaren bidez. Ezarpen hori NAFARROAKO RURAL KUTXAN ireki zuen eta ANDACELAY, S.L.ri LAGA zion, ONURADUN gisa.

Berme-gordailu horri eutsi egin zitzaion sozietate mistoa eratze eskritura publikoa sinatu zen arte.

Gogorarazi behar dugu Kontratuei buruzko Foru Legeko 95. artikulua aukera ematen duela bermea emateko eskudiruan, lehenbiziko errekerimenduan kobratu ahalko den abal baten bidez edo kauzio-aseguruaren bidez.

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako ziurtagirira jo beharra dago.

Txostena aldatu beharra dago eta aitortu fidantza zuzena izan zela, edo, gutxienez ere, egiaztatuta dela gordailuaren onuraduna Andacelay izan zela.

##### **B) HOGEITA BATGARRENA. SOZIEKATE MISTOAREN ERATZETIK BERTATIK ERATORRITAKO KONTRATAZIOAK PROIEKTUA ETA OBRA-ZUZENDARITZA.**

###### GANBERAREN TXOSTENA.

52. orrialdea. A) Eratze-prozesua hasi baino lehen.

*Aztertutako informaziotik ondorioztatzen da ezen, sozietatea eratze prozesua baino lehen, proiektua jada beste sozietate mistoak, Egüés 21, S.A.k, enkargatuta zegoela, eta bazkide pribatuak 206.250 euroko prezioan ordaindu zuela. Ez dago agiri bidez jasota inongo prozedurarik jarraitu izana publikitate eta lehia printzipioen betetzea bermatzeko.*

*Gainera, jada taxututa zegoen proiektu bat egoteak justifika lezake sozietate misto berria eratze prozesuan ez jasotzea Erripagañako udalez gaindikoko plan sektorialaren aldatetari buruzko aurreikuspenik –jada hasita zegoen aldaketa hori–; halaber, NASIPARI lehiarako abantaila handia eman zion prozesu horretan.*

B) Egüés 21-II sozietate mistoa bera eratu zenetik.

Proiektua erredaktatu zuen taldeak egindako ordainketak 643.997 eurokoak izan ziren; kopuru horretan sartzen dira segurtasunaren eta osasunaren arloko azterketaren eta koordinazioaren gastuak, 13.011 euro egiten dutenak, zeinak, gure ustez, kontratuaren prezioaren barruan baitzeuden.

Gainetik ordaindutako kopuru horrek baliabideak kaltetzen ditu, eta sozietateko administratzaileen sozietate-erantzukizuneko eta banakako erantzukizuneko ustezko kasu bat da, kontabilitate-erantzukizuna dela eta.

#### NASIPAREN IRUZKINAK

Hurrengo gaira joko dugu, NASIPAK arkitektoekin ustez zeukan loturari dagokionez eta obren lizitaziorako ustez zeukan abantaila/bateraezintasunari dagokionez; eraikigarritasunaren aldatetari buruz, berriz, dagokion atalera jo beharko da. Arkitektoei egindako ordainketak, berriz, beraiek eta udal agintariek argitu beharko dituzte.

### **C) ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO OBREN KONTRATAZIOA.**

#### GANBERAREN TXOSTENA.

54. orrialdea.

*Prozedura horretarako hiru eskaintza agertu ziren –bazkide pribatuarena, besteren artean–; horietatik bat, ordea, baztertuta geratu zen baldintza-orrian eskatzen zen kaudimen ekonomikoaren ratioa betetzen ez zuelako. Baztertutako enpresa batek aurkeztutako erreklamazioa zela eta, mahaiak txosten bat eskatu zion Udaleko aholkulari juridikoa eta kudeatzailea zenari, zeinak berretsi baitzuen enpresa ez onartzea legezkoa zela.*

*· Sozietate honen Kontseiluaren 2010eko urriaren 26ko aktan, lehiaketa publikoan lortutako puntuazioetan oinarrituz, babes ofizialeko 138 etxebizitza horiek eraikitze lanak NASIPA, S.L., enpresa mistoko bazkide pribatuari esleitzea erabaki zen, 11,88 milioitan (BEZik gabe), ehuneko 15 inguruko beherapen batez. NASIPAK izendatutako bi kontseilariak abstentzioa eman zuten. Nabarmendu behar dugu bi eskaintza-egileek proposamen ekonomiko berbera aurkeztu zutela, baina NASIPAK abantaila nabarmena hartu ziola besteari eskaintza teknikoan –61 puntu eta 30 puntu, hurrenez hurren–. Horri dagokionez, aipatu behar dugu balorazio teknikoaren txostenaren arabera –udal arkitektoak egina da–, NASIPAREN eskaintza askoz ere zehazkiago aztertuta dagoela obra horiek egiteko.*

#### NASIPAREN IRUZKINAK.

138 BOE-en lizitaziorako baldintzen orria Andacelay, S.L.k erredaktatu zuen. Aurretik hala izan zedila onetsi zen Gestión y Promoción Egüés, 21-II, S.L.ren Administrazio Kontseiluaren 3. aktan, 2010eko uztailaren 30ekoan. Hori Andacelayren aldeko 3 botorekin eta NASIPAREN bi kideen abstentzioarekin erabaki zen.

Akta horrek honakoa zioen hitzez hitz: "Andacelay izan dadila, proiektuko erredakzio-egile diren teknikariek batera, obren kontratazioa arautzeko baldintzen orriaren erdua onesten duena, zeren eta NASIPAK eraikuntza-obrak kontratatze lehiaketara aurkezteko asmoa baitu, eta ez du inolako eraginik eduki nahi izan orrietan. "

Gainera, erabaki zen Andacelay izan dadila aurkeztutako proiektu guztiak eta obren lizitaziorako baldintza teknikoak onesten dituen. Capilla Vallejo arkitektoek erredaktatu zituzten horiek eta Andacelayk horretarako izendatu zituen teknikariek baliozkotu zituzten.

Horri dagokionez, Andacelayk adierazi zuen ados zegoela, baina NASIPA, S.L.ri exijitu zion –behin lehiaketarako deialdia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, proiektu eta orri guztien kopiak egitea eta interesdunei ematea arintzeko asmoz– haien NASIPA, S.L.ren bulegoetan gordailuan uztea (Remigio Múgica kalea, 2- behea, Iruña), azken horrek interesdun guztiei eman ziezaien, lizitazioak irauten zuen aldiaren. NASIPAK bere gain hartu zuen kopia horien kostua.

Andacelay, S.L.ren kideen aldeko 3 botorekin eta NASIPA, S.L.ren bi kideen abstentzioarekin erabaki zen hori.

Dokumentazioa NASIPAREN bulegoetan jasotzearena Andacelayk exijitu zuen eta anekdota bat da, zeren eta, agerikoa den bezala, Andacelayk aurrez erredaktatu eta onetsitako orri eta proiektuen

kopia eman besterik ez baitzuen egiten. NASIPak orduan ezagutu zituen, eta ez lehenago, eta transmisore hutsaren zeregina bete zuen.

NASIPAK obren lizitaziora aurkezteko izan lezakeen bateraezintasunari dagokionez, horrelako zerbait iradoki nahi baita, 34. puntuan adierazitako errepikatu behar dugu. Bateraezintasuna izateko, 6/2006 Foru Legeko 20.3 artikulua exijitzen du lizitatzailerak esku hartu izana lizitaziora aurkeztu nahi deneko kontratuaren xehetasun teknikoak zehazterakoan. Hau da, logikoa denez, saihestu nahi da joko-arauak jarri dituen, kontratuaren baldintza teknikoak finkatu dituen, kontratu horretarako lizitazioan aurkeztea, horrek abantaila ematen baitio. Kasu honetan ez da kontratazioaren arloko foru araudiak exijitzen duen lehenengo baldintza betetzen (berak edo berarekin lotutako enpresak xehetasun teknikoak idaztea), eta, horrenbestez ezin dela NASIParen eraikuntza-eskaintza bateraezintzat jo.

NASIPAK ez ditu xehetasun tekniko horiek erredaktatu, eta, gainera, ez du inongo enpresa-loturarik, indarreko legedian ezarritako terminoetan, Andacelay, S.L.rekin eta arkitektoen lantaldearekin, haiek izan baitziren erredaktatu zituztenak.

Aurrekoa ezarrita, garrantzitsua da argitzea, halaber, Foru Legeak Nafarroara dakarren 2004/18/CE Zuzentarauak ez duela berariaz jasotzen debekatuta dagoenik kontratu xehetasun teknikoaren erredakzioan parte hartutakoak lizitaziora aurkeztea.

Europako arauak exijitzen duena da, xehetasun teknikoak finkatu ondoren, kide diren estatuek berma ditzatela haiek ez dezatela distortsiorik eragin lehiari eta bidea eman dezatela lizitatzailerak berdintasun-baldintzetan aurkeztu ahal izatea. Hitzez hitz dio xehetasun teknikoek lizitatzailerak guztien arteko aukera berdintasuna ahalbidetuko dutela eta ez dutela eragin behar kontratu publikoak lehiarako zabalik egoteko bidegabeko oztopoak sor daitezela. Azken aurreikuspen hori berariaz aldatu zen Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legeko 45. artikulura. Estatuko lege hori oinarritzat da.

Hau da, xehetasun teknikoak erredaktatze hutsak (halakorik, ordea, ez da kasu honetan gertatu: NASIPAK ez ditu erredaktatu) ez luke bateraezintasunik sortuko; bateraezintasuna sortzeko egiaztatu beharko litzateke erredakzio horrek lehiari edo berdintasun-baldintzetan distortsioa eragin duela.

Horri buruzko jurisprudentzia ugari dago; esate baterako Audientzia Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salako 8. Sekzioaren 2009ko urtarrilaren 21eko epaia (JUR/2009/59594).

Izan ere, gai zehatz hori, bai eta etorkizuneko lur-zatietara zabaltzeko aukera ere, orain dela lau urte aztertu eta ebatzi zuen Nafarroako Kontratazio Batzarrak, martxoaren 7ko 3/2008 Erabakiaren bidez. Izan ere, haren bidez, kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat ezetsi zen, obren esleipen-hartzaile zen sozietatearekin lehiatuta, obra-zuzendaritzako kontratu bat proiektuaren erredakzioaren esleipen-hartzaile izandako arkitekto berari esleitu izateari buruzkoa.

Nafarroako Kontratazio Batzarrak jotzen du ezen i) ez dela gertatzen 176.2 artikuluko debekua, zeren eta ez baita egiaztatu obren esleipen-hartzailea den enpresaren eta zuzendaritzaren esleipen-hartzailea den arkitektoaren arteko lotura, eta ii) ez dela gertatzen 20.3 artikuluan aipatzen den bateraezintasuna, zeren eta proiektuaren erredakzioa ez baitagokio obra-kontratuaren xehetasun teknikoaren erredakzioari, nahiz eta antzekotasun batzuk izan, eta, nolahi ere ez dagoela inongo probarik lizitatzailerak lehia eta berdintasun-baldintzak urratu izanari buruz.

Erabaki hori irakurtzea gomendatzen dugu.

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako dokumentazio honetara jo beharra dago:

. Gestión y Promoción Egüés 21-II S.L.ren Administrazio Kontseiluaren 3. eta 4. aktak, 2010eko uztailaren 30ekoa eta 2010eko irailaren 27koa, hurrenez hurren.

NASIPA, S.L. ez zen 138 BOE eraikitze lizitaziora aurkeztu Capilla Vallejo Arquitectos, S.L. enpresarekin.

Andacelay, S.L. hirigintzako udal sozietateak lizitazio baterako deia egin zuen, sozietate misto bat eratzeko, lur-zatiak besterentzeko eta proiektua erredaktatu eta obren zuzendaritzarako, eta NASIPA (sozietate mistoa eratzeko bazkide gisa) eta Capilla Vallejo Arquitectos, S.L. (proiektua erredaktatzeko eta obren zuzendaritzarako) suertatu ziren esleipen-hartzaile, zeren eta puntuaziorik altuena lortu baitzuten; horiek artean ez zegoen inolako enpresa-loturarik, legedi indardunean ezarritako terminoetan

(Merkataritza Kodeko 42. artikulua eta Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru legeko 16. artikulua).

Orriek exijitzen zuten "bazkide pribatua" zen lizitatuzaileak arkitektura-eskaintza bat aurkez zezala proiektuak erredaktatzeko eta obraren zuzendaritzarako, baina kasu honetan, zerbitzu horiek ez zitzaizkion zuzenean esleituko bazkide pribatuari, hautatutako sustapen-enpresari (kudeaketaren kasuan, ordea, hala egiten zen).

Hori guztia dela eta, NASIPA ez zen aurkeztu enpresen aldi baterako batasun bat osatuz arkitektura-bulego horrekin, eta ez zuen (kontrakoa esaten den arren) harekin inongo enpresa-loturarik.

NASIPA, lehiaketako esleipen-hartzaile gisa, ez du inongo kontraturik egin enpresa mistoarekin obraren zuzendaritzarako eta proiektuen erredakziorako, kudeaketa-kontratuaren kasuan ez bezala; izan ere, kontratua zuzenean formalizatu zen sozietate mistoaren eta arkitektura-bulegoaren artean, eta azken horren eskaintza aurkeztu baizik ez zen egin.

Proiektua erredaktatzeari eta obraren zuzendaritzari buruzko kontratu-harremana soilik Promoción y Gestión Egüés 21-II-ren eta Capilla Vallejo Arquitectos-en artekoa da, zerbitzu profesionalak errentan hartzeko 2010eko maiatzaren 4ko kontratuaren arabera.

NASIPA, S.L.k Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.-ren 2010eko uztailaren 30eko Administrazio Kontseiluan iragarri zuenetik (ikus 3. akta) eraikuntza obrak kontratatuzko lehiaketara aurkezteko asmoa zuela, bere ordezkarien bidez parte-hartzean abstentzioa eman zuen Promoción y Gestión Egüés 21-II merkataritza-enpresako Administrazio Kontseiluan zuzenean edo zeharka aurkeztutako eskaintzen balorazioan eragina izan zezaketen erabaki guztietan, bai eta obraren exekuzioan zehar gerta zitezkeen desadostasun edo gai guztietan ere. Eta horren guztiaren xedea zen gardentasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak bermatu eta indartzea eta tratu pribilegiaturik edo lehiarako abantailarik ez egotea.

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako dokumentazio honetara jo beharra dago:

. Gestión y Promoción Egüés 21-II S.L.-ren Administrazio Kontseiluaren 5. akta, 2010eko urriaren 26koa.

Txostenean berariaz aitortu behar da lizitazioek legedi indarduna bete dutela eta ez dagoela inolako aztarnarik ustezko irregulartasunei buruz, arinkeria handiz iradokitzen den bezala.

Txostenak dioten bezala, lizitaziora aurkeztu zen eta kaudimen-ratioa ez betetzeagatik onartu ez zen enpresa batek erreklamazioa aurkeztu zuen, eta Udaleko aholkulari juridiko eta kudeatzailea zenak informatu zuen haren erreklamazioari buruz.

Hau da, prozesua garbia eta gardena izan zen, eta NASIPARI ez zitzaion alde aurretik inongo abantailarik eman; besterik gabe eskaintzarik onena aurkeztu zuen, udal teknikarien arabera, eta horregatik suertatu zen esleipen-hartzaile. Beste behin esan behar dugu ezin dela ustezko irregulartasunik iradoki proba-euskarrik ez duten susmo huts batzuetan oinarrituta.

## **D) OBRA-KONTRATURAKO BALIOGARRIA EZ DEN FIDANTZA.**

### GANBERAREN TXOSTENA.

55. orrialdea. a) *Kontratuaren fidantza. 2010eko abenduan, NASIPAK kontratuaren fidantza gisa 500.000 euroko epe finkoko ezarpen bat jarri zuen; fidantza hori, berak esaten duenaren arabera, sozietate mistoaren alde eratuta dago. Alderdi horrek, ordea, ez du finantza-entitatearen agiri-euskarririk. Hala eta guztiz ere, 2012ko martxoan, beste finantza-entitate baten abala aurkeztu zuen, 491.667 eurokoa eta urte bereko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin. b) Ehuneko bosteko atxikipena. Ez dago jasota betebeharrak hori bete izana. 543.880 euro egiten zuen.*

### NASIPAREN IRUZKINAK

Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialeko A.1.1, A.1.27. puntuko 8. atalean har eta A.1.3 lur-zatietan 138 BOE eraikituzko obraren kontrataziorako lehiaketa arautzen duten baldintzen orriko 7. puntuko 8. atalaren arabera hartutako betebeharren berme gisa, "esleipen-hartzaileak behin betiko fidantza bat jarri beharko du, esleipen-aurrekontuaren % 4 (BEZik gabe) egiten duen zenbatekoarena. Fidantza era daiteke eskudirutan,..."

Hori dela eta, NASIPA, S.L., 2010eko abenduaren 23an, Gestión y Promoción Egüés 21, II, S.L.ren alde, berme-gordailu bat eratu zuen, 2054 0880 13 9458798149 zenbakiko epe finkoko ezarpen batean oinarrituta, 500.000 eurokoa, "Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra" entitatean.

Bermerako gordailu hori eratu zen obren esleipen-hartzaileak bere gain hartutako betebeharrak guztiak kitatu arte.

Gero, Eguesibarko Udalak adierazi zuen nahiago zuela abal bat izan. Hori dela eta, 2012ko martxoaren 5ean, NASIPA, S.L.k 2007.00585-49 zenbakiko banku-abala eratu zuen Kutxabank, S.A. entitatean, 491.667,17 eurokoa (lehiaketako esleipen-aurrekontuaren % 4). Abal horren onuraduna Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. zen.

Gogorarazi behar dugu Kontratuei buruzko Foru Legeko 95. artikulua aukera ematen duela bermea emateko eskudiruan, lehenbiziko errekerimenduan kobratu ahalko den abal baten bidez edo kausio-aseguraren bidez.

Txostenaren zirriborroari aurkeztutako alegazioen idazkiari gehitutako dokumentazio honetara jo beharra dago:

. Etxebizitza babestuak eraikitzeke obren kontrataziorako prozedura arautzen duten baldintzen orria.

. Berme gisa jarritako gordailuaren ziurtagiria, 500.000 euroko epe finkoko ezarpenari dagokiona.

. Kutxabank, S.A. entitatearen 2007.00585-49 zenbakiko banku-abala, 491.667,17 eurokoa, lehiaketarako esleipen-aurrekontuaren % 4 hain zuzen.


Txostenean aitortu beharra dago fidantza zuzen eratu zela.

% 5eko atxikipenari dagokionez, egiazki, badirudi sozietate mistoak ez zuela atxikipen hori egin obran zehar, baina ez dago jasota, ezta ere, horrek inongo kalterik eragin duenik, zeren eta ez baita artatu ez den inongo akatsik egon, eta, are gehiago, izanda ere ezin izanen baitzen hari fidantzaren kargura aurre egin.

Are gehiago, gaiaren sakoneko aldera jota, ezin da baieztatu ez denik ematen ari bai orrietan, bai Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legean exijitutako bermea:

. Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak exijitzeko gisa ezartzen du urtebeteko epean konpontzea "eraikitzean izandako akats edo hutsuneak direla eta, obren amaiera edo akaberako elementuetan dauden kalte materialengatik, besteak beste". NASIPA, S.L.k kontzeptu horretan biltzen diren erreklamazio guztiak artatu ditu. Gaur den egunean haien berme-aldia amaituta dago. Ondoren, laburpen-taula batean artatutako erreklamazioak azalduko ditugu:

Lanbidea	Guztira	%	Batez besteko itxaronaldia
ARMAIRUAK	1,00	% 0,1	57,00
BAINUONTZIA	2,00	% 0,2	13,00
TERRAZETAKO BARANDAK	9,00	% 0,8	50,00
ALUMINIO-AROTZERIA	135,00	% 11,8	46,89
BARRUKO AROTZERIA	206,00	% 17,9	61,50
ERAIKUNTZA	138,00	% 12,0	35,61
ELEKTRIZITATEA	69,00	% 6,0	35,78
DUPLEXETARAKO ESKAILERAK	8,00	% 0,7	111,63
ITURGINTZA	143,00	% 12,5	24,94
MARGO-LANAK	263,00	% 22,9	55,29
PLADURRA	36,00	% 3,1	36,67
METALEZKO ATEAK	4,00	% 0,3	7,00
LURZORUA	85,00	% 7,4	59,76
NASIPAK IKUSI BEHARREKOA	15,00	% 1,3	97,27
BEIRATEA	34,00	% 3,0	20,41
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>1.14800</b>	<b>% 100,0</b>	<b>47,52</b>



Legeak 3 urtez exijitzen dituen bermeek beren baitan hartuko dute "eraikuntzako edo instalazioetako bizioek edo bertako elementuen akatsek eraikuntzan eragindako kalte materialen kalteak ordaintzea, baldin eta bizigarritasun baldintzen ez-betetzea eragiten badute". Ganberaren txostenak dioten bezala, iturgintzako eta elektrizitateko azpi-kontralistek bermatuta dago. Horri gehitu behar zaio, egiaztatuta dagoen bezala, berme hori lortu dela NASIPA, S.L.k edo haren bazkideek gremio horiei kontra-berme batzuk eskaini dizkietelako; horrelakorik berriz, ez da aipatzen inon ere txosten horretan.

Legeak hamar urtez exijitzen dituen bermeak, hau da, "egindako kalteak ordaintzea baldin eta zimendu, euskarri, habe, forjatu, karga-horma edo bestelako egitura-elementuen akatsen ondorioz, hau da, eraikuntzari zuzenean erresistentzia mekanikoa eta egonkortasuna ematen dizkieten elementuen akatsen ondorioz, obran kalte materialik gertatzen bada"

Aitortu beharra dago % 5eko atxikipenik ez izateak ez duela inongo kalterik eragin eta, bereziki, erreklamazio guztiak artatu direla eta Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legeak exijitzen dituen berme guztiak errespetatu direla. Izan ere, NASIPAK lortu du bere azpi-kontratek are % 5etik gorako bermeak ematea, eta, horrenbestez, kalterik ez da izan.

## **E) UDALARI ORDAINDUTAKO EIOZ-A ETA OBRA LIZENTZIA.**

### GANBERAREN TXOSTENA.

55. orrialdea. *Udalak emandako informazioaren arabera, hasiera batean etxebizitzaren sustapen horrengatik ordaindutako EIOZak –aurrekontuaren gainean aplikatzekoa den ehuneko 4,8ko tasa– eta obra lizentziak –ehuneko 0,2ko tasa– 0,62 milioi egin zuten. Kalkulu hori egin zen aldatutako proiektuan aurreikusitako obraren exekuzio materialeko aurrekontua –12,37 milioi– oinarri hartuta.*

*Obren amaierako exekuzioak 10,88 milioiko exekuzio materiala izan zuten, eta horrek aurreko kontzeptuengatik behin betiko zergapetzea suposatu zuten, 0,54 milioikoa.*

*2012ko otsailean, sozietate mistoak idazki bat aurkeztu zion Udalari, bere garaian ordaindutako EIOZaren berriak eskatze aldera. Udalak erantzun zuten esanez data horretan obrak amaitu gabe zaudela eta, horrenbestez, amaierako likidaziorik ez zegoenez, une horretan ezin zela inongo berriak egin; hori, halere, ez zen eragozpena amaitzen zirenean haiek erregularizatzen.*

*Bestalde, 2012ko urrian, sozietate mistoko Administrazio Kontseiluak erabaki zuten Udalak ez zuela zerga horren kontzeptuan inongo zenbatekorik itzuli behar.*

### **NASIPAREN IRUZKINAK**

Egüés 21, S.A. sozietatearen kasuan bezala, 2012ko otsailaren 29an, Udalari eskaria aurkeztu zitzaion diferentzia hori itzul zezan, baina gaur arte ez da erantzunik jaso. Egüés 21, S.A.ren kasuan, ordea, non ordaindu behar baitzen, urte bereko maiatzean eman zitzaion erantzuna eskatutakoari.

Egüés 21, S.A. sozietatearen kasuan bezala, 2012ko otsailaren 29an, Udalari eskaria aurkeztu zitzaion diferentzia hori itzul zezan. Ez da egia 2012ko urrian ukatu zenik, 2013ko martxoko fikziozko batzarrean gertatu baitzen hori.

Zehazki honakoa da aktan ageri den fikziozko erantzuna:

*"Amaia Etxartek hartu du hitza, eta aditzera eman du Eguesibarko Udalak egin zuten behin-behineko likidazioa aurkeztutako aurrekontuan oinarritu zela; izan ere, aurrekontu hori, legedi indardunaren arabera, ezin izanena da sustapeneko gehieneko salmenta-prezioaren % 50etik beherakoa. Horrenbestez ez du logikoa ematen legearen ez-betetze batean oinarritutako itzulketa bat egin dadila, are gehiago kontuan hartuta ez-betetze horren aitorpenak Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. rentzat izan ditzakeen ondorioak. Gainera, jarraitzen du, kontuan hartu beharra dago NASIPA, S.L.k etxebizitza babestuen eraikuntza-obretarako aurkeztutako proposamenean, irabazle atera zen hartan, % 10eko portzentaje finkoa ezartzen zela, obrek irauten zuten aldi osorako, eraikitzailearen gastu orokorren eta industria-etekinaren kapitulurako".*

Txostenak aztertu behar du egiazkoa ote den 2013ko martxoko batzar hori, eta jaso behar du fikziozkoa dela, eta horretan oinarrituta, NASIPAREN eskari legitimoari bidegabezi ezezkoa eman zaiola. Hori dela eta, bere buruarentzat erreserbatu du erreklamatzeko eskubidea, batzar-simulazio horretatik erator litezkeen erantzukizunak kendu gabe. Izan ere, hori beste batzuetan ere gertatu da, eta NASIPAK



jada aurreko alegazioetan salatu zuen. Kontuen Ganberak, berriz, ezikusiarrena egiten du, den larriarekin ere.

## **F) MAILEGUETATIK ERATORRITAKO FINANTZA-GASTUAK**

### GANBERAREN TXOSTENA.

57. orrialdea. *Azken batez, azaldutako egoera, kontratua dela-eta NASIPAREN ez-betetze bat izateaz gainera, sozietate mistoaren aldetik, diligentzia falta bat izan da funts publikoen erabileran eta kontabilitate-erregistroan, eta Administrazio Kontseiluari exijitzekoa zaio. Diligentzia falta horrek eragin du baliabideak 1,20 milioi inguru kaltetu izana, eta sozietateko administratzaileen sozietate-erantzukizuneko eta banakako erantzukizuneko ustezko kasu bat da, kontabilitate-erantzukizuna dela eta.*

*Bestalde, sozietate mistoaren arduradun berriek azterlan bat enkargatu dute aurreko finantza-gastuek sozietateen gaineko zergan daukaten eraginari buruz, zeren eta enpresaren diru-sarrera direla jotzen baitute. Azterlan horren arabera, 2010etik 2012ra bitarteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergan izan duen eragina, kasuko errekaruak barne, Foru Ogasunari ordaindu beharreko 0,3 milioi eurokoa da.*

### NASIPAREN IRUZKINAK

Egiazki, NASIPAK eskaini zuen kostu finantzarioak bere gain hartzea, baina ez sustapenaren hasieratik kostu finantzario horiek aurreratzea, besterik baita hori.

Eskaintzan argitasun osoz ezartzen da sustapeneko eta eraikuntzako gastu finantzarioak bere gain hartuko zituela, baina, agerikoa den bezala, sustatzailearen mailegua hasiera batean sozietate mistoak kontratatu eta bere gain hartu behar zuen, ezertan kendu gabe NASIPAK interesen behin betiko likidazioa egitea, sustapenaren amaieran. Horixe da zuhurtasun-irizpideak ere exijitzen duena, zeren eta NASIPAK gastu finantzario horiek aurreratu izan balitu, aurreikuspen hutsez eginen zuen, ez errealitate zehatzaren arabera. Horri dagokionez, NASIPAREN hasierako aurreikuspena 385.000 euro baino gehixeagokoa zen, eta azkenean ia milioi bat euro izan dira, ikusiko dugun bezala.

Hori hala izanda, sekula ez dio ezezkoa eman sustapenaren amaieran kostu finantzario horiek, errealak, ordaintzeari, ordurako ezagutuko baitziren. Kostu horiek, kasu honetan, askoz ere handiagoak dira NASIPAK hasiera batean aurreikusi zituenak baino, eta hala ere, NASIPAK jarraitzen du betebeharrak hori onartzen.

Hori guztiz ezaguna zen eta Andacelayrekin itunduta zegoen, eta horrela erabaki zuten Egüés 21-II sozietate mistoaren Administrazio Kontseiluko kideek, eta ez dakigu behar bezala dokumentatuta dagoen, baina zalantzarik ez dugu garai hartako udal kudeatzaileek hori argitu ahalko dutela. Beti itundu zen gastu finantzarioak NASIPAK likidatuko zituela sustapenaren amaieran, behin errealitatea ezagututa. Aipatu beharra dago NASIPAK Egüés 21-II sozietate mistoaren eraketarako lehiaketara aurkeztu zuen eskaintza hitzez hitz aipatzen dela 3. gutun-azaleko 25. orrialdean: "uste dugu sozietate mistoko Administrazio Kontseiluak izan behar duela jarduketa horiek nola finantzatzen diren finkatzen duena".

Izan ere, ordaintzeko betebeharrak hori kreditu gisa aitortu da lehiaketan, eta horretarako konkurtso-administratzailearen kalifikazioetara jo beharra dagon, non indarreko legediaren aplikazioa besterik ez baita aipatzen. Halere, badirudi hori ez dela erabat Ganberaren eta sozietate mistoko kontseilu berriaren gustukoa, eta horregatik konkurtso-intzidente bat badago (bide batez esanda, 57.817 euroren kalifikaziora mugatua). Haren emaitzara jo beharko da.

Nola hitz egin daiteke orduan baliabide edo funts publikoak kaltetzeaz, eta, horregatik, erantzukizun sozial, banakako eta kontabilitatekoaz baldin eta zorra aitortuta badago eta konkurtso-legediko arauen arabera ordainduko bada? Zinezko bidegabekeria bat da, errespetu guztiekin.

Xehetasunetara gehiago jota, eta txostenak berak aitortzen duen bezala, NASIPAK gastu finantzarioak bere gain hartzeak erreferentzia egiten die soilik maileguaren interesei eta haien irekitzeko komisioei; ez, ordea, abalei. Hurrengo taulan, NASIPAK konkurtsoaren deklaraziora arte bere gain hartu beharko lituzkeen gastu finantzarioak jaso ditugu.

Kontua	Izena	2010	2011	2012	< 14/06/2013	LEHIAKETA
6623.000000 0.	Kreditu-erakundeekiko zorren interesak	41.569,86	173.086,4 5	432.544,6 6	95.647,47	742.848,44
6690.000000 0.	'Bestelako gastu finantzarioak	104,88	1.593,24	7.107,19	128,3	8.933,61
6690.000000 1.	'IREKIERA-KOMISIOA	199.146,06	30			199.176,06
6690.000000 2.	'TRANSFERENTZIARENGATIKO KOMISIOAK	157,81	202,71	1.097,07	80,25	1.537,84
6690.000000 3.	'BEZEROEN ABALA	15.324,00	50.980,79	62.095,47		128.400,26
6690.000000 4.	'URBANIZAZIOA ERAIKITZEKO ABALA	371,58	1.223,25	1.180,96	71,98	2.847,77
6690.000000 5.	'ABALA, BESTERIK	760,79	2.116,20	3.559,70	-408,77	6.027,92
	<b>GUZTIRA</b>	<b>257.434,98</b>	<b>229.232,6 4</b>	<b>507.585,0 5</b>	<b>95.519 23</b>	<b>1.089.771,90</b>

<b>NASIPAK BERE GAIN HARTZEKO (IREKIERA + INTERESAK)</b>	<b>240.715,92</b>	<b>173.116,4 5</b>	<b>432.544,6 6</b>	<b>95.647,47</b>	<b>942.024,50</b>
--	-------------------	------------------------	------------------------	------------------	-------------------

<b>NASIPAK BERE GAIN HARTU GABEAK</b>	<b>16.719,06</b>	<b>56.116,19</b>	<b>75.040,39</b>	<b>-128,24</b>	<b>147.747,40</b>
---	------------------	------------------	------------------	----------------	-------------------

Horrenbestez, txostenak aipatzen dituen gainerako zenbatekoak, zeinak, kasualitatez, bat baitatuz udal kudeatzaile berriek defendatutakoarekin baina konkurtsoko administrazioak ezetsi baititu, okerrak dira, edo, gutxienez ere eztabaidagai dira. NASIPAK eta konkurtsoko administrazioak ere ordaintzeko dauden 942.024,50 euro horiek aitortu dituzte. Ez dago ez baliabide, ez funts publikoen inongo kalterik, eta ondorio harrigarri horri eutsiz gero geuretzat gordetzen dugu gisa guztietako ekintzetara jotzeko eskubidea.

Gastu finantzario horiek Sozietateen gaineko Zergan duten eraginari dagokionez, Ganberak – beste behin kudeatzaile berriek enkargatutako ustezko azterketa fiskal bati jarraituz– oker nabarmena egiten du.

Ekarpen diferituko kapital-eragiketa bat da, Sozietateen gaineko Zergan inongo eraginik ez duena, honako arrazoiak tarteko:

. Interesak ez dira zerbitzu-prestazio baten kontraprestazioa, baizik eta NASIPAK, sozietate mistoko bazkidea izan ahal izateko, bere gain hartutako konpromiso bat. Horrenbestez, ezin dira fakturatu eta ez dute BEZik sortzen, eta inongo harremanik ez dute NASIPAK eginiko obra-exekuzioekin, eraikitzailea den aldetik.

. Hau da, sozietate mistoa ez da NASIPARI inongo zerbitzurik ematen ari, zeina fakturatu behar duen; izan ere, sortzen ari dena da NASIPAK gastu batzuk bere gain hartzen dituela, eta gastu horien jatorria sozietate mitoan daukan sozietate-partaidetza bera da. Hori dela eta, sozietate mistoak NASIPAK bere gain hartutako zenbatekoa kontabilizatu behar du sozioen ekarpen kontu batean, eta NASIPAK berak zenbateko hori bera aitortzen du sozietate mistoan egindako finantza-inbertsioaren balio handiagoaren gisara. Horrenbestez, ez da sozietate mistoaren eta NASIPAREN arteko fakturaziorik egonen. Ulertu beharra dago bi bazkideen arteko ituna "ekarpen diferitu" bat dela, zeinaren kopurua ez baitago finkaturik, denborarekin eta interes-tasarekin alda daitekeelako. Hori dela eta, bazkideek erabaki dute hura sustapenaren amaieran ordain dadila.

. Bi sozietateek, NASIPAK eta Egüések, aurreko ekitaldietan kontabilizatu behar zuten ekarpen horren balizko kalkulu aldekoagoa, baina halakorik egin ez dutenez, ez du eraginik izan eta ez du

eraginik izanen sozietate mistoaren emaitzetan.

. Egüesentzat bere funts berekien osagai kontingente bat litzateke, eragin neutroa duena, zeren eta bai "111-Ondareko beste tresna batzuk" pasiboko kontua, bai "103-Bazkideak, galdatu gabeko despoltsapenengatik" aktiboko kontua egoera-balantzean ondare garbiaren atalean baitaude.

. NASIParentzat aktibo eta pasibo kontingente batzuk izanen lirateke, zenbateko berarengatik: "249-Loturadun alderdietako epe luzeko partaidetzak" eta "249-Loturadun alderdietako epe luzeko partaidetzetatik oraindik egin gabeko despoltsapenak" kontuak.

Ekarpen diferitu horren ordainketa Andacelayk Egüés 21ko Kontseiluan zeuzkan aurreko ordezkariak itundu zuten, zeren eta kanpainako laugarren hilabeterako sustapeneko etxebizitza % 92 salduta baitzegoen. Horrek, izan ere, ekarriko zuen sustapenaren amaieran diruzaintza-egoera behar adinakoa izatea gastu finantzario horiek konpentsatzeko, bazkide pribatuari etekinak banatuta.

2012ko apiriletik, Andacelayko egungo izatezko kontseilariak –zuzenbidezkoak ez izan arren– egoera hori ezagutzen dute, zeren eta lkerketa Batzordean aztertu baitzen, Ganbera horrek dokumentu bidez kreditatua duen bezala. Une horretatik aurrera, zenbait pertsonak izan dute sozietateko aginte efektiboa. Izan ere, 2011ko kontuak antzinako administratzaileek sinatu zituzten, berrien aginduz, eta fakturak ordutik Udalari aurkeztu zitzaizkion, baliozkotu zitzaizkion.

Balio dezatela iruzkin hauek erakusteko sozietateko "izatezko" administratzaileek nahikoa eta sobra ezagutzen zutela egoera 2012ko otsailetik.

Nabarmenezkoa da sustapen honetan izandako uko-egiteak askoz gehiago izan direla sektore bereko aurreko bi sustapenetan izan zirenak baino. Zehazki, sustapen honetako uko egiteak 51 izan dira, 138tik (% 37ko uko egiteak); Burlatako Udalaren 267 BOEren sustapenean, berriz, uko egiteak % 13 izan dira. Beste arrazoi batzuen artean, ulertu behar dugu gure sustapenak hartutako ospe txarra, sozietate mistoaren beraren barruko sektoreren batetik sistematikoki jaurtitako publizitate negatiboaren eta difamazio-kanpainaren ondoriozkoa, erabakigarri gertatu dela uko-egiteen kopuru handi horretarako.

Uko-egiteak aztertuta, ondorioztatu dugu ezen gure sustapenean uko egiteen ehunekoa inguruko sustapenetako kopuru beretan mantendu izan balira, sozietatearen kontuak guztiz desberdinak izanen zirela. Laburbildu genezake esanez 2012a honako datu garrantzitsuekin amaitu zela:

Saldutako etxebizitza kopurua: 120 etxebizitza.

Saltzeko daudenak: 18 etxebizitza.

Maileguetan, 2.023.000 euroko kopuruarekin amaituko genuen (ia 3.500.000 euro gutxiago entrega egin ondoren geratu ziren maileguen kopurua baino).

Diruzaintzan 2.032.000 euro inguru lortuko genuen, eta kopuru hori nahikoa izanen zen bazkide pribatuaren ekarpena zehazteko, eta zor hori handitzen ez jarraitzeko.

Higiezinen merkatuko baldintzen narriatzeak, gainera, berarekin ekarri du 24.000 euroko inguruko deskontuak geure gain hartzea (etxebizitza bakoitzeko; horrek berarekin ekarri du, gaur deun egunean, sozietate mistoaren etekina 600.000 euro txikiagoa izatea eta bazkide pribatuak 250.000 euro jarri behar izatea gastu finantzarioak direla eta.

Azkenik, txosteneko iruzkinak guztiz alderdikoiak dira, alde aurretik jota lehiaketan ez dela inongo kopururik kobratuko eta eskaintzan kostu finantzarioak aurreratuko zirela; halakorik ez dago, ordea, inolaz ere, eta hitzez hitzeko testura jo behar da hori egiaztatzeko. Gainera, juridikoki, ezin zen halakorik izan, zeren eta mailegua sustatzaileak, sozietate mistoak, izenpetu behar baitzuen. Geuretzat gordetzen dugu behar diren ekintzak egiteko aukera.

Txostenean berariaz jaso beharra dago NASIPak ez duela inongo ez-betetzetik egin, eta aitortutako konkurtso-zor bat badagoela, ordaintzeko dagoena, eta adierazitako aurrekari guztiak sartu behar dira, behar bezala kreditaturik.

## **G) KOMISIOENGATIKO AURRERAKINA.**

### GANBERAREN TXOSTENA.

57. orrialdea. *NASIPak kontzeptu horrengatik 31.544 euro jasotzeko dituela, guztira.*

*Bestalde, 2012an etorkizuneko salmentak direla-eta aurrerakin edo komisio-hornidura bat*

ematen zaio, 153.199 eurokoa. Zenbateko hori sozietate mistoak zor gisa erreklamatu du NASIPAREN hartzekodunen konkurtsoan.

*Erregularizatzeko daude hartzekodunen konkurtsoa hasi zenetik egin diren salmentetatik heldutako zenbatekoak.*

#### NASIPAREN IRUZKINAK

Kopuruak eta kontzeptuak argitu behar dira. Aurreko alegazioetan esandakoa errepikatuko dugu.

Egüés 21-Ilk eta NASIPAK 2010eko ekainaren 15ean sinatutako kudeaketa-kontratuaren arabera, hirugarren estipulazioari erreparatuta, kudeaketa-gastuak hiru hilez behin fakturatuko dira, sinatutako salerosketa-kontratu pribatuak aintzat hartuta. Aurrez aipatu den bezala, kanpainako laugarren hilabeterako sustapenek % 92 salduta zegoen. Horrek 414.736 euroko fakturazioa ekarriko zuen; horietatik, NASIPAK 400.000 euro fakturatu zituen.

2012ko urriaren 31n egindako batzarrean, NASIPAK fakturatutako kudeaketa-gastu horiei dagokionez, María Victoria Chivite andrearen esku-hartze bat izan zen, non aipatzen baitzuen NASIPA S.L. "gera zedila orain arte kobratutako kopuruekin eta ez dezala itzuli uko-egiteei dagokien inongo kopururik, baina etxebizitza bakoitzeko behin baino ez duela fakturatu behar."

Batzar horren akta ez zen sinatu, eta aurrerago, NASIPA Egüés 21, S.A. desegiteko beharrean zegoenez, hornitzaileei zor ziena ordaintzekoak exekutatzeko aktiboak eskuratze aldera, NASIPARI 2013ko martxoko fikziozko batzar baten akta bat eman zitzaion sinatzeko, non, horri dagokionez, honakoa baitio Alfonso Echeverriak (fikzioz hark ere):

*"Alfonso Etxeberria jaunak hartu du hitza, eta argudiatu du 138 etxebizitzetatik 89 saldu direla; horrenbestez, NASIPA, S.L.k kontzeptu horrengatik fakturatu eta kobratu dezakeen kopurua 291.810,72 eurokoa da; hau da, orain arte egin diren eskritura publiko bidezko salmenten kopuruaren % 2. Horrenbestez, Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.k gastu orokorren kontzeptuan ordaindutako 108.189,28 euroko kopurua (400.000 - 291.810,72) itzuli beharko du,*

*Akordio hau aho batez onetsi da; hau da, NASIPA, S.L.k konpromisoa hartzen du 108.189,28 euroko kopurua itzultzeko."*

Kopuru hori itzuli da 2012ko dibidendu-banaketaren kontra, hartan NASIPAK 132.000 euro baitzituen bere alde.

Gaur egun, NASIPAK 89.278,23 euro dauzka kobratzeko, 2013ko urtarrilaren 1etik saldutako etxebizitzetara dagozkienak, eta egindako beste zerbitzu batzuetatik zenbait faktura. Taula honetan ageri dira xehetasunak:

Isolamendu akustikoaren neurketa	1.181,25
Patitxoaren egurastea	6.538,61
Tokiko banaketa	1.435,75
Guztira	9.155,61
BEZa	1.922,68
GUZTIRA, BEZa BARNE	11.078,29
ESKRITURATUTAKO ETXEBIZITZAK	55.191,70
SALDU BAINA ESKRITURATU EZ DIREN ETXEBIZITZAK	23.008,25
GUZTIRA	89.278,23

Kontratuak hitzez hitz diosenari eta 2013ko martxoko fikziozko batzarrari erreparatuta, NASIPAK sinatu eta fakturatu ez diren kontratu pribatuei dagokien 200.492,91 euroko kopurua fakturatu beharko luke, aurreko alegazioetan aurkeztu genuen eranskinaren arabera. Hori dela eta, jotzen dugu NASIPAREN egungo egoeran, konkurtsoa baino lehen egindako lanak izaki, aurrerakin gisa ageri den 153.000 euroko kopuruarekin, NASIPAREN alde 136.000 euroko zorra gelditzen da (200.492 - 153.000 konkurtsoaren aurrekoak), gehi konkurtsoaren ondorengo 89.278,23 euro.

Txostena aldatu behar da, beraz, zeren eta badirudi NASIPAK gehiago kobratua zuela komisioen aurrerapenaren bidez zegokiona baino; egoera, berriz, kontrakoa da, zeren eta kopuru gehigarri bat gelditzen baita kobratzeko, aurrerakin gisa jasotakoaren ia berdina.

**H) NASIPAREN KONKURTSOA****GANBERAREN TXOSTENA.**

59. orrialdea. *2013ko abenduan, sozietate mistoak hartzekodunen zerrenda aurkatzeko intzidente-demanda bat aurkeztu zuen, eskatuz aipatutako finantza-gastuei zegokien 57.817 euroko kreditua sartzeko eta aitortzeko, eta kreditu hori masaren aurkako kreditu kalifikatzeko; gainerako kredituei dagokienez, ontzat ematen du konkurtso-administrazioak emandako aitortpena eta kalifikazioa. 2014ko otsailean, epaitegiak tramitera onartu zuen konkurtso-intzidente hori, eta hura ebazteko zain gaude.*

**NASIPAREN IRUZKINAK**

Konkurtsoei buruzko legedi bat badago, errespetatu beharrekoa. Deigarri gertatzen da konkurtsoan gertatu den eztabaida bakarra izatea aipatutako 57.817 euroko kopuruaren aitortpenari eta kalifikazioari buruzkoa izatea; hori dela eta, konkurtso-intzidentearen emaitzara jo beharko da. Gainerako kredituei eta haien kalifikazioari dagokienez, sozietate mistoen egungo arduradunek onartu egin dute; horrenbestez, ez dira ulertzen txostenean komunikatu eta aitortu diren ala komunikatu eta aitortu ez diren zorrei buruz egiten diren aipamenak (ikus aurreko atalak).

Aitortu diren konkurtso-zorrak, agerikoa denez, legedi indardunaren eta konkurtsoko administratzailearen kalifikazioen arabera ordainduko dira. Txostena argitu beharra dago, beraz.

**I) SUSTAPENAREN GASTUAK ETA DIRU-SARRERAK.****GANBERAREN TXOSTENA.**

60. orrialdea. *Sustapena dela-eta kalkulaturako etekin gordinak, horrenbestez, 4,65 milioi eginen lukete; hau da, gastu-bolumenaren ehuneko 23,79 edo guztizko diru-sarreraren ehuneko 19,22.*

*Azkenik, NASIPAK, aurkeztutako eskaintzaren arabera, gastu horien balorazioa behar baino 1,21 milioi handiagoak dira, eta gastu kopuru hori NASIParen kargura lirateke eta ez sozietate mistoaren kargura.*

*Txosten hau idazteko garaian, guztira 21 etxebizitza eta etxabe bat saldu dira, guztira 2,82 milioi egiten dutenak; horrenbestez, saltzeko gelditzen dira 28 etxebizitza, hiru etxabe eta 16 garaje-plaza.*

**NASIPAREN IRUZKINAK**

Nabarmena da, Ganberari gustatu ala ez gustatu, sozietate mistoen bitarteko zeharkako kudeaketak errentagarritasun handia ekarri diola udalerrinari eta, azken batean, biztanleen eta etxebizitza babestuen egungo eta etorkizuneko esleipen-hartzaileen interes publikoari, zeren eta horren bidez kalitate handiagoko etxebizitza batzuk eta udal zerbitzu gehiago lortzen baitituzte, udalerrientzako etekin handiak lortzearen bidetik. Izan ere, Eguesibarkoa da Nafarroako udaletatik zorrik batere ez duenetako bat.

Bitxia da txostenean ez azpimarratzea hain onuragarria izan den ondorio ekonomiko hori.

Bazkide pribatuak izandako ondare-hazkunderari dagokionez, honako alderaketa-taula proposatzen dugu:

NASIPA	KONTUEN GANBERAREN ARABERA		NASIPAREN ARABERA		Oharrak
	Behera	Gora	Behera	Gora	
Inbertsio finantzarioa	148.518		148.518		Ok
Sozietate-hartzekoa Egüés 21, S.A. desegitean		512.531		512.531	Ok
Egüés 21, S.A.k jasotako dibidenduak		179.709		179.709	Ok
Etekin gordinen fakturen bidezko banaketa, Egüés 21, S.A.		865.667		38.646	Egin eta justifikatu diren obren exekuzioa. 865.667 euroren % 5eko industria-etekina
Egüés 21, S.A.ren kudeaketa-komisioa		1.699.042		999.042	Etekin gisa islatzen da guztizko fakturazioa, izandako kostuak kontuan izan gabe.
Etxebizitzen eraikuntzaren industria-etekina (ehuneko 5), Egüés 21, S.A.		1.208.626		1.208.626	Ok
<b>Egüés 21, S.A., guztira</b>		<b>4.465.575</b>		<b>2.938.554</b>	
Egüés 21-II, S.L.k jasotako dibidenduak		132.840		132.840	Ok
Egüés 21-II, S.L.ren kudeaketa-komisioa		400.000		192.000	Etekin gisa islatzen da guztizko fakturazioa, lehiaketaren eskaintzan deskribatutako kostuak kontuan izan gabe (5. gutun-azaleko 15. orrialdea). Ordaindu behar izan ziren 108.000 euroak ez dira deskontatu.
Etxebizitzen eraikuntzaren industria-etekina (ehuneko 5), Egüés 21-II, S.L.		614.584		153.646	Obra hartzeko egin behar izan zen baja dela eta, % 5eko etekina beharrean % 1,5ekoa lortu zen.
Sustapenaren gastuak, bere kargura hartu behar zituenak		1.259.616		642.404	NASIPARI dagokion zatia, bazkideari aitortu zaiona (% 51)
Egüés 21-II, S.L.ren ondare garbia, 2013ko uztailaren 31n (ehuneko 48,97)		630.167		630.167	Ok
<b>Egüés 21-II, S.L., guztira</b>		<b>3.037.207</b>		<b>1.751.057</b>	
Guztira	148.518	7.502.782	148.518	4.689.611	
<b>Ondare garbiaren hazkuntza, guztira</b>	<b>7.354.264</b>		<b>4.541.093</b>		

**CAROLINA POTAU MENÉNDEZ ANDREAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

A: Kontuen Ganbera

Jaun-andre horiek:

"Eguesibarko Udalaren sozietate publikoen kudeaketa (2004-2013)" izeneko behin-behineko txostena igorri zenidaten, posta elektronikoz bidez, 2014ko ekainaren 10ean. Hari dagokionez, berriz ere jakinarazten dizuet 2011ko maiatzean utzi nituela Eguesibarko Udalean neuzkan ardurak politikoak eta lanekoak, eta zinegotzi akta ere urte bereko azaroan utzi nuela.

Harrigarri egin zait zeinen azkar utzi dituzuen alde batera bidali zaizkizuen iradokizun eta iritzi gehienak, kontuan izanda txostena egiten ia urte eta erdi eman duzuela eta balizko ukituek gure iritziak emateko edo alegazioak aurkezteko epeak, berriz, oso laburrak izan direla: 10 egun lehenengo kasuan eta 8 egun azken honetan. Izan ere, horren bidez **nabarmen urritu dira alegazio-egileek defentsarako daukaten eskubidea.**

Egun daukadan egoeran, ez daukat jada ez hartu-emanik, ez kontakturik egungo Udalarekin; ez daukat, ezta ere, ez dokumentaziorik, ez informaziorik nire garaian zinegotzi moduan egin nuen lanari buruz. Horrenbestez, oroimena baino ez zait gelditzen zuen ondorioei erantzuteko, orain dela ia 8 urte gertatutako egitate batzuei dagokienez.

Egiaztatu dut behin-behineko txostenean ez dela jaso helarazi nizuen argitasun bat, eta, horrenbestez, bera **alegazio** moduan azalduko dut orain, egun hauetan gogoratzeko aukera izan dudana besteren batekin.

**LEHENA.-** Kontabilitate-lanak egiteagatik eta zerga- eta merkataritza-betebeharrak betetzeagatik Andacelay, S.L. sozietatetik 300 euro kobratu izanak baliabide publikoetarako kalte bat izateari dagokionez, barkatuko didazue erabateko desadostasuna adierazten badizuet, zeren eta lan hori nahitaez egitekoa baitzen eta Udalean hura egiteko gaitasuna zuen inor ez baitzegoen, zeren eta kontu-hartzaileak ez baitu kontabilitate publikoari buruzko ezagupenik. Aholkularitza-enpresa bat edo kudeatzaile bat kontratatzeko aukera baloratu zen, baina horiei ordaindu egin beharko zitzaizkien eta horren kostua askoz ere handiagoa izanen zen niri ordaindu zitzaidana baino; hartara, **Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen**, eta horren akta baduzue, hainbat alderdi politiko ordezkatzeko zituzten zinegotzi guztien botoarekin, konponbiderik onena, ekonomikoena eta efizienteena izanen litzatekeela lan hori neronek egitea, nire ezagutzak eta esperientzia kontuan izanda. Horrenbestez, kalte ekonomikorik ez zen egon; izatekotan, kostuetan aurrezki bat gertatu zen. Lan hori Udaleko zinegotzi delegatu gisa neuzkan erantzukizunez gainekoa zen; gehigarria, beraz.

Ordainsari hori kobratzeko balizko bateraezintasunari dagokionez, ulertzen dut txostenean zalantzarik gabe jaso behar dela ezen erabaki hori hartutako Kontseiluaren bilkuran Udaleko aholkulari juridikoa egon zela, eta ez zuela inongo iruzkinik egin gaiari buruz, hain zuzen ere horixe izaki bere lana: politikariei aholkua ematea hartzen dituzten erabakien balio juridikoari buruz. Andacelayko Administrazio Kontseiluak aho batez hartutako akordioa dela-eta **ez zen legez kontrakotasunik egon zitekeenik ohartarazi.**

Halakorik ere ez zen izan Udalaren inongo teknikari juridikoren aldetik, kobratzen egon nintzen garaian –bost urte eta erdi inguru izan ziren, gaizki gogoratzeko ez banaiz–. Alde egin eta bi urtera gaiari buruzko txosten bat agertu da (pentsatzen dut oraingo kontseilariak eskatuta egiten zela). **Ulertzen dut argiro jasota geratu behar dela zure txostenean urtetan ez zela eginkizunen balizko bateraezintasunaren ohartarazpenik egin.**

Gainera, Udaleko langile guztiek eta alderdi guztietako zinegotziek ezagutzen zuten gaia zen, eta, zuek diozuen bezala, egitate hori zergetan aitortu zen, bai sozietatean, bai errentaren gaineko zergaren nire urteko aitopenean ere, eta, horrenbestez, gai gardena zen, denbora horretan guztian inork zalantzan jarri ez zuena.

**.BIGARRENA.- Andacelay, S.L.k egin zituen fakturen baliozkotasunari** dagokionez, esan beharra dago faktura horiek guztiz errealak direla, eta sozietate publikoak Udalaren baliabide berekien egindako lan burokratiko eta kontroleko zegozkiela, guztiak ere Nasiparen obrekin zerikusia zutenak eta kobratzea erabaki zirenak.

Obretan hasieran ustekabeko batzuk izan ziren, etxebizitzetan egin ziren hobekuntza batzuez gainera –nire ustez, bazkide pribatuak justifikatu beharko lituzke horiek–, eta Andacelay, S.L.k prezio-igoera horiek ordaintzeari ezezkoa eman zionez, zeren eta obra prezio itxi batekin esleitu baitzen, bilera eta eztabaida ugariren ondoren jo zen ustekabekoak eta hobekuntzak beharrezkoak eta aurreikusteko modukoak zirela etorkizuneko sustapenei begira, eta sozietate publikoak haien gainean kontrol handiagoa eduki behar zuela.

Horrenbestez, **fakturak dagozkie hobekuntzak eta aldaketak errealak eta beharren arabera** zirela ziurtatzeko egindako kudeaketa horiei eta obren ikuskatze-, kontrol- eta jarraipen-eginkizun horiei. Horiekin, noski, bilatzen zen, halaber, obrako gastu-igoerak eraginik ez izatea sustapenaren amaierako etekinean.

Hartara, **etekinei buruzko aurreikuspenak bete egin ziren**, sozietate publikoak horretarako egiazko lan eta kontrol bat eginda.

**HIRUGARRENA.-** Finantza-gastuen gaiari dagokionez, egia da konkurtsoan positiboki baloratu zela Nasipak sustapeneko finantza-gastuak bere gain hartzea.

Nik Udala utzi nuenean obrak hasi berriak zirenez, eta une hartarako salmentek arrakasta handia zutenez, aurreko sustapenetan bezala, **akordio tazitua zen finantza-gastuak obraren amaieran konpentsatuko zirela, kostu errealak ezagutzen zenean**. Inork ere ezin zuen susmatu zenbat uko-egite egonen ziren gero, ohikoez oso gaintikoak, segur aski Udaleko sektore batetik jaurtikitako difamazio-kanpainaren ondorioz, bai eta finantza-kostu horiek nabarmen handitzea eraginen zuen krisi ekonomikoaren ondorioz ere.

Hori guztia gora-behera, gastu horien kudeaketa gero sozietatearen kontrola bereganatu zuten pertsonen legokieke, eta ez ni presente nengoeneko Kontseiluari, zeren eta 2011ko maiatzetik, merkataritza-mailan kontseilari gisa jarraitzen genuen arren, praktikan ez baikenuen hartan inongo eginkizunik betetzen.

Eskatzen dizut alderdi hori konprobatu eta egiazta dezazuen, zeren iruditzen baitzait garrantzi handikoa dela **ezartzea nork egin zuen azken sustapeneko obraren eta bilakaeraren gaineko kontrola**.

Ondorio gisa esan nahi nuke sozietate mistoen kudeaketak Udalari lur-zatien zuzeneko besterentzearen kasuan lortuko zuenaz oso gaintiko etekina eman ziela, eta horrek zuzeneko eragina izan duela ibarreko bizilagun guztiengan, zerbitzu eta azpiegitura hobeak lortu baitituzte. Kudeaketa horrek, gainera, Udala, nik alde egin ondoren, egoera ekonomiko ezin hobean utzi zuen, etorkizuneko beharriari aurre egiteari dagokionez.

Azaldutakoa dela eta, Ganberari eskatzen diot egintzat eman ditzala aurreko alegazio horiek eta behin betiko txostenean sar ditzala.

Agur,

Carolina Potau Menéndez



**KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA, EGUESIBARKO UDALAREN SOZIETATE PUBLIKOEI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI DAGOKIENA.**

Andacelay, S.L.ko lehendakari Alfonso Etxeberria jaunak, Andacelay, S.L.ko lehendakari ohi José Anastasio Andía jaunak, NASIPA sozietatearen ordezkari Saturnino Luis jaunak eta Andacelay, S.L.ren ahaldun ohi Carolina Potau andreak aurkeztutako alegazioak aztertu ditugu, eta behin-behineko txostenaren ondorioak aldatzen ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu. Hala eta guztiz ere, Ganbera honek honako zehaztapenak adierazi nahi ditu aurreko alegazio horietako batzuk direla eta:

**A) Andacelay, S.L.ko lehendakari Alfonso Etxeberria jaunak aurkeztutako alegazioak**

Bigarrena. Andacelayk A.1 lur-zatien finantzaketa aurreratzea Ulertzen dugu, behin-behineko txostenean aipatzen den moduan, A.1 lur-zatiak erosteko finantzaketaren formularen aldaketarako jatorria hautapen prozesu horren ondotik lege-araudian gertatutako aldaketa batzuetan dagoela. Horrenbestez, haren garapenaren ondoren gertatutako arrazoi bat da.

Laugarrena. 2. sustapenari buruzko erantzunak. Proiektua eta obra-zuzendaritza. Txosteneko V. atalean azaltzen den laburbiltzea ondorioen eta kontratazio administratiboaren arloan antzemandako gabezi nagusien laburpen bat da, eta ez da soilik txostenaren edukian jasotzen diren zerranda exhaustibo bat, zeren eta soilik garrantzitsuentzat jotzen direnak aipatzen batira.

Seigarrena. Sozietate mistoen auditoriaren sinadura. Gai horri buruz, Ganbera honek honakoa adierazi nahi du:

- 2006tik, BORMEren arabera, alegazio-egileak aipatzen duen auditoria-bulegoan bi sinadura daude, bata aholkularitzarena eta bestea auditoriarena<sup>32</sup>. Andacelayren aurka kontabilitatea eramategatik egiten diren fakturei dagokienez –2011ko uztailetik 2012ko abendura bitartekoak–, idazkiaren buruan, 2011n, "Asesores-Audidores" logotipoa ageri da, eta 2012an, berriz, "Asesores". Sozietate mistoetan, auditoria lanen fakturen buruan "Audidores, S.L." logotipoa ageri da.
- "Bigarren gradurainoko ahaidetasunari" dagokionez, ez dago berariaz jasota bateraezintasun arrazoi gisa kontuen auditoriari buruzko lege indardunean. Alabaina, ez da alde batera utzi behar deseatzekoa zela sozietate mistoetako administrazio kontseiluei informazioa ematea familia-lotura horri buruz.

Txosteneko II.1 atalean adierazten den bezala, Kontuen Ganbera honen eskumen-esparrua, indarreko legediaren arabera, foru sektore publikoko entitateen fiskalizazio ekonomiko eta finantzariara mugatzen dela, eta ez daukala eskumenik esparru horretatik kanpora pertsona fisikoek eta/edo juridikoek eginiko jarduketak ikertu edo berrikusteko.

**B) Andacelay, S.L.ko lehendakari ohi José Anastasio Andía jaunak aurkeztutako alegazioak**

Sarreran, haiak aurkezteko epea aipatzen da. Ganberaren fiskalizazio-prozedurak ezartzen duen 15 eguneko epea gehieneko epe bat da –alegazio-egileak aitortzen duen bezala–, eta hala dago jasota berariaz prozedura horretan; 8 eguneko epea eman zen, aurrez aldaketak egiteko zirriborroa bidalia zitzaielako. Gainera, tradizionalki, alegazioak aurkezteko epea hori zabaldu izan da, berariaz eta arrazoiak emanez eskatzen denean. Horrenbestez, Ganbera honek ezin du onartu defentsarako eskubidea mugatu denik.

Bigarrena. Andacelay, S.L.k Egüés 21, S.A.ri egindako fakturei dagokienez, txostenean adierazi genuen bezala ez dago egiaztagiririk Udaleko langileek, alegazioan aipatzen denaren arabera, emandako zerbitzuen izaerari buruz; lan horiek ez daude jasota, ezta ere, aipatutako bi

---

<sup>32</sup> 2008an, SLP bilakatu zen.

sozietate publikoen artxiboetan. Gainera, fakturaren beraren testua orokorra da, eta ez du berariaz aipatzen esandako enpresa mistoak garatu zituen bi sustapenen jarduketei buruzkoa dela. Azkenik, adierazi behar dugu fakturatutako zenbatekoak Udaleko langileek gastuen zati handi bat direla: 2007ko ekitaldian, ehuneko 10, eta 2008ko ekitaldian, ehuneko 18,87.

Horrenbestez, behar adinako agiri-euskarririk ez egoteak ez du biderik ematen Udalaren baliabide berekiak erabiltzeari buruz, zenbateko horien arabera, aurkeztutako alegazioa aintzat hartzeko.

NASIPA, S.L.k egindako fakturei dagokienez, aipatutako sozietateak aurkeztutako alegazioen erantzunari dagokion atala aipatu behar dugu.

Hirugarrena eta laugarrena. NASIParen ordezkariak aurkeztutako termino beretan adierazita daudenez, erantzun horretara jo beharko da.

Bosgarrena. Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrak egindako txostenari dagokionez, behin-behineko txostenaren edukia berretsi beharrean gaude, zeren eta sozietate mistoa eratzeari buruzko orriek ez baitituzte zabalpen horiek arautu beharko lituzketen oinarritzko baldintza juridiko, ekonomiko eta teknikoak jasotzen, horixe izaki Kontratazio Batzarraren aipatutako txostenak, bosgarren orrialdean, kontratua etorkizuneko lur-zatietara zabaltzeko berariaz aipatzen duen baldintza.

### **C) NASIPA, S.L.ren ordezkari Saturnino Luis jaunak aurkeztutako alegazioak**

C0,1. Alegazioak aurkezteko eskabidea.

Alegazioak aurkezteko eskabidean, alegazio-egileak adierazpen batzuk jasotzen ditu. Haiek direla eta, Ganbera honek honakoa azaldu nahi du:

Lehena. Kontuen Ganberak, bere jarduketetan, berrezarri zenetik erakutsi duen bezala, fiskalizazio-eginkizunak betetzen ditu, nazio mailako eta nazioartek sektore publikoaren auditoria-arauen arabera, ahal den zorrotasun tekniko handiena eta behar diren diligenzia aplikatuz bere jarduketetan eta bere lan guztietan eszeptizismo profesionaleko jarrera bat hartuz. Horrenbestez, gure txostenek langileek egindako lana islatzen dute, inongo ez interferentziarik ez alde aurretiko jarrerarik gabe. Horrenbestez, onartezintzat jotzen da alegazio-egileak egindako balio-juzkua.

Zorrotasun eta kaudimen tekniko bera aplikatzen da aurkeztutako iradokizun eta alegazioen azterketan eta berrikuspenean.

Bigarrena. Ganberaren fiskalizazio-prozedurak ezartzen duen 15 eguneko epea gehieneko epe bat da, eta hala dago jasota berariaz prozedura horretan; 8 eguneko epea eman zen, aurrez aldaketak egiteko zirriborroa bidalia zitzaielako. Izan ere, maiatzaren 20tik ezagutzen zuten zirriborro hori. Gainera, tradizionalki, alegazioak aurkezteko epea hori zabaldu izan da, berariaz eta arrazoiak emanez eskatzen denean. Horrenbestez, Ganbera honek ezin du onartu defentsarako eskubidea mugatu denik.

Hirugarrena. Alegazio-egileak parlamentu-eskariaren data nahasten du azterketa-lanaren hasierako datarekin, eta okerreko ondorioa ateratzen du gure jarduketaren iraupenari buruz. Izan ere, Sarrera izeneko txosteneko I. atalean berariaz irakur daitekeen bezala –hura irakurtzeko gomendioa egiten dugu–, azterketa lana 2013ko azaroan hasi zen eta 2014ko martxoan amaitu. Gure asmoa zen, eta hala zegoen aurreikusita lan plangintzari buruzko oroitidazkian, hura martxo baino lehen amaitzea; alabaina, txosteneko mugetan islatzen den bezala, kontabilitate-erregistroak eskura ez edukitzeak eta haien osotasunari eta fidagarritasunari buruzko zalantzak, bai eta sozietate mistoei buruzko dokumentazio faltak ere, izugarri zaildu zuten gure egitekoa.

Laugarrena. Alegazio-egileak dio aldaketak egiteko zirriborroa zela-eta 44 orriko iradokizunak aurkeztu zituztela. Horri dagokionez, esan beharra dago orrien ia erdiak zirriborro horren hitzez hitzeko kopia zirela. Horrek erraztu egin zuen haien azterketa eta kontrastea. Hori dela eta,

harrigarri egiten zaigu esatea iradokizun horien azterketa "abiada biziko epe batean" egin zuela Ganbera honek.

Gure jarduketaren epeari buruzko alegazio-egilearen okerreko interpretazioa, gainera, lotzen da, inongo arrazoi objektiborik gabe, jasotako iradokizunei buruzko azterketaren azkartasunarekin.

## C.2. Berariazko alegazioak.

### I. "Sozietate mistoen botere esleipen-egilearen izaera"

Gai hori kokatuta dagoen txosteneko orriari dela-eta alegazioetan dagoen akats bat alde batera utzita, soilik adierazi nahi dugu ezen Kontuen Ganbera honek 2006ko kontuei buruzko txostenean zalantzak planteatu zituenean sozietate mistoaren izaerari buruz, aplikatzekoak ziren kontratazio-prozedurei zegokienez, Udala bera izan zela Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzarrari horri buruzko txostena eskatu ziona. Txosten horren ondorioak fiskalizazio-txosten honetan ageri den bera da.

Harrigarri gertatzen da alegazio horren amaierako iruzkina, zeren eta egindako lanetik ondorioztatzen baita sozietate mistoek kontratazio-araudiaren ez-betetze garrantzitsua egin dutela.

### II. "Andacelayri buruzko ondorioak"

#### a) *3-A-9 lur-zatiaren zuzeneko salmenta*

Enpresa mistoei zuzenean egindako esleipen eta transmisio batzuk justifikatu nahi dituzten alegazioak errefusatu beharrekoak dira, zeren eta okerreko argudio juridikoetan oinarritzen baitira. Izan ere, argudio horiekin oinarria eman nahi baitzaizkie legeari iruzur eginez egindako jarduketei eta abalatu nahi baitira kontratazio publikoaren arloan funtsezkoenak diren helburu eta printzipioen aurkakoak diren jarduketak. Esate baterako, kontratu-prozeduretan faltsutu gabeko lehia askea zalantzan geratuko litzateke baldin eta –alegazio-egileak nahi duen bezala– onartuko balitz botere esleipen-egileek aukera eduki beharko luketela sozietate mistoak erabiliz kontratu publikoen zuzeneko esleipenak mozorrotzera bideratutako tresnetara jotzeko. Jakina den bezala eta jurisprudentziak eta doktrinak aho batez eta behin eta berriz errepikatu duen bezala, sozietate misto bat ezin izanen da sekula kalifikatu tresna-sozietate gisa (ez eta tresna-sozietatearen tresna gisa ere): ezin da baliabide berekia izan, eta administrazio publikoekiko duen harremanean bete behar ditu –ahal bada modu zorrotenean, bere partaidetza publikoa tarteko– aplikatzekoak diren kontratu- eta ondare-arauak.

Bestalde, eta alegazio-egileak azaldutako azterketa meheak alde batera utzita, soilik iruzkindu nahi genuke, txostenean azaltzen den bezala, Kontratazio Publikoaren Batzarraren jarrera – Ganbera honek guztiz ados dago harekin– dela etorkizuneko lur-zatietarako zabalpena soilik egin zitekeela orrietan aurrez arautzen zirenean haien oinarritzko baldintzak, maila juridiko, tekniko eta ekonomikoan. Sozietate mistoa eratzeko orriek, ordea, ez dakarte halako araupetzerik.

#### b) *Lur-zatien salmenta prezioaren igoera*

Andacelay enpresak, merkataritza-sozietate gisa eta, bereziki, sozietate publiko gisa, agiri bidez eta teknikoki bermatu behar ditu bere jarduketa guztiak; are gehiago finantza-eraginak dituztenak.

d) *Egüés 21, S.A. sozietate mistoari zerbitzuak emateagatik Andacelayk eginiko fakturen bidezko diru-sarrerak.*

Horri dagokionez, ikus Kontuen Ganberak Andía jaunaren bigarren alegazioari emandako erantzuna.

### III. "Gestión y Promoción Egüés 21, S.A. sozietate mistoari buruzko ondorioak"

#### b) *Bigarren sustapeneko etxebizitzaren eraikuntza-obra*

Alegazio-egileak iruzkin batzuk egiten ditu NASIPAK obra horien lizitaziora aurkezteko balizko bateraezintasunari buruz. Halakorik, ordea, ez da txostenean iruzkindu. Gure txostenean zorrotz irakur dezazula gomendatzen dizugu.

Egiazki harrigarri gertatzen dena honakoa da:

- 18,37 milioi euroan balioetsitako lizitazio bat hiru enpresari gonbita eginez gauzatzea –horien arteko bat bazkide pribatua bera izaki–, beharrezkoa den publizitatea eta hautapen prozesu horri legez exijitzekoa zaion lehia murriztuz.
- NASIPAREN ordezkari bat egotea eskaintzak –besteak beste bere enpresarena– baloratzeko eratutako kontratazio mahaian, eta, gainera, haren lehendakari gisa jardutea. Ordezkari horrek sekula ez zuen onartu behar izendapen hori, zeren eta hura onartuta epaile eta kide bihurtu baitzen.
- Prezio itxiko kontratazioak, lizitazio zenbatekoa zorrotz ziurtatzen denean, ez du biderik ematen egiazki exekutututako obren errealitatea egiaztatzeko.
- Gainera, ikusten da kontraesan bat badagoela aurkeztutako alegazioetan, zeren eta, aurrerago iruzkinduko dugun bezala, obra horietan, NASIPAREN esanetan, hobekuntza eta ustekabeko batzuk izan baitziren, ezarritako prozeduraz kanpo fakturatu zirenak.

Azkenik, alegazio-egileak NASIPAK egungo Kontuen Ganberako lehendakariari etxebizitza bat saldu izanari buruz egiten den aipamenari dagokionez, konfirmatu beharra dago egiazki hori 2001eko uztailan izan zela. 2010eko martxora arte, lehendakari horrek ez du orain duen kargua bete izan, eta, gainera, haren bateraezintasun-arrazoia Ganberaren araudian bertan jasota daude, eta haien artean ez da jasotzen, logikoa den bezala, horrelako inguruabarrik. Absurdoa eta lerratia dena da egoera hori nahastea NASIPAK beste merkataritza-sozietate batzuekin izan lezakeen merkataritza-harremanarekin.

*c) Udalari bi sustapenengatik ordaindutako EIOZa eta obra lizentziak.*

Udalak emandako informazioaren arabera, 2012ko martxoaren 2an, sozietate mistoko ahalduak –aldi berean NASIPAREN enplegatua ere bazenak– udal horri eskari bat aurkeztu zion, ordaindutako EIOZak erregularizatzea jo zezan. Egitate hori berariaz jasota dago behin-behineko txostenean; horrenbestez, ez dugu ulertzen alegazio-egileak egindako iruzkina, txostenean gai hori "ez egotearen ondoriozko lerratzeari" buruzkoa. Berriz ere gomendatzen dizugu txostena zorrotz irakur dezazula.

*d) Andacelayk eta NASIPAK Egüés 21, S.A. sozietate mistoari egindako fakturak*

Gai horri buruz, Ganbera honek hauxe esan behar du:

- Gure eskura jarritako dokumentazioari buruz egindako azterketan, bai Andacelayk bai NASIPAK aipatutako sozietate mistoari egindako fakturretan ez zen inongo egiaztagiririk erantzen. Horrenbestez, Ganbera honi alderdi hori dela-eta egozten zaion zorrotasun eta azterketa eza zuzenak egotzi beharko litzaieke sozietate mistoaren kontabilitate-kudeaketaren arduradunei, zeren eta ez baitute beren lana behar den diligentziaz egin. Ezin dugu onartu alegazio-egileak egindako iruzkina, Ganberak egiaztatze hori aztertu behar izateari buruzkoa "egin dituen adierazpen okerrak egitera ausartu baino lehen", azterketa horretarako inongo justifikaziorik ez baitzegoen.
- Justifikaziorik ez izate horrek berarekin ekar dezake bidegabeko ordainketa egitea, eta horretan kontabilitate-erantzukizuneko eta beste esparru juridiko batzuetako ustezko aztarnak daude.
- NASIPAK sozietate mistoko Administrazio Kontseiluari aurkezten dion sustapenen kostuan ez dira sustapenen gastu behar baino handiago gisa sartzen aurreko fakturretako zenbatekoak.
- NASIPAK txostena eztabaidatzeko fasean aurkeztutako justifikazioari dagokionez, txostenean adierazitakoa berretsi behar dugu. Azken batean, ezin dugu haiek egiazkoak zirenik ondorioztatu, zeren eta ez baitago behar besteko ebidentziarik obra horiek egiteko arrazoiei buruz, haiek baimendu zituen pertsonari buruz edo obra-zuzendariak eta jabeak haiek sinatuta ez egoteari buruz.

- Ez Udalak ez Andacelay sozietateak ez dute inongo justifikaziorik aurkeztu aipatutako sozietate mistoak egindako fakturei buruz.
- Sozietateen egungo arduradunek aurkeztu ziguten dokumentuaren egiazkotasunari dagokionez, Ganbera hau ez da hura egiazkoa den ala ez erabaki behar duen organoa. Gure lana mugatu da haren sendotasuna eta kontabilitate-informazioarekiko zuen koherentzia egiaztatzeraz, eta erabateko bat-etortzea antzeman da, eta horregatik jaso da txostenean.

*e) NASIPari ordaindutako kudeaketa gastuak*

Gai horri dagokionez, deigarri gertatzen da ezen, konkurtso-prozesuan, NASIPA sozietateak ez zuela erreklamatu konkurtso-administratzaileak aitor zitzala alegazioan bere aldeko gisa aipatzen dituen zorrak.

IV. "Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L. sozietate mistoari buruzko ondorioak"

*a) Eraketarako baliogarria ez den fidantza*

Berriz ere berresten dugu txostenean jasotako ondorioa, non esaten baitu fidantza, legez existitu bazen, berme gisa mantendu behar zela kontratua guztiz exekutatu arte, orriek aipatzen duten bezalaxe, eta ez soilik sozietate mistoa eratu arte.

*c) Eraikuntza-obren kontratazioa*

Horri buruz ondokoa adierazi beharra dugu:

- Alegazio egileak berriz ere iruzkin batzuk egiten ditu NASIPAK aipatutako hautapen-prozesura aurkezteko izan zezakeen bateraezintasunari buruz. Berriz ere gomendatzen dizugu gure txostena zorrotz irakur dezazula.
- Sozietatea eratzeko kontratuaren xedeak hiru elementu jasotzen ditu, eta horien artean dago "proiektuaren erredakzioa eta obra-zuzendaritza"; enpresa bakoitzak aurkeztutako eskaintzekin batera, haiek egiteko lantaldea, proiektuaren erredakzioa eta obra-zuzendaritza aipatzen dira, horixe izaki baloraziorako aplikatutako azpi-irizpideetako bat. Hartara, NASIPAREN eskaintzan, informatzen da proiektu teknikoa ia amaituta dagoela, eta horretarako "izen handiko arkitektoen lantalde batekin kontaktatu dela, eta arkitekto horiek eraikuntzan esperientzia handia dutela, eta haien curriculuma eta proiektua erredaktatu duen lantaldearen konpromisoak erantsi direla. Gaia berriz ere aztertuta, sustapeneko gastuen deskribapenean aipatzen da zein den proiektua erredaktatu duen lantaldea, eta "proiektuaren erredakzioa dela-eta NASIPAK aurkeztutako eskaintza 507.000 eurokoa dela". Azkenik, Andacelayko Administrazio Kontseiluak eraketa-kontratua soilik NASIPA sozietateari esleitu zion, esleipen horretan proiektuaren erredakzio kostua -507.000 euro- sartuz.

Egia da, txostenean aipatzen den bezala, sozietate mistoak gero bereizirik kontratatu zituela erredakzioa eta obra-zuzendaritza NASIPAREN eskaintzan sartutako proiektu-egileekin. Alderdi hori ez zegoen berariaz adierazita orrietan, baina bai NASIPAREN eskaintzan.

- Obrei buruzko behar zen informazioa eskatzeko eta eskaintzak aurkezteko helbidea NASIPA enpresarena berarena izateak, gure iritziz, eragin garrantzitsua eduki ahal izan du prozeduraren objektibotasunean. Kontratu publikoetan, legezko araudia betetzeaz gainera, garrantzitsua da itxura formalei eustea, lehian eragin negatiboak izan daitezela saiheste aldera. Horri dagokionez, esan beharra daukagu ezen sozietate mistoa eratzeko guztira eraikuntza-enpresen sei eskaintza aurkeztu zirela -horietatik bost Nafarroan helbide soziala zuten enpresena-; eraikuntza-obretarako, berriz, hiru eskaintza baizik ez ziren aurkeztu, eta horietatik bi nazio-esparruko bi enpresarenak.

*d) Obra-kontraturako baliogarria ez den fidantza*

Ganberak bere txostenean baieztatzen du 2012ko martxoan aurkeztutako abala baliozkoa dela; ez, ordea, aurrez aurkeztutako epe finkoko diru-ezarpena.

*e) Udalari ordaindutako EIOZa eta obra lizentzia*

Gai horri dagokionez, soilik aipatu behar da Kontuen Ganberak, bere ondorioetan, Administrazio Kontseiluaren aktetan oinarritzen dela –hala behar baita–, hain zuzen ere sozietateko arduradunek eskuratutakoetan. Akta horiek egiazkoak diren ala ez, beste instantzia batzuetan argitu beharko da, hala bada.

*f) Maileguetatik eratorritako finantza-gastuak*

Alegatzen denaz bestera, sozietate mistoaren kontabilitatean –NASIPA bera arduratzen da hura eramateaz, gogora dezagun–, gastu horiek sustapenaren uste baino kostu handiagoaren gisara egotzita daude, eta ez zen berariaz aitortzen kontzeptu hori dela-eta sortutako zorra. Administrazio Kontseiluaren inongo aktatan ez dago jasota onetsi zenik alegazio-egileak horri dagokionez aipatzen dituen eragiketak.

NASIPAREN hartzekodunen konkurtsoaren ondorioz, Andacelayko egungo arduradunek konkurtso-administratzaileari erreklamatu zioten haien aitortzeko. Bistan denez, aipatutako konkurtso-administratzaileak legedi indarduna aplikatu eta zor hori aitortu zuen; hori, alabaina, ez zaio zertan gertatu behar Ganbera honi atsegin nahiz desatsegin. Konkurtso-administratzaileak erreklamaturako zorraren egiazkotasuna aitortu baizik ez zuen egin.

Aipatzen da txosteneko iruzkinak "gutziz alde bakarrekoak direla, auresuposatzen baita konkurtsoan ez dela ezer ere kobratuko". Horri dagokionez, alegazio-egileari gomendatuko genioke txostena zorrotzasunez irakurtzeko, zeren eta baieztatzen den gauza bakarra baita zor hori menpeko zortzat kalifikatu dela, eta kobratzeko azken tokian geratu dela. Horri dagokionez, adierazi behar dugu, halaber, ezen, lehiaketa horren arabera, NASIPAREN ondasun eta eskubideen balioa guztira 53,93 milioi eurokoa dela, eta, bitartean, konkurtso-kredituak 83,55 milioioiokoa direla; eta soilik bereziko pribilegio gisa kalifikaturako kredituak hartuta, haien balioak ondasun eta eskubideen aipatutako balioa gainditzen dela.

*i) Sustapenaren gastuak eta diru-sarrerak*

Kontuen Ganbera honentzat egiazki kezkarri zitzaiona eta orain ere kezkarri zaiona ez da sozietate mistoen bidezko kudeaketa-eredua –eredu hori, txostenean esaten den bezala, jada legedi indardunean jasota dago–, baizik eta botere publikoek sozietate misto horiek garatutako jardueraren gainean aplikaturako kontrol-eredua. Oraingo txostenaren eta antzemandako irregulartasunen emaitzek kezka hori berresten dute.

Azken batean, botere publikoek ia erabat utzi dute bazkide pribatuaren eskuetan sozietate misto horien kudeaketari buruzko erabaki nagusiak, eta horrek ez du legezko kudeaketa bat, kudeaketa garden eta interes publikoaren xedeari guztiz egokitu bermatu, horixe izaki sozietate horiek bilatu behar zutena.

Halaber, Ganbera hau ezin da mugatu soilik lortutako emaitzen zenbatekoa goraiatzera, emaitza horiek murriztu ere egin ahal izan dituzten jarduketa batzuk antzeman baitira. Gainera, jotzen dugu etxebizitza babestuaren salmentaren bidez "etekin handiak" lortzea ez dela ongi ahokatzeko etxebizitzaren politika publiko egoki batek bilatu beharko lituzkeen helburuetan.

**D) Andacelay, S.L. ren ahaldu ohi Carolina Potau andreak aurkeztutako alegazioak**

Lehenengo, esan behar dugu harrigarri gertatzen zaigula alegazio-egilearen iruzkin bat, non esaten baitu "azkar utzi" ditugula "alde batera bidalitako iradokizun eta iritzi gehienak"; izan ere, Potau andreak soilik berak lansari batzuk jaso izanari buruzko iruzkinak egin zituen. .

Aurkeztutako beste alegazio batzuetan gertatzen den bezala, parlamentu-eskariaren data nahasten da azterketa-lanaren hasierako datarekin.

Alegazioak aurkezteko epeei dagokienez, eta ikusita gai hori Andía jaunak eta Luis jaunak erabilitako termino beretan planteatzen dela, Ganbera honek emandako erantzunera jotzeko eskatzen dugu.

Lehenengo alegazioari dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

- Deigarri gertatzen da iruzkin bat, zeinaren arabera kanpoko kontratazioaren kasuan "kostua askoz ere handiagoa izanen zen niri ordaindu zitzaidana baino". Aztertutako informazioaren arabera, eta hala dago berariaz jasota txostenean, alegazio-egilearen ordezkariaren kontabilitate-kudeaketaz arduratu zen kanpoko enpresak Potau andreak jaso zituen lansari berak jaso zituen; eta, are gehiago, orain kontabilitate-kudeaketaz arduratzen den hirugarren enpresak lan horrengatik ia bi heren gutxiago jasotzen dut.
- Udaleko idazkariak txostena bidali arte, aztertutako agiriari bakarrez ere ez dago jasota zuri ohartarazpena egin izana kontabilitate-kudeaketa horiengatik lansari bar kontratzearen bateraezintasunari buruz. Hala eta guztiz ere, araudiaren arabera, tokiko udalbatzetako kideei aplikatzekoak zaizkien bateraezintasun-araubidea betetzeko lehenengo arduraduna haien hartzailea bera da.

Aurkeztutako bigarren eta hirugarren alegazioei dagokienez, ikusita Luis jaunak aurkeztutakoen termino berdinetan erredaktatuta daudela, Ganbera honek NASIParen ordezkariari emandako erantzunera jo beharko da.

Iruñean, 2014ko ekainaren 25ean  
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

